

+



Antxintxika taldearen triatloi egokituko saila

Eñaut Agirre filologoari elkarrizketa

**Arrasateko Erguin auzoan TAO sistema ezartzeko galdeketa egingo dute hilaren 31ra arte** / 11

**Inoizko saririk handiena eroan dute ETB1eko 'Zurekin bat' saioan lau gazte debagoiendarrek** / 20



**Toti Martinez de Lezearen 'Bretxa' musikal bihurtuko du Bergara Antzerki Musikala elkarteak** / 40

**Larramendiko Arnasa taldea aurkeztu dute, Bergaran aurreikusita dagoen hondakinen plantaren aurka** / 24

**Beste urte batzuetan baino gutxiago badira ere, 171 atleta ariko dira zapatuan Oñatiko duatloian** / 39

#### SINADURAK

 IDOIA PEÑAKOBA ETXEBARRIA / 8	 MARI CARMEN ARRIETA / 22
 JOHANNA SANCHEZ / 11	 ALAZNE GURIDI / 35
 OIER ZUMARRAGA ARANBURU / 18	 ANE ZUAZUBISKAR / 48



**"GURE TARIFAK EZ DIRA PREZIOEN ARABERAKOAK, EZTA ERREGAIAREN ETA BIDESARIEN ARABERAKOAK ERE"**

Erregaiaren prezioak eta bidesariekin lotutako erabakiek aspaldi egositako haserrea hauspotu dute garraiolarien sektorean / 2

Jon Ander Arza eta Jokin Rodriguez kamioilari oñatiarrak, eguaztenean, Zubillagan. XABIER URZELAI

**2 MÓ 229€**  
BETAURREKO  
PROGRESIBO



(BATZUK EGUZKITAKOAK IZAN DAITEZKE)

Kontsultatu optikan kanpoinaren ezaugarriak.



Otalora Lizentziaduna, 18  
Tel.: 943 79 29 95  
ARRASATE

Ibargarai, 16  
Tel.: 943 76 15 75  
BERGARA

www.multiópticas.com

**MULTIÓPTICAS**  
50 urte zuen ikusmena zaintzen



Jon Ander Arza eta Jokin Rodriguez garraiolariek salatu dute tarifak ez doazela bat kostuekin. XABIER URZELAI

## Garraiolarien sektorea: eten berri den katebegia

Erregaiaren prezioaren etengabeko gorakadak edota bidesarien inguruko erabakiek aspaldi egositako haserrea hauspotu dute garraiolarien sektorean; Debagoieneko gidariak azaldu dute ez dutela onartuko irabaziak gastuak baino txikiagoak izatea

### Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Ekonomia krisiek eta pandemiak gogor kolpatu dute garraiolarien sektorea ere. Halaber, egunotan puri-purian dagoen erregaiaren prezioaren gorakadak ez bairik gabeko eragina izan du alorrean. Garraiolaria debagoiendarrek "kezkaz" eta "ziurgabetasunez" bizi dute egoera, eta azken urteetan izan dituzten zailtasunak

eta borrokak azaleratu dituzte asteon, Euskal Herriko eta Espainiako beste hainbat gidariarekin batera.

Jokin Rodriguez, Jon Ander Arza eta Josetxo Atxaga bailarako kamioi gidariak adierazi dutenez, urte asko daramatzate sektoreko langileen baldintzak hobetu nahian. Eta bide horretan "zenbait lorpen" egin dituz-

tela aipatu duten arren, egoera "geroz eta zailagoa" dela nabarmendu dute. Horri lotuta, Atxagak zehaztu nahi izan du aldea dagoela gidarien artean: "Sektorea baztertuta egon bada, gidari autonomoak oraindik eta gutxiago hartu dira kontuan. Inoren lurretan gaude".

"Lanean garatu ditzakegun gaixotasunak aintzat hartzea

eta bajak hartu ahal izatea; errepidean izan ditzakegun istripuak lan-istripu gisa hartzea eta ez trafiko-istripu gisa; 60 urterekin erretiratzea... Askok dira ditugun eskaerak", dio Rodriguezek. Baina guztien artean, ezinezon bat nabarmendu du, batik bat, Arzarekin batera: "Gure tarifak ez dira KPIaren arabekoak, ezta erregaiaren edo bidesarien arabekoak ere, eta, hortaz, geroz eta irabazi gutxiago ateratzen dugu. Gainera, egun dugu arazo handiena *postontzi-empresa* deitzen zaizen horiekin dugu".

### "Konpetentzia desleiala"

*Postontzi-entresak* dira sektorearen mugikortasuna aprobeztatuz herrialde bateko legeak baliatzen dituztenak, baina, era berean, beste herrialde batzuetan jarduten dutenak, errenta-garritasun handiagoa lortzeko.

"Europa ekialdeko herrialdeetan kokatzen dira gehienak, eta konpetentzia desleiala egiten digute: kota baxuagoak dituzte, zerga gutxiago ordaintzen dituzte, aseguru merkeagoak... Baina gure eremu berean ari dira lanean. Hortaz, eurek etekin handiagoa ateratzen dute guk baino, eta berdin zaie diru gutxiagoren truke lan egitea, gastuak ez baitira guk ditugun parekoak", azaldu du Arzak.

### Bidesariak eta erregaia, oztopo

Sektorearen baitako katramila legalez eta langileei dagozkien eskubideez gain, gidariak beste zenbait aldagai ere zerrendatu dituzte. Atxagak erregaiaren prezioaren gorakada jarri du jo-puntuari, besteak beste: "Momentu honetan, %47 gehiago ordaindu behar dut hilean gasolioarengatik, eta lehen irabazten nuen apurra galdu dut".

Horrez gain, autobideko bidesariak izan dituzte berba Rodriguezek eta Arzak. "Autoentzako tarifak jarri dituzte: hila-betean, gehienez ere –bidaia kopurua edozein dela ere–, kota finko bat ordaintzen da. Guk, gidariok, ez dugu aukerarik hori egiteko; eta kontuan hartu behar da autobidea lanerako erabiltzen dugula, ez aisialdirako".

Nolanahi ere, gidariak ondorioztatu dute aipatutako oztopo horiek gainditzea "erraza" dela: "Erregaia igo bada, igo dezatela guri ordaintzen digutena ere".

### Industria, garraioari begira

Gidariak jakitun dira produkzio-katearen erdian dagoen maila direla; hots, funtsezkoak direla entresak hornituta egoteko eta produktuak kontsumitzailengana iristeko. Eta, hain zuzen ere, hori baliatu dute euren eskakizunak egiteko. Garraiolarien plataformak deitutako lanuzte mugagabera batu dira euskal gidariak ere, eta asko greban dira astelehena ezker. Horren harira, piketeak ere egin dituzte eskualdean.


Bestetik, atzo, Arantza Tapia sailburuarekin izan zuten bilera, eta Tapiak azaldu zuen "arduraz" bizi duela egoera: "Grebaren ondorioz, gure ekoizpen-sarearen egoera okertzen ari da". Halere, "greba eta lan eskubideak errespetatu behar direla" zioen. Finean, neurriak "lehenbailehen" hartu behar direla esan zuten sailburuak eta garraiolariek.

**GIDARIEK SALATU DUTE TARIFAK EZ DOAZELA KOSTUEKIN BAT ETA EZ DUTELA ETEKINIK ATERATZEN**

22. korrika  
**HITZEKIN**  
 MATERIALA HEMEN SALGAI:  
 Korrika dendetan, AEKren euskaltegietan eta  
 www.korrika.eus atarian.  
 Amurriotik Donostiara  
 2022ko martxoaren 3tik apirilaren 10era  
 korrika.eus

## Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



## Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Arrasate	26	28	8.603	%39,34	<b>244</b>
Bergara	16	7	5.444	%37,33	<b>152</b>
Oñati	9	6	4.563	%39,93	<b>130</b>
Aramaio	5	6	557	%38,26	<b>743</b>
Aretxabaleta	5	3	2.606	%36,66	<b>113</b>
Eskoriatza	3	10	1.557	%37,69	<b>317</b>
Antzuola	1	1	829	%39,84	<b>92</b>
Elgeta	1	0	304	%26,64	<b>88</b>
Gatzaga	0	0	73	%34,60	<b>0</b>
<b>DEBAGOIENA</b>	<b>66</b>	<b>61</b>	<b>24.536</b>	<b>%38,33</b>	<b>198</b>

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

## Gora egin dute positiboek eta ospitaleratuak azken astean

Intzidentzia mapa kolorez jantzi den arren, beheranzko joera eten da bailaran, 66 kasu eta hiru ospitaleraturekin

**Jon Irizar Aranguren** DEBAGOIENA  
Urtarrileko lehen astetik zetorren beheranzko joera eten da Debagoienean. 66 positibo atzeman dira azken zazpi egunetan, iragan astean baino bost gehiago. Debagoieneko Ospitalean ez

zegoen ospitaleraturik duela astebete; hiru dira uneotan. Igoera adierazgarririk izan ez den arren, Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako bilakaerara batu da bailara: pixkanaka bada ere, hazten hasi dira datuak.

### Bost herri

Hala, intzidentzia-tasek kolorez aldatu dute bailarako mapa. Gatzaga, Antzuola eta Oñati batu zaizkie Aretxabaleta eta Elgetari, eta bost dira eremu gorritik kanpo dauden herriak.

**ERRESERBA EGIN ERRIOXAN**

Informazio gehiago

**La Rioja**  
lariojaturismo.com

# "Uneotan, 118 pertsona ditugu Larraña Etxean"

**NEREA MAIZTEGI OÑATIKO LARRAÑA HARRERA-ETXEKO ZUZENDARIA**

Berria da karguan, baina ia-ia zentroa zabaldu zenetik dihardu bertan askotariko lanetan. Sortzen diren premiei erantzun ahalik eta egokiena ematea du helburu

**Larraitz Zeberio Lekuona OÑATI**

Oñatiko Larraña Etxeak zuzendari berria du: Nerea Maiztegi oñatiarra. 2018ko urria ezker dago zabalik zentroa. Eusko Jaurlaritzak finantzatu du, eta Zehar Errefuxiatuekin erakundeak kudeatzen du.

**Zeintzuk dira zure egiteko nagusiak hartu berriak karguan?**

Koordinazioak arduratzen naiz; barruko koordinazioak eta kanpora begirako jarduerak. Egia esan, ni ere ikasten nabil.

**Aurretik ere Larraña Etxeko langileak zinen.**

Bai, ia-ia hasieratik. Askotariko lanpostuetan ibili naiz zuzendaritzara heldu aurretik.

**Zenbat lagunendako lekua dago Larraña Etxean eta zenbat pertsona daude une honetan?**

Egoera normalean, 80-100 pertsonarendako lekua egon daiteke. Gaur egun, 118 pertsona ditugu. Ahalik eta harrera egokiena emateko egokitu dugu espazioa. Gela bakoitzean orain familia handiagoak daude, esaterako.

**Zergatik hainbeste lagun orain? Ukrainako krisiaren eraginez?**

Zentroa, orokorrean, beti egoten da beteta. Mugak itxita egon zirenean, geldialdi bat egon zen, baina, gainerakoan, beteta egoten da beti.

**Ukrainakoa da berriki lehertu den krisia. Zenbat familia heldu dira Oñatira?**

Sei familia iritsi ziren lehenengo. Batzuk jada joan dira, eta beste batzuk etorri dira. Gehiago ailegatuko dira.

**Asilo-eskatzailak dira Larraña Etxera heltzen diren pertsonak. Zein zerbitzu behar izaten dituzte?**

Askotariko beharrak dituzte, eta saiatzen gara ahalik eta arreta indibidualena ematen. Orokorrean, osasun arreta, arreta juridikoa, formakuntza, umeen eskolaratzea, eroldaren kontua eta horrelakoak izaten dira nagusiak. Eta ahaztu egiten dugu,



Larraña Etxeko zuzendari Nerea Maiztegi. L.Z.L.

## "ATSEDEN HARTZEKO LEKU SEGURUA ESKAINTZEA DA GURETZAT GARRANTZITSUENA"

baina aisialdia ere oso garrantzitsua izaten da.

**Jatorriak eta profilak askotarikoak izango dira, noski.**

Bai; oso zaila da orokorrean hitz egitea. Pertsona hauek ihesi dazoz; izan gerra batetik, izan egoera ekonomiko batetik, izan klima batetik... Larraña Etxean bolada desberdinak izan ditugu. Egia da, hasiera batean, Saharaz azpiko mutil gazteak heltzen zirela, gehienbat. Gerora, familiak hasi ziren etortzen. Hurrengo, mutil gazteak Marokotik, Aljeriatik, Tunisiatik... Azkenaldian, georgiarrak ugaritu dira. Eta orain, ukrainarrak.

**Eta zenbateko egonaldiak egiten dituzte Larraña Etxean?**

Ez dago epe zehatzik. Bakoitzaren bizipenen eta baliabideen arabera da hori. Asilo-eskatzailak dira guztiak, eta arlo horretan aldaketak daudenean hasi

behar izaten dugu beste erregulazio bide batzuk pentsatzen.

**Zer iritzi duzu herrialde aberatsek dugun harrera sistemaren inguruan? Zer hobetuko zenuke?**

Espainiako harrera sistema ezagutzen dut nik, eta, gehienbat, Oñatin egiten den harrera. Uste dut gizarte moduan baditugula gauzak hobetzeko. Oraindik ere diskriminazioa dago, izan lanean, izan etxebizitza bat topatzeko... Titulazioak homologatzeko zailtasunak ere handiak dira oraindik ere. Baina esan nahiko nuke Euskal Herria, orokorrean, borondate onekoa dela eta oso solidario agertzen dela.

**Zure mezua herritarrei?**

Oñatiko herriarekiko esker ona besterik ez dugu. Hasiera-hasieratik oso ondo erantzun du. Beti esaten dugu guretzat garrantzitsuena pertsona hauei atsedena hartzeko leku segurua eskaintzea dela, berriz indartu eta aurrera egin dezaten. Jendeari esango nioke informatzeko, informazioa kontrastatzeko benetakoa den ziurtatzeko, kontzeptu egokiak erabiltzeko eta topiko faltsuekin kontuz ibiltzeko. Azkenik, Larraña Etxeko ateak zabalik daudela beti.



Monika Belastegi Goienako lehendakaria eta Unai Portilla MUko irakaslea. GOIENA

## Komunikazio Campusa, Goiena eta MUren eskutik, uztailen

II. Komunikazio Campusa egingo dute uztailaren 4tik 8ra eta 11tik 15era; irekita dago izen-ematea

**Eneko Azkarate ARETXABALETA**

Uztailen lehen bi asteetan, bi txandatan, astelehenetik bari-kura, 09:00etatik 13:30era egingo dute aurten Campusa. Helburua da gazteak modu praktikoa eta dibertigarria hurbiltzea komunikazioaren mundura. Horretarako, besteak beste, honako gai hauek jorratuko dituzte: kamera aurrean nola jarri, fotokazetaritza, podcastak nola egin, sare sozialen kudeaketa... Aurten arreta berezia jarriko da telebista platotik egindako zuzeneko podcast saioetan.

Ariketak egiteko, Mondragon Unibertsitateko Aretxabaletako Campuseko baliabideak erabiliko dira: telebista-platoa, ordenagailuak eta beharrezko izango duten bestelako materiala. Horretaz gain, Goienaren Arrasateko egoitza –erredakzioa, telebista-platoa eta irratia– bisitatuko dute egun batean.

**Iaz, esperientzia "positiboa"**

Iazko lehen esperientzia onaren ostean, bigarren egingo dute. "Parte hartu zuten gazteek oso gustura aritu zirela eta errepikatuko zutela adierazi zuten eta antolatzaileok ere balorazio positiboa egin genuenez, berriro egitea erabaki dugu", adierazi du Monika Belastegi, Goienako lehendakaria.

Mondragon Unibertsitateko Aretxabaletako Campusean egingo da eta Goienaren Arrasateko egoitza bisitatuko dute egun batean. Ainhoa Vitoria Gazteko irrati esataria, Alex Padilla sare sozialetan aditua eta Goiena Komunikazio Taldeko Xabier Urzelai izango dira aurtengo gonbidatuak.

Ekainaren 18ra arte eman daiteke izena –125 euro–, [www.labur.eus/komunikaziocampusa](http://www.labur.eus/komunikaziocampusa) helbidean. Plaza mugatuak dira; txandako, gehienez ere, hamabost.

## Industria hondakin ez-arriskutsuak jasoko dituzte Epelen

Industria arloko "beharrak" eraginda erabaki dute Eusko Jaurlaritzak eta Debagoieneko Mankomunitateak 2018a ezker ohiko jardunak ez duen Epeleko zaborteja berriro irekitzea, eta espero dute urtebete barru industria sektoreak sortzen dituen hondakin ez-arriskutsuak jasotzeko moduan egotea. Egoitzapen lanak urtea bukatu

aurretik hasiko lirateke, Mankomunitateko presidenteorde Garazi Larrearen arabera. Jaurlaritzak 2 milioi euroko dirulaguntza eman du zaborteja berriro irekitzeko.

Larreak azaldu du Epele berriro irekitzeko egin beharko liratekeen lanak zeintzuk diren: "Orain arte, lehen bi zeldak daude beteta, lehena eta bigarrena. Bigarren zelda hori zigilatuta beharko litzateke eta hirugarren bat eraiki. Beharrezkoa da hondakinak jasotzen hasteko".

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

## Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK 2022-2023

Eskaintza akademikoa	Ate irekien jardunaldiak
•Automatizazioa eta Robotika Industrialia	Martxoak 24 18:00
•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa	Martxoak 24 18:00
•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua	Martxoak 23 18:00
•Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa	Martxoak 23 18:00
•Mekatronika Industrialia	Martxoak 23 18:00

[www.mondragon.edu/lanbideheziketa](http://www.mondragon.edu/lanbideheziketa) • [onarpena.lhm@mondragon.edu](mailto:onarpena.lhm@mondragon.edu)  
664 298 704 • 664 298 683



Jon Ander Zabaleta Korta (Donostia)

**Z**ergatik aukeratu zenuen **Mekatronika Industrialia ikastea?**  
Mekatronika Industrialia ikasketak aukeratu nituen gero lan irteera handia dutelako. Aurreko lanean ez nengoen oso gustura, eta, ikasteko garaia orain zela konturatutik, eszedentzia eskatu eta ikasteari ekin nion, etorkizun hobea baten bila.

### Zergatik MGEPn?

Ate irekietan egon nintzen, eta MGEP, besteekin alderatuz, instalazio aldetik nabarmen hobeto prestatuagoa zegoela iruditu zitzaidan. Erronkek eurek ere, interesgarriago ziruditen. Horrez gain, gurasoak hemen ikasiak dira eta iritzi ona zuten.

### DUALean egon zara; zer-nolako esperientzia izan da?

Oraingoa nire bigarren DUALa da, aurreko zikloan ere DUAL programan ibili bainintzen, eta, zalantzarik gabe, ezinbesteko esperientzia izan da bi kasuetan. DUALari esker ikasitakoa hobeto barneratzeaz gain, lan egiten ere ikasten duzu; gainera, pertsona helduekin, profesionalekin, lan egiteak beste perspektiba bat ematen dizu. Horrez gain, urtebetez lan egiteko aukera ematen dizu, praktikak motzegiak baitira. Praktiketara esku pixka bat hartzen hasten zarenerako eta tailerreko dinamika ulertu, amaitu egiten dira, eta, DUALari esker, esperientzia hori luzatu eta barneratzeko aukera daukazu. Mondragon Assemblyn egon naiz DUALa egiten. Mondragon Assemblyk hainbat departamentu ditu eta ni makina berezien arloan ibili naiz. Bertan edozelarik motatako makinak muntatzen ditugu: medikuntza arloko makineria, gurpilei pegatinak itsasteko makinak... Beren kabuz makinak produzitu ezin dituzten enpresak izan ohi dira gure bezekoak. Beraiek makinak diseinatzen dituzte eta guk muntatu egiten ditugu, hobekuntzak proposatuz ikusiz gero.

Nire lana makinak muntatzea izan da, besteak beste. Azken finean, makinak muntatu ahal izateko aurretiko prestakuntza bat behar da. Pieza guztiak iritsi direla ziurtatu beharra dago, planoarekin bat datozeela ikusi, azpimultzoka banatu eta abar. Adibidez, medikuntza edo janariarekin zerikusia duten makinetan izapide dezente egin beharra dago, dena zorrozki gainbegiratzen denez pautak batzuk jarraitu beharra baitago.

Oso gustura ibili naiz, asko ikasi dut, lankideek lehenengo egunetik bat gehiago banintz bezala hartu ninduten eta asko erakutsi didate, galdera guztiari erantzuteaz gain. Lehenengo egunetan laguntza handia izan nuen, lankide batekin batera egiten nituen lan guztiak mekanikak ulertzeko, eta, segituan, pixkanaka, autonomia hartzen joan nintzen.

### Mondragon Assemblyn eginiko lanetan, zikloan ikasitakoa erabili duzu?

Bai, asko erabili dut: planoen interpretazioa, torlojuen izendapena, zulo hariztatuak nola egin, konektoreak jarri kableei, zirkuitu pneumatikoak osatu... Lan mekaniko asko. Ikasitako guztia ez dut erabili; izan ere, muntaia mekanikoa izanik, PLCren programazioa ez dut erabili, gure lanean ez baita sartzen.

GEROA EREIN



# Gainkostu handia ari dira jasaten, Ukrainakoagatik

**Julen Iriondo M. de Zuazo** ARRASATE Autogintza sektorean jarduten du, besteak beste, Antzuolako Goizperrek; makinak egiten ditu Fagor Arrasatek; eta pila alkalinoetarako dioxido manganoso elektrolitikoak ekoizten dute Oñatiko Autlanen. "Denei eragingo digu. Nahiz eta negozio zuzena ez egin eurekin, gertatzen ari dena oso potentea da, konexio asko dauzka, eta horren oihartzuna iritsi egiten da zure enpresara"; hori dio Goizperreko gerente Iñigo Erañak Errusiarekin eta Ukrainarekin sortutako egoerari buruz.

Ondorio zuzenez gain, zeharkakoak daude: "Badaude produktu batzuk guk fabrikatzen ditugunak Errusian bukatzen

Berriki adierazi du Adegik Gipuzkoako enpresen %62,5 hasiak direla Ukrainako gerraren ondorioak igartzen. Debagoienekoetan galdetuta ere baieztatu daiteke hori; eraginak askotarikoak dira Goizperren, Fagor Arrasaten eta Autlanen

duzenak, beste enpresa batek bere makinetan sartzen dituelako. Zeharka, hori ere sufritzen ari gara. Badakigu gure bezero batzuek Errusian zituzten zenbait proiektu erori egin direla, eta guri egindako eskariak ere bertan behera geratu dira".

Zigorren eragina, Errusiak ez ezik, beste askok ere jasango dutela dio Erañak: "Zigorrek zeharkako ondorioak dituzte hemengo enpresetan, eta ondorio txarrak". Horrekin batera, energiaren eta erregaien gares-

titzea eta, oro har, inflazioa ari dira sufritzen enpresak. "Gobernuak zerbait egin beharko du, hau ezin da jasan", dio Goizperreko gerenteak argindarraren prezioagatik.

## Zigorren eragina

Errusia jasaten ari den zigorre buruz mintzo da Fagor Arrasateko komunikazio arduradun Edorta Mendieta ere: "Askotariko zigorrek daude. Batzuk dira zenbait produktu erosteko debekuak; produktu elektronikoko

batzuk, agian, ezin dira saldu, industriarako ez ezik erabilera militarerako izan daitezkeelako, txip edo prozesagailu jakinak dituztelako. Ez dut uste gure makinak eta duten teknologiaren kasua denik".

Ukrainakoak eragindako zailtasunengatik kooperatibak dituen doikuntza eta bestelako mekanismoak martxan jartzeko asmorik oraingoz ez dutela dio Mendieta: "Etorkizunean, beharrezko izanez gero, hartuko dira neurriak, baina momentu ho-

netan ez daude mahai gainean. Baina erreminta horiek ondo funtzionatu izan dute. Sakrifizio pertsonalak eskatzen dituzte, baina enpresaren onerako da. Enpresa existitzen ez bada, ez dago inorentzako lanik".

Autlaneko zuzendari nagusi Sergio Romerok dio bezeroei "igoera handia" ezarri dietela energiaren garestitzeagatik, eta inflazioagatik ezin dietela orain beste igoera bat aplikatu.

## ZUZENKO ZEIN ZEHARKAKO ONDORIOAK IZATEN ARI DA GERRA ENPRESETAN

## "Gertatzen ari denak izugarritzko eragina izango du mundu osoan"

**IÑIGO ERAÑA** GOIZPER TALDEKO GERENTEA

Argindarraren garestitzea, garraiolarien grebarekin sortutako arazoak eta altzairuaren hornikuntza eta salneurria ditu hizpide kooperatibako gerenteak

Goizperrek baditu Errusiako eta Ukrainako bezeroak, nahiz eta ez dauden Antzuolako kooperatibaren merkatu inportanteen artean.

"Baina garbi daukagu gertatzen ari denak izugarritzko eragina izango duela Goizperren ere aurten", dio Iñigo Eraña gerenteak. "Energiaren prezioa erabat baldintzatuta dago, gaur egun, hor gertatzen ari denagatik. Egia da energiaren prezioak eragin handiagoa duela enpresa batzuetan beste batzuetan baino, baina, gehienetan, iazko urtearekin alderatuta, inpaktua izugarria da. Bestetik, garraioa dago —egunotan greban dagoena [erregaiaren prezioagatik]—; Errusiarekin eta Ukrainarekin zuzenean lan ez eginda ere, eragina du gure salmentetan, ze egun hauetan ezin dugu materiala ez atera ez ekarri, eta horrek

eragina izango du gure merkatuetan, gure bezeroetan; eskatu dizkiguten materialak beste nonbaitetik erosiko dituzte... Implikazioak asko dira, eta gauzak elkarrekin konektatuta daude".

Lehengai aldetik ere eragina "izugarria" dela dio Erañak, ekoizten diren produktuen arabera: "Adibidez, altzairuaren ekoizpenaren zati handi bat Errusian eta Ukrainan zegoen, eta garbi dago datozen hilabeteetan material batzuen gabezia egongo dela: altzairua, aluminioa...".

**"OSO ZAILA DA GAINKOSTUA BEZEROARENTZAKO PREZIOETARA %100EAN BIDERATZEA"**

## Altzairuaren prezioa, gora

Gabezia arriskuaz gain, halako gauzak gertatzen direnean prezioak gora egiten duela ere bada arazo enpresentzat: "Altzairuaren zati handiena ez dator Errusiatik eta Ukrainatik, baina, halakoak gertatzen direnean, prezioak gora egiten du automatikoki, espero delako gabezia hori egongo dela. Eta hori sufritzen ari gara dagoeneko". Eta zenbait gauzak gero eta "disponibilitate txikiagoa" izango duela dio Goizper kooperatibako gerenteak.

Hain egoera ezegonkorrean, beste ondorio bat da altzairu hornitzaileek ez dituztela aurrez prezioak ematen: "Jatetxeetan arrainarekin bezala: merkatuko prezioaren arabera. 'Bada, ikusiko dugu. Behar duzunean esan, eta



Iñigo Eraña, Goizperreko gerentea. GOIZPER

ikusiko dugu zein den prezioa', esaten dizute". Alde horretatik ere merkatuetan "urduritasun handia" dagoela dio Erañak.

Prezioen gorakadak eragindako gainkostua bezeroarentzako salneurria bidera ote daitekeen galdetuta, hori "bakoitzaren

egoeraren, merkatuetan eta sektoreetan duen posizioaren arabera" izan ohi dela dio: "Gu saiatzen ari gara bezeroarentzako preziora bideratzen, baina oso zaila izaten da %100ean egitea. Baina ez dugu beste irtenbiderik: prezioak igo egin ditugu".

## "Saiatzen ari gara inguru hartan kontratu berririk ez hartzen"

EDORTA MENDIETA FAGOR ARRASATEKO KOMUNIKAZIO ARDURADUNA

Dagokiena kobratzeko arazoak izan daitezkeela-eta, zuhurtiaz jokatu beharra nabarmentzen du Fagor Arrasateko komunikazio arduradun Edorta Mendietak

Ukrainan gertatzen ari denak Fagor Arrasaten duen zuzeneko eragina "nahikoa murrizta" dela dio Edorta Mendieta komunikazio arduradunak, euren salmenten "%1 eta %3 artean" direlako Errusiako merkatukoak. Baina badituzte "bete beharreko konpromisoak" hango enpresa errusiar zein atzerritar batzuetan instalatuta dituzten makinei lotuta: "Gure makinak inbertsio handia izaten dira bezeroentzat, eta euren bizi-iraupenean zehar mantenua behar izaten dute: konponketak, piezak aldatu... Eta hori kontratu bidez egoten da lotuta, eta adostutakoa ez betetzeak penalizazio garrantzitsuak ekarriko lituzke guretzat. Muntatzaileak-eta joateko, aire espazioa itxita dago, Europako hegaldiak ez dira sartzen... Hemengo jendea ezin da

hara bidali, gaur egun, baina ordezeko piezak-eta beste bezero batzuen bitartez-eta ari gara herrialdean sartzen".

### Zeharkako ondorioak

Prezioen gorakadak eragiten dio Fagor Arrasateri ere: "Ez hainbeste energiarenak, gu ez garelako elektointentsiboak. Baina bai, eragiten digu, adibidez, altzairuaren prezioak. Burdina asko erabiltzen dugu gure makinak egiteko, eta kostuak hainbat aldiz biderkatu dira: bai burdinarenak,

**"ADOSTUTAKOEA EZ BETETZEAK PENALIZAZIO GARRANTZITSUAK EKARRIKO LITUZKE GURETZAT"**

baita kobrearenak ere –hori ere asko erabiltzen dugu, gure makinak instalazio elektrikoetarako–; eta gero, garraioa: buruz nabil, baina itsaso bidezko garraioan, edukiontzi baten kostua 1.000 dolarren inguruan egon da, eta orain 11.000 inguruan dabil". Industriadako erabiltzen den KPlaren pareko indizeari begiratuta, prezioak %36 garestitu direla dio Mendietak: "Horrek inpaktu zuzena du edozein enpresatara kontuetan. Zaila egiten zaigu, edozein enpresari, gainkostu hori salmenta prezioan islatzea, eta, ondorioz, norberak hartu behar du bere gain". Horrek "egoera delikatu" eragiten du.

Ardura dago, baita ere, Errusiatik kobratu beharrekoekin: "Gure kasuan, operazio handiak izaten dira, diru asko mugitzen da, eta



Edorta Mendieta, azalpenak ematen. FAGOR ARRASATE

operazioek arriskua izan dezakete: beti oso zorrotz begiratzen da, eta, orain, arriskuak askoz finago begiratzen ibiliko dira, kobratzeak kudeatzeko. Ze bertako enpresek, bankuek eta abarrek murrizketa handiak dituzte. Gainera, Putinek dekretu bat onartu zuen, eta,

horrekin, dituzten zorrak, dolarretan izan arren, errubloetan ordain ditzakete, eta errubloak orain ez du piperrik ere balio. Beraz, agian, zorraren %30 soilik ordaintzen dizute. Saiatzen ari gara inguru hartan kontratu berririk ez hartzen.

## "Hileko 100.000 euroko argindar fakturatik 600.000kora pasa gara"

SERGIO ROMERO AUTLANEKO ZUZENDARI NAGUSIA

Prezioen garestitzeak eragin dio gehien Autlani; Errusiatik beharrean, antrazita beste toki batetik ekartzen ere hasi dira, Sergio Romero gerentearen arabera

Autlaneko –lehengo Cegasa– zuzendari nagusi Sergio Romerok dio euren energiaren garestitzeak eragin diela, batez ere: "Argindarra eta gasa izan dira ekoizpen kostuak izugarri igo dizkigutenak, eta, ondorioz, gure finantzaketa areagotu egin behar izan dugu, martxan jarraitu ahal izateko, eta horrek ekarri du gure produktuaren salmenta prezioa ere igoetzea". Hilean 100.000 euroko argindar faktura izatetik, 600.000koa izatera pasa dira, eta horren ondorioa izan da, besteak beste, euren produktuaren prezioa bikoiztea.

Lanaldiak egokitzeko aukerei buruz, hauxe dio Romerok: "Gure prozesua berezia da, prozesu kimiko jarraitua delako, geratu ezin dena. Saiatzen gara jarraituak ez diren prozesuak eta makinak ordu



Sergio Romero zuzendari nagusia. AUTLAN

garestietan geratzen, baina tarte handirik ez dugu".

### Lehiakortasun galera

"Arriskua da lehiakortasuna gal dezakezula beste herrialde batzuekiko; zorionez, gure kasuan, energia krisiak Txinari ere eragin dio; gure konpetentzia Txinan dago, eta prezioak igo ahal izan ditugu, eurek ere arazo bera izan dutelako eta prezioak igo dituztelako, eta ez dugu lehiakortasunik galdu", dio.

Lehengai nagusiarekin, manganesoarekin, ez dute arazorik izan, ez hornikuntzarekin, ezta prezioarekin ere: "Hegoafrikatik ekartzen dugu, eta Ukrainakoak ez digu eragiten, beraz. Baina erabiltzen dugu antrazita ere, ikatz mota bat, eta hori Errusia aldetik etortzen zen, eta, hango merkatuak itxi egin direnez, hornitzaile alternatiboak izan badiogun arren, prezioek gora egin dute. Hau ere aurretik dator: energiaren krisiaren ondorioz, herrialde askotan atzerapauso bat eman zuten eta berriro hasi dira ikatza erabiltzen, gasa eta argindarra asko igo direlako".

Garraioarekin lotuta, erregaien prezioaren gorakada ere hasi da

Autlanen eragina izaten: "Portutik kamioirik ezin dugu ekarri, eta bestelako garraio bideekin ere hasi gara arazoak edukitzen, kamioilarien grebaren ondorioz. Manganeso stock nahikoa dugu, oraingo –pandemia tarteko, erreserbak handitzea erabaki genuelako, ezusteko egoerei aurre egin ahal izateko–, eta lantegitik materiala ateratzeko arazorik ez dugu izan orain arte, baina egoera luzatzen bada...".

Gainerakoan, inflazioak oro har du eragina lehiakortasunean: "Gu, adibidez, enpresa hitzarmena negoziatzen ari gara orain, eta inflazio horrekin soldata igoera handiagoa beharko litzateke, eta enpresa guztiak ari gara begira ze formula erabili, zaila delako soldatak kasu guztietan, edozein modutara, KPlaren arabera igoetzea, iazkoa %6,5 izan zela eta gora doala kontuan izanda".

**"SAIATZEN GARA JARRAITUAK EZ DIREN PROZESUAK ORDU GARESTIETAN GERATZEN"**



ZABALIK

IDOIA PEÑAKOBA ETXEBARRIA

## Metabertsoa: fikzio ala errealitate?

Metabertsoa, gero eta sarriago entzun arren, niretzat oraindik arrotza eta nahasia den hitz potoloa.

Bere esanahia hobeto ulertzeko asmoz, araketa txiki bat egin dut Wikipedia orojakilean, eta, nire harridurarako, ez da horren kontzeptu berria! 1992an argitaratutako *Snow Crash* eleberrian erabili zuen estreinakoz Neal Stephensonek *metabertso* kontzeptua: fikziozko mundu birtual gisa deskribatu zuen. Gaur egun, honela definitu izan da: *Ziberespazioko ingurune bat, mundu errealaaren metafora gisa jarduten duena, non gizakiek sozialki eta ekonomikoki elkarri eragiten dioten.*

Orain egun batzuk, aditu bati entzun nion *mundu birtuala errealitate bihurtzeko aukera* eman dezakeela metabertsoak.

### TEKNOLOGIAZ GAIN, GIZAKIAREN BIHOTZ ETA ZENTZUNEAN ERE ERAGITEN DUEN ZERBAIT BEHAR DUGU

Benetan? Gai izango al gara, bada, mundu baketsu bat birtualki irudikatu eta errealitate bihurtzeko?

XXI. mendean, errealitate birtualaz ari garen honetan, gizakiaren zentzugabekeriak ere

errealitate izaten jarraitzen du. Gerrak nonahi, suntsiketa eta hilketak, gosea... Orain, Ukraina-Erussia aferak egin du eztanda, baina badira askotan gogoratzen ez ditugun beste hainbat ere pil-pilean biktima errugabeak astintzen jarraitzen dutenak, oihartzun mediatiko askorik ez duten arren. Hainbat herrialdetako errefuxiatuen exodoak gorantz jarraitzen du, bizitza hobeago baten bila beraien herrialdeetatik ihesi. Horientzat mundu birtual bat eraikiko dugu, nonbait zoriotsu eta bakean bizitzeko aukera emango dien mundu birtuala? Goserik edota biolentziarik ezagutzen ez duen errealitate birtual bat? Metabertso horietako bat? Eta eraikitako mundu birtual hori errealitate *erreal*, ez soilik metaforiko, bihurtzeko gai izango ote gara? Horretarako, nire ustez, teknologiaz gain, gizakiaren bihotz eta zentzunean ere eragiten duen zerbaitek beharko dugu, berekoikeria, botere-nahia eta zentzugabekeria hau guztiau deuseztatuko duen zerbaite, alegia.

## MARRAZKIZ

### UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Egia zaharrak

#### ANDER IZAGIRRE

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Xurxo Ayan arkeologoari alarmak piztu zitzaizkion bere jaioterriko istorio honekin: Cereixa izeneko herrixkan (Lugo), San Lorentzoren egurrezko irudiak elizatik ihes egiten zuen noizbehinka eta gertuko muin baten tontortxoan agertzen zen. Zaharrek zioten *mouroen* kastroa zela hura, Galiziako jatorrizko biztanleena, kristautasuna iritsi zenetik lurpean bizi eta altxorak gordetzen zituztenak. Euskal Herriko jentilen eta Europako beste herri askoren kontu bera, alegia. Ayane eta bere kide arkeologoen muinoa induskatu

zutenean, Burdin Aroko etxolak aurkitu zituzten, Erdi Aroko 65 hilobi eta, san Lorentzoren irudia berragertu ohi den puntu zehatzean, mila urteko ermita baten arrastoak. [...]

Ayane prospekzio geofisikoa eta zaharren kantuak erabiltzen ditu, karbono 14a eta kondairak, zientzia eta mitoa, eta horri arkeologia komunitarioa deitzen dio. Hurrengo indusketa-kanpaina ez zuen ministerioak erabaki, ezta Xuntak, ezta unibertsitateak ere: herritarrek bileran adierazi zuten arkeologoen Os Conventos izeneko parajea ikertu beharko zutela, hamaika kondairaren eszenatokia, Sil ibaiaren arroilan mahastiak landatzeko terraza zaharretan.

Arkeologoen X. mendeko monasterio txiki bat aurkitu zuten, XII. mendean ardogintza-faktoria handi bihurtu zutena. Monje zistertarrek, Koroaren babesarekin, nekazariei lurra kendu, ardo produkzio zentralizatura lotu, ortodoxia katolikoa ezarri eta aginte feudalarren pean zapaldu zituzten mendez mende. Arkeologoen harrietan baieztatu dute zaharrek ahoz aho esan izan dutena, fraide boteretsu eta herritar xume kartzelatuak buruzko kantu tristeak, Ribeira Sacra izen faltsua daukan parke tematikoan inoiz kontatzen ez dutena.

Eskaparate turistikoak oso eraginkorrak baitira egia ezkutetzen.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantxabal.  
**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailletako arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza,  
Edurne Arenaza.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**  
Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Arebaleako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA**



## BERBAGAI

# "Hustu diren bi urtegiren prozesuak jaso ditugu"

**BEGO ZUBIA GALLASTEGI 'URAK ASKE' DOKUMENTALAREN ZUZENDARIA**

**Larraitz Zeberio Lekuona** ARRASATE Artikutzako eta Vezinseko urtegiak kentzeko egindako urratsak jasotzen ditu Bego Zubiak (Arrasate, 1965) zuzendutako *Urak aske* dokumentalak. Hilaren 10ean estreinatu zuten, Donostian, eta herriz herriko emanaldiak datoz orain. Tartean dira Arrasate, Bergara eta Oñati. **Estreinatu berri duzue lana. Zer-nolako harrera izan du?** Aretoa bete egin zen Donostian, eta uste dut jendea gustura egon zela; beraz, pozik gu ere. **Bi urtegiren desagertzea kontatzen duzue dokumentalean, baina prozesuak desberdinak izan dira.**

Bi urtegiak helburu berberarekin hustu dira: natura berreskuratzeko, hain zuzen. Artikutza Goizuetan dago eta Vezins Normandian. Artikutza ez zen ordurako donostiarrei ura emateko erabiltzen. Mantentze-lanak behar zituen eta oso garestiak ziren. Normandiako urtegia,



Bego Zubia arrasatearra. ELHUYAR

berri, hidroelektriko bat zen. Jarduera horren eraginez, izokinik gabe gelditu zen ibaia, eta Europako zuzentarau batengatik kendu dute. Artikutzan ez bezala, Normandiako urtegiaren

desagertzeak bizilagunen protesta handiak eragin zituen. Urtegi oso handia zen eta haren inguruan turismo azpiegitura ugari zeuden. Horiek guztiak galtzeak eragingo zituen galera

ekonomikoak ikusten zituzten askok, eta epaitegietara ere jo zuten. Prozesu gatazkatsua izan da Normandiakoa.

**Zuzendari eta gidolari lanak egin dituzu dokumental honetan. Nola planteatu duzu proiektua?**

Elhuyarreko kidea naiz eta Elhuyarren enkarguz egin dut dokumentala. Aurretik, *Sagardoa bidegile* eginda neukan baita ere zinemetarako, eta eskarmentu apur bat baneukan.

Honetarako, Artikutzan egiten diren lanen jarraipena egiten hasi ginen, baina konturatu ginen komeni zela testuinguru bat jartzea. Normandiako lanak batera gertatu ziren, eta aukera oso ona izan genuen bilatzen genuen testuinguru hori jartzeko.

**Hainbat protagonista ditu *Urak aske* dokumentalak. Nortzuk dira nagusiak?**

Euskal Herriko Unibertsitateko zientzialariak, Donostiako Udaleko biodibertsitate alorreko arduraduna, Normandiako ahotsak... Eta gero, badago beste protagonista bat hitz egiten ez duena baina dokumentalean asko agertzen dena, eta da muturluze piriniarra.

**Zein da muturluze piriniarra?**

Mundu mailan desagertzeko arrisku handian dagoen eta

lan hauen guztien ondorioz bere habitata hobetuta ikusi duen sagu baten tamainako ugaztun txiki bat da muturluzea piriniarra. Biodibertsitateari buruz hitz egiten dugunean, denok irudikatzen ditugu animalia handiak eta oso ederrak direnak, baina biodibertsitatea oso zabala da eta muturluzea ere horren parte da. Artikutzan populazio dezente bat dago. Euskal Herrian daukagun altxor bat da, eta zaintzeko aukera eta ardura ditugu.

**Donostian egin zuten ikus-entzunezkoaren estreinaldia.**

**Orain datoz herriz herri egitekoak dituzuen aurkezpenak.**

**Arrasatekoa martxoaren 30ean izango da, ezta?**

Hori da. Goienagusikoek gonbidatuta izango gara Arrasaten hil amaieran. Guretzako aukera ona da, noski. Badakit Bergaran eta Oñatin ere emango dutela... Beraz, eskualdean herri batean baino gehiagotan izango da ikusteko aukera, eta gu oso pozik, noski. Behin egin eta gero, zabaltzea da interesgarriena.

**Bertaratuko zara emanaldi hauekoren batera?**

Bai, Arrasateko emanaldirako gonbidapena jaso genuen, eta ni neu izango naiz bertan.

## ITURRI ONETIK

## Arizmendiarieta: musikala agertoki nagusietan

Jose Maria Arizmendiarieta Mondragoeko kooperatiba mugimenduaren sustatzaile izan zenaren bizitza oinarri duen musikala prestatzen ari da Arizmendiarietaren Lagunak elkarteak. Gontzal Mendibil musikari zeanuriztarrak sortu du musika eta hainbat musikari eta kantari-antzezle izango dira agertokian. Irailaren 17an eta 18an estreinatuko dute, Bilbon, eta euskal hiriburuetako agertoki nagusietan ere antzetzuko dute; baita Arrasateko Amaia antzokian ere, urrian.

## ALBISTE IZAN ZEN



GOIENA

2013-03-21

## Tipi-tapa, tipi-tapa, Korrika... badator!

Apirilaren 1ean helduko da Korrika aurten -22. edizioa- Debagoienara. Goiz-eguerdi partean zeharkatuko du bailara, Bergaratik Leintz Gatzagaraino. Bezperan hasiko da Korrika, Amurrion. 2013koa, 18.a, goizaldean heldu zen eskualdera, eta ilunpetan izanda ere, jendetsua izan zen korrikaldia. Azpimarratzekoa: Fagor Ederlanek 50 urte betetzen zituela-eta, Eskoriatzan lantegi barrutik igaro zen (argazkian).

## HAU BE BADOGU!

## Euskararen kaleko erabilera berbagai

Uemak euskararen arnaguneetan eginiko lanaren emaitzak:

**@Gasteiztar1:** Euskal Herriko arnaguneak, arnasestuka: Otxandio, Igorre, Gatika, Mendaro, Ibarra, Bera edota Bergaran, biztanleen erdia edo gehiago ez da euskaraz mintzatzen.

**@unaimy:** Ba niretzat datuak ez dira hain txarrak. Gainera herri handietan gogoten ari omen da. Tolosan gora egitea kristorena da.

**@anderagizu:** Ba nik beti euskaraz, euskaraz ez dakienari eta ulertzen ez duenari gazteleraz. Baina bai, egoera kezkarria.

# Hiru hilabete gehiago musika etxea bukatzeko

Juan Arzamendi Musika Etxea bukatzeko obra hiru hilabete luzatzea onartu zuen udalbatzak joan den egunean egindako martxoko ezohiko bilkuran; dena den, oposizioak kontra bozkatu zuen, Udal Gobernuari "gestio txarra" leporatuta

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Musika etxea birgaitzeko exekuzio obraren epea luzatzeko eskatu zuen obraren bigarren zatia egiten ari den Construcciones Moyua enpresak, eta hainbat arrazoi eman zituen horretarako, Victoriano Fuentes zinegotzi sozialistak osoko bilkuran azaldu zuenez. "Eraikitze materialekin arazoak egon dira, material falta egon da; bestetik, omikron aldaeraren intzidentzia-tasa altuak atzerapenak eragin ditu; horrez gain, kalitate kontrolean ere arazoak izan dira eta kutsatutako lur batzuk ere bazeuden", azaldu zuen. "Beraz, obra zuzendaritzak egindako txostenak dio luzapena justifikatuta dagoela eta udal teknikariek onartu egin dute epe hori luzatzea". Hala, ekainaren 6rako jarri zuten amaiera data.

Oposizioak, ordea, gezurretan aritzea leporatu zion Gobernuari, argudiatuz Krea S. Coop. enpresaren txostenak ez duela "inondik inora justifikatzen" atzerapen hori. "Are gehiago, sei ondorio ditu txostenak eta puntu bakar batean ere ez ditu arrazoiak baieztatzen", nabarmendu zuen EH Bilduko zinegotzi Kepa Urteagak.

Podemos Arrasateko Eva Abuinek gaineratu zuen atzerapen egun bakoitzeko 3.000 euro inguruko isuna ordaindu beharko duela enpresak. "Gobernu honek malgutasuna dauka enpresekin, eta herritarrekin ez. Atzerapenak barkatu egiten dizkie enpresei, eta herritarrei ez".

Maria Ubarretxena alkateak, era berean, azpimarratu zuen garrantzitsuena dela musika etxea, "lehenago edo geroago", bukatuko dutela eta ez duela ulertzen oposizioak aurka bozkatzeko, bidean "trabak" jartzea. "Ziur gaude Juan Arzamendi Musika Etxea errealitate bat izango dela eta bailarako erreferente bat izango dela".



Ekainaren 6rako ezarri dute Juan Arzamendi Musika Etxea bukatzeko epea. E.A.

**Eskumena eskuordetzea ere bai** Osoko bilkuraren eskumenaren zati bat Tokiko Gobernu Batzarriari eskuordetzea ere onartu zuen udalbatzak, baina hor ere aurka azaldu zen oposizioa. "Hizta eman zenuten komisio in-

formatibo bat egongo zela oposizioari informatzeko, eta ez da bilera bat bera ere egin", zioen Maider Morras EH Bilduren bozeramaileak. Fuentesek erantzun zion batzordeetan eman dutela informazio guztia.

## Udaltzaingoaren araudia, onartuta

Osoko bilkuran onartutako beste puntuetako bat Udaltzaingoaren araudia izan zen. Udal Gobernuaren aldeko botoekin egin zuen aurrera; izan ere, oposizioa abstenitu egin zen. "Aukera paregabea galdu da Udaltzaingoaren eredu lantzeko. Guk eta sindikatuek proposamenak egin ditugu eta onartu egin dira. Bat, esaterako, herritarrei lehen hitza euskaraz ematea. Beraz, eskerrak eman beharrean gaude, baina eredu lantzeko aukera galdu dugu", nabarmendu zuen Morrasek.

Horrez gain, bake epailearen ordezkotza berria izendatzea ere onartu zuen udalbatzak; izan ere, Aitor Isasa Aranburuzabalak uko egin dio kargu horri eta haren lekua Julen Belategi Bragadok beteko du. Halaber, Josu Zugasti Juaristi da bake epailea, otsaileko osoko bilkuran hala onartu ostean.

Podemos Arrasate udal taldeak, bestalde, *TAOren ordenantza aldatzeko prozesu parte-hartzaile ireki bat egiteko mozioa* aurkeztu zuen. "Astehenean, batzordean, esan ziguten astebete geneukala proposamenak egiteko, eta 48 geroago prentsan azaldu ziren aldaketak iragartzen. Zein da EAJren parte-hartze eredu? Selektiboa?", zioen Abuinek. Gobernuak erantzun zion TAO arautzen duen ordenantza prozesu parte-hartzaile 2020ko urtarrilean jarri zela martxan, alderdi guztien adostasunarekin.

## San Balerioko estela Gipuzkoara ekartzeko lanean ari da Aldundia

"Badirudi gestioak bide onetik doazela eta pieza ahalik eta lasterren berreskuratu daitekeela", dio diputatuak

**E.A. ARRASATE**

Urtarril hasieran, Gipuzkoako Batzar Nagusietako PPren bozeramaile Juan Carlos Canok eskaera egin zion Gipuzkoako Foru Aldundiari, Meatzereko San Balerio ermitari dagokion botozko estela edo hilarri erromatarra Arrasatera ekar dezaten exijitzeko. Aldundiak zera erantzun dio popularren eskaerari: "Badirudi kudeaketak bide onetik doazela, eta pieza ahalik eta lasterren berreskuratu daitekeela".

Harkaitz Millan Kultura Departamentuko foru diputatuarenak dira berba horiek. Haren esanetan, hainbat saiakera egin ostean, duela hilabete batzuk, Irungo Oiaso museoko ardura-dunek "egokitzat" jo zuten erakusketa iraunkor bat zabaltzea, Gipuzkoako bilduma epigrafikoa bilduz erreplikari bidez.

**Ez dute zehaztu nora**

Ekimen hori Foru Aldundian ere kontsultatu zela adierazi du, eta, hori dela-eta, Millanen esanetan, berriz ere kudeaketa lanak hasi zituzten Segobriga eta Cuencako museoekin. "Baina, oraingo honetan, Cuencako museoko zuzendariak, Concepcion Rodriguez Ruzak, formalki eskatu zion Arkeologia Museo Nazionalari egiteko Segobrigan gordailututako Arrasateko Dialcoren inskripzioa lekualdatzeko izapidea. Jakinarazi digutenez, Arkeologia Museo Nazionalak aldeko erantzuna eman zuen otsailaren 14an", nabarmendu du Kultura diputatuak. Edozelan ere, ez dute zehaztu estela nora eramango luketen, Arrasatera edota museoren batera.

Arrasate Zientzia Elkartek ere askotan exijitu izan du hilarria Arrasatera itzultzea.

## Airearen kalitatea "oso ona" izan zen 2021ean Arrasaten

Eusko Jaurlaritzak Jose Maria Arizmendiari plazan duen Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Estazioan bildutako datuen arabera, Arrasaten 0,73 miligramo karbono dioxido (CO2) zenbaitu zituzten metro kubiko bakoitzeko 2021ean. "Horrela, zifra hori parametro positiboan kokatzen da". Izan ere, parametroi erreparatu, 0 eta 5 mili-

gramo artean badago, kalitatea "oso ona" da; 5 eta 7 artean badago, "ona"; 7 eta 10 artean egonez gero, "hobetzeko beharra" du; eta 10 eta 15 artean, eta 15etik gora, "txarra eta oso txarra", hurrenez hurren.

Nitrogeno dioxidoaren (NO2) datuak ere "guztiz positiboak" izan ziren. Urte osoan, 14,42µg (mikrograma)/m3-ko batez bestekoa gehitu zen, 87µg/m3-ko gehieneko balioarekin.

Azken urteetan, nitrogeno dioxidoak soilik egin du gora.

## Pirinioetako Bidea ekimena aurkeztuko dute Kulturaten

"Konexioa eta lankidetzaren berreskuratzeko" alea jarri gura duen Pirinioetako Bidea ekimena aurkeztu ari da Gure Esku, eta Arrasaten ere hala egingo dute. Amalur Alvarez bozeramaileak arduratuko da horretaz, martxoaren 22an, martitzena, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan. Uztailaren 2an 300 bat gailur argiztatu gura dituzte.

## OHARRAK

**Besaidek, eski irteera** Panticosara joango dira, bihar 05:00etan Zalduspeko geltokiatik irtenda.

**Azokan, karapaixoa** Bertako produktuen azoka egingo dute bihar Seber Altuben, 09:00etatik 14:00etara.

**1981eko kintada** Maiatzaren 21ean da. Irekita dute izen-ematea.

# TAO gura duten jakiteko, galdeketa Erguin auzoan

Erguingo auzo-alkatetzak adierazi duenez, TAO sistema ezartzeko eskaera asko jaso dituzte auzotarrengandik, eta galdeketa egitea erabaki dute, "bizilagunak sistema ezartzearen alde edo kontra dauden ikusteko"; martxoaren 31ra arte bozkatu daiteke

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

"TAO sistema martxan jartzearekin batera, konturatu ginen Erguingo aparkalekuak erabat bete zirela eta arazo handiak sortu zituela auzoan. Gainera, unibertsitateko ikasle askok aste osoan edukitzen dute apartakuta euren autoa, unibertsitate inguruan TAO dagoelako. Beraz, geroz eta zailagoa da Erguinen aparkatzea, eta, horren ondorioz, auzotar asko etorri zaizkigu kezaka. Udalarekin harremanetan jarri ginen, arazo honi konponbidea eman guran, eta, bide horretan, galdeketa hau egitea erabaki dugu", azaldu du Andoni Altzelaik, Erguingo auzo-alkateak.

Galdeketa auzo osoan egingo duten arren, kalez kale ateratako emaitzak bereizi egingo dituzte. "Hau da, kale batean baiezkua atera daiteke eta beste batean, ezezkoa. Guk kale bakoitzaren erabakia hartuko dugu kontuan eta horren arabera egingo dugu eskaera Udalean", dio Altzelaik. Gehiengo simplea hartuko dute kontuan eta boto bateko alde nahikoa izango da baiezkua edo ezezkoa izateko.

Kale hauetako bizilagunek hartuko dute parte: Itxaropena, Uriburu, Erguin, Elizalde, Udalpe, Anboto, Jauregibarria, Ka-



Andoni Altzelaik eta Consuelo Zugasti, bozkatzen, Uribarriko Erretiratuen Etxean. E.A.

lealdea, Larragain, Etxeazpia, Olanar, Etxoste eta Maitena.

**Etxebizitza bakoitzeko, boto bat** Arrasateko auzorik handiena da Erguin. 2.200 etxebizitza inguru daude, eta etxebizitza bakoitzak boto bat edukiko du, "nahiz eta jende gehiago bizi". Galdetegia etxez etxe banatu dute dagoeneko, eta honako datu hauek eman beharko dira botoa emateko: izen-abizenak, nortasun agiri zenbakia, kalearen izena, ataria, solairua eta letra eta TAO Erguinen jartzearen alde edo kontra.

Uribarriko Erretiratuen Etxean jarri duten postontzian entregatu beharko da papera, martxoaren 31 baino lehen. Halaber, kontaketa egiteko hainbat auzotarren laguntza beharko dutela aurreratu dute.

Dagoeneko hasi dira botoa ematen, eta, auzo-alkateak azpimarratu duenez, "gehien-gehienak" TAO sistema ezartzearen alde daude. "Edozelan ere, badaude sistema auzoan ezartzearen aurka daudenak ere". Behin emaitzak dituztenean, Udalean aurkeztuko dituzte.



NIRE USTEZ

JOHANNA SANCHEZ

## Otsaila eta martxoa

A ze urteko bi hilabete... Duela egun batzuk, Antonio Lara Ramos Espainiako hegoaldeko sozialista on batek idatzitako *Askatu*, *portal número 6* liburuaren aurkezpena genuen. Isaias Carrasco gure lagunaren istorioa kontatzen duen liburua da, eta, aurkezpenaren biharamunean, omenaldia egin zitzaion Isaiasi.

A ze urteko bi hilabete... Enrique Casas, 1984ko otsaila, Fernando Mugica, 1996ko otsaila, Fernando Buesa, 2000ko otsaila, Froilan Elespe, 2001eko martxoa, Juan Priede, 2002ko martxoa, Joseba Pagazaurtundua, 2003ko otsaila, eta Isaias Carrasco, 2008ko martxoa.

A ze urteko bi hilabete... Urtero, data hauetan, sozialista guztiok bizi behar ditugu gauak eta egunak nahasten dizkiguten egun makabro horiek, nekeak eta tristeak, oroitzapenak eta etsipenak, minagatik betierekoak egiten diren egun horiek.

A ze urteko bi hilabete... Sozialistok ez dugu amorerik ematen, eta basakeria gainditu eta demokrazia irabazi dugu etorkizunerako. Lege eta arau demokratikoak errespetatzea funtsezkoa da bizikidetzarako eta gizarte justu eta zoriontsua garatzeko.

## Ibai-arterek modelook behar ditu apirilaren 2ko moda desfilerako

Azaro bukaeran egitekoak ziren moda desfilea bertan behera utzi behar izan zuten, eguraldi txarrragatik. Dena den, desfile horrek dagoeneko badu data berria: apirilaren 2an egingo dute, Herriko Plazan, eta, horretarako, sei gizon, sei emakume eta sei ume behar dituzte. Beraz, interesa dutenek idatz dezatela 688 73 41 49 zenbakira.

"Desfile batean parte hartzean zer sentitzen den jakiteko irrika izan baduzu inoiz, hauxe da zure aukera. Nork daki... agian, pasarella zuretzat egina dago. Nolanahi ere, arratsalde desberdin eta dibertigarria pasatuko duzula ziurtatzen dizugu. Anima zaitetz, zure laguntza behar dugu!".

## Irati tabernan, euskal hezkuntzagintzaren erronkak aztergai

*Karkabatik herria* solasaldi zikloaren bigarren saioa egingo dute martxoaren 23an, eguaztana, 19:00etan, eta egungo eztabaida sozialean "pil-pilean" dagoen hezkuntzaren gaiari helduko diote. Horretarako, Nora Salbotx Alegria izango dute bidelagun, Amairuko eskolako zuzendaria eta, besteak beste, Hik Hasiko, Herri Hezitzaileen sareko, Eusko Ikaskuntzako eta Plaza Hutsako kidea.

Euskal hezkuntzaren gaia "pasioz" bizi du Salbotxek, eta, 2021. urte amaieran, *Askatu edo moztu*. *Euskal Hezkuntzagintzaren erronka zahar eta berriak* liburua idatzi zuen. Irakurgai hori jada eskuragarri dago Iratin.



BEILATOKI BERRIA ARRASATEN



943 79 22 19

Guztion zerbitzura 24 orduz

Deitu eta informa zaitetz!!

Araba etorbidea 3, 20500 ARRASATE. [www.funerariaarrasate.com](http://www.funerariaarrasate.com)



Osiñako bidegurutzeta biribilgune bihurtzeko lanak; obrako langilea dagoen izkinatik joango litzateke oinezkoen bidea. H.L.

# Osiñan lehentasuna oinezkoei eman nahian

Arrasateko EH Bilduk Aldundiari eskatu dio Osiñako biribilgune lanetan oinezkoen bidea "modu seguruan, piboteak ipiniz", bereizteko errepidetik. Aldundiak erantzun du oinezkoek izango dutela euren bidea, baina "ezinezkoa" dela piboteak ipintzea

**Hasier Larrea** ARRASATE

Osiñalde baserriko bizilagunen eta Musakolako auzo-alkatetzaren eskaria aintzat hartuta, Arrasateko EH Bilduk mozioa aurkeztu zuen joan den asteko osoko bilkuran, Osiñako biribilgune lanetan "oinezkoendako pasabide segurua bermatu" guran. Modu horretan, biribilgune obrak finantzatu dituen Gipuzkoako Foru Aldundiari dei egin nahi izan zion, "lanak amaitu aurretik Arrasateko Mugikortasun Plana kontuan hartzeko". Udal Gobernuak, baina, atzera botatu zuen mozioa, "Aldundiak oinezkoendako bide bat egiteko asmoa" duela argudiatuta.

**Bi aukera mahai gainean**

Asmo hori, zehazki, biribilgunearen alboko kaxoi edo tune-laren azpitik metro bateko pasabidea egitean datza, errepideari 70 zentimetro kenduta. Kepa Urteaga EH Bilduko zinegotziaren esanetan, baina, oi-

nezkoek "arriskua" izango luke tunela zeharkatzeko orduan, ibilgailuetatik "oso gertu eta babesik gabe" pasako lirakekelakoan. Hori saihesteko, "tunelaren bazterreko ubidea estaliz tokia irabaztea eta errepidea eta oinezkoen bidea euskarri fisikoekin bereiztea" proposatu du EH Bilduk.

Aldundiaren hitzetan, baina, "ezinezkoa" da hori egitea, "tunellean espazio gutxi" dagoela iritzita. Bestalde, gehitu dute "arduragabekeria" dela "aisialdiko ibilbide baten trazatua bertatik mantentzea eta sustatzea, are gehiago GI-627aren eta AP-1 aren beste aldean kokatzen diren basoetara joateko beste aukera batzuk existitzen direnean".

**ASUELARA DOAZENAK ETA OSIÑALDEKO BASERRITARRAK AINTZAT HARTZEA ESKATZEN DUTE**

**Bide publikoa da**

Aldundiak "bazterbide" bezala definitu du oinezkoendako egiteko asmoa duen pasabidea, baina Urteagak gogoratu du tarte hori Arrasateko bide publiko bezala katalogatuta dagoela: "20055055EP izena daraman mendi bidearen hasiera da; zehazki, Zigarrolan, Osiña baserrian hasten da, eta Asuela ingururaino igotzen da. Hortik Musakolako balkoira joan daiteke, asteburuetan bisitari ugari jasotzen dituen txokora".

Mendi buelta hori egiten dutenei begira ez ezik, Osiñalde baserriko bizilagunei begira ere egin du proposamena EH Bilduk: "Baserri hau saihebidetaren eta autobidearen artean dago, herri-irteeratik isolatuta. Baserri-irteerak autoz bakarrik jaitsi daitezke modu seguruan, eta nahiko genuke eurak oinez jaisteko bide duin bat eraikitzea".

Biribilgunea izkina batetik zeharkatzeko zebra-bidea egitea ere eskatu du EH Bilduk.

## "Ordena bat ekarriko luke 'Baskonia' hitza lehenestek"

**IÑAKI AZKOAGA** IDAZLEA

Euskal lurraldea izendatzeko metodologia proposatu du

**H.L. ARRASATE**

*Baskonia, una solución al problema del nombre del país de los baskos* saiakera-liburua aurkeztu du Kulturaten.

**Modu askotan deitzen zaie euskal lurraldeei. Ze ondorio ekarri ditu horrek?**


Identifikazio aldetik, ondorio latzak. Adibide bat aipatzearren, Oihana Azkorbebeitia korrikalaria Italiako munduko txapelketan 10. postuan sailkatu zela ikusi nuen, eta bere elastikoak *Euskal Herria, Euskadi* eta *Basque Country* zeukan idatzita. Pentsatu nuen: nork jakingo du Italian nongoa den atleta hau?

**2017an ere idatzi zenuen antzeko saiakera bat: *Vasco, ¿cómo se llama tu país?***

Eta hau ekarpen helduagoa da, hura argitaratu ostean ateratako ondorioetatik abiatzen dena. Metodologia soziologiko bat aplikatzeko beharra ikusi nuen; hala, sei izeni indargune eta ahulguneak bereizi nizkien, eta faktoreak aplikatu, bakoitza bere ponderazioa eta balioekin.

***Baskonia* izena da zuretzat aproposena. Zergatik?**

Euskal Herriari deitzeko glotonimorik zaharrena da, IV. men-



Iñaki Azkoaga. ENEKO AZURMENDI

dekoa, eta gaur arte erabili izan da. Gure zazpi probintziak Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Komunitatean eta Iparraldeko Euskal Hirigune Elkargoan daude administratiboki zatituta. Planteatzen dudana da esparru horiek izen orokorrarekin komunikatuta egotea; hau da, ordena bat ezartzea. Baskonia izango litzateke izen orokorra, eta gero, egon daitezke Baskonia mendebaldea, iparraldea... Horrela, denok jakingo genuke Baskonia handiago bat dagoela.

## Korrikako arropa salgai egongo da zapatuko azokan

Bihar goizean, hileko hirugarren zapatua dela aprobetxatuz, arropa salmenta postua jarriko dute Korrikako antolatzaileek Seber Altube plazan. Hala, arropa, txapak eta petoak eskuratzeko eta Korrika laguntzaile izateko baliatu ahalko dute Korrikaren txokora bisita arrasatearrek.

Pare bat aste gelditzen dira ekitaldi masiboari hasiera emateko, baina horren aurretik jarduera ugari jarriko dituzte martxan AEK-koek. Korrika Kulturaren baitan sartu dute datorren martitzeneko Laburbira zinema-zikloko film laburren emanaldia (Ikus 41. orria). Mendi-irteera eta hitzaldiak egiteko asmoa ere badute.

## San Andresko ohiko jaiak bueltan datoz, hiru urteren ostean

Aurten bai, aurten ospatuko dituzte San Andres auzoko jaiak, apirilaren 29an, 30ean eta maiatzaren lehenean. San Andresko jai batzordea egitaraua antolatzen ari da egunotan, eta ekitaldi kulturalak finantzatzeko txartel eta jertse-salmenta kanpaina abiatu du. Helduen jertseak 20 eurotan salduko dituzte, S neurritik XXXL neurriraino. 3 eta 14 urte bitarteko umeenak, berriz, 15 eurotan daude salgai. Arropa horiek eskuratzeko, izena eta neurria jakinarazi behar dira, Equis tabernan edota 617 72 47 96 telefonora *whatsapp*-a idatzita. Jai batzordetik adierazi dute martxoaren 27an amaituko dela jertseak eskatzeko epea.

# Zilarrezko bi domina Saioako beteranoentzat

Carlos Sanchez eta Esther Gomez karatekak bigarren postuaren jabe egin ziren, nor bere kategorian, joan den asteburuan Ortuellan jokaturako Euskadiko txapelketan. Apirillean hitzordu ugari izango dituzte, Astilleron, Alcorconen eta Torrelavegan



Esther Gomez eta Carlos Sanchez, Ortuellako podiumean. SAIOA KARATE

## Hasier Larrea ARRASATE

Carlos Sanchez Saioa karate klubeko irakasle beteranoak bigarren aldiz parte hartu du 35 eta 49 urte arteko kategorian Euskadiko txapelketan. Esther Gomezentzat, berriz, lehen aldiz izan da, Gipuzkoako txapelketan debuta egin eta emaitza ona eskuratuta sailkatu baitzen Euskadikoan; bere kasuan, 40 eta 49 urte artekoen mailan. Biek lan ona burutzea lortu zuten, eta urrea eskuratzetik gertu egon ziren; azkenean, baina, zilarrarekin konformatu behar izan zuten.

Dena den, Sanchezek nabarmendu du "beteranoen artean gazteen artean baino giro lagunkoiagoa" nagusitzen dela, lehia-kortasuna ez delako "hain handia" izaten.

## Kyokushinkai estiloa

Karateak borroka-molde ugari biltzen ditu bere baitan, eta nagusiak *shito ryu* eta *shotokan* estiloak dira. Ez dira, ordea, Sanchez eta Gomez karatekek dominatzen dituzten adarrak: "Gu *kyokushinkai* estiloan trebatzen gara, kolpe gogorak eta posizio altuak gailentzen diren borroka estiloan; beste biak ikusgarriagoak dira, teknika gehiago lantzen dutelako", adierazi du Sanchezek.

Ortuellan borroka-molde guztietako karatekak batu ziren, baina badaude *kyokushinkai* adarrera mugatzen diren txapelketak; Torrelavegan egiten den adin guztietako Estiloen Kopa, esaterako. Ostegun Santuan, apirilaren 14an, izango dute hitzordu hori Saioako borrokalariak.

## Egutegi bete-betea

Txapelketa horren aurretik, baina, beste hiru torneotan parte hartuko dute: benjaminak eta Irati Izurrategi infantila Aretxabaletara joango dira domeka honetan Euskadiko txapelketako sailkapen-fasea jokatzera; apirilaren 2an Astilleron lehiatuko dira; eta 9an, berriz, Alcorconen jokatu dute torneo nazionala.

## 11 eta 12 urtekoei deia

Gaur egun, 40 kidek osatzen dute Saioa karate taldea. Kontzertino kaleko bigarren atarian entrenatzen dira, eta Sanchezek karatea probatu nahi dutenak bertara azaltzera gonbidatu ditu. Bereziki, aurten 11 eta 12 urte bete dituztenak: "Pandemiaren eraginez adin horretako gazte batzuk entrenatzera etortzeari utzi diote, eta hutsune hori bete nahiko genuke".

## Martxan da 55 urtetik gorakoek futboleko jokatzeko ekimena

Real Sociedad Fundazioak *Walking football* izeneko kirolari zabalkundea eman nahi dio, "bizimodu aktibo eta osasungarria sustatzeko". Arrasateko Udalak bat egin du proiektuarekin, eta Mojategin egingo dituzte saioak eguaztenero, hilaren 23an hasita, 11:00etatik 12:30era bitartean, Realeko entrenatzaile batek gidatuta. Egitasmoa

futboleko jokatzeko datza, baina aldaketa batzuekin: jokalariek oinez jokatu behar dute, korrika egin barik, kontaktua saihestuz eta baloia buruaren gainetik altxatu barik.

55 urtetik gorakoek eman dezakete izena, Musakolako kiroldegian, BAZen edo Eskoriatza, Aretxabaleta, Oñati eta Bergarako kiroldegietan. Zalantzak [fundazioa@fundazioa.realsociedad.eus](mailto:fundazioa@fundazioa.realsociedad.eus) helbidean, 943 46 28 33 telefonoan edo Musakolako kiroldegira deituz argitu daitezke.

Martxoak  
**18**  
ostirala

Martxoak  
**19**  
larunbata

EROSKI Hipermerkatu eta Supermerkatuetan

**ZURE EROSKETEK  
SARIA DUTE**

# 10\* €

## oparituko dizkizugu gasolinan

hemen truka ditzazun:

\*10 € itzuliko dizkizugu, 5 €-ko bi deskontu-barteletan, Euskadi eta Nafarroako EROSKI hipermerkatu eta supermerkatuetan egindako 50 €-tik gorako erosketan bat egiteagatik.

**Txartelak EROSKI gasolindegietan trukatu ahaliko dituzu** (horberak ordaintzeko erabilien izan ezik). 2022ko martxoaren 18tik apirilaren 19ra arte, baldin eta 25 € baino gehiago gastatzen badituzu depositua beletzean. Gehienez 2 txartel mola daitzeko limitu berean, baldin eta eskakizunen baldura beletzen bada.

Kontsultatu baldintzak zure denda edo EROSKI gasolindegian.

**EROSKI**

ARRASATE

Musakola ARRASATE

Tel.: 943 71 10 30

# "Abesti lasaiak ditugu, baina zuzeneko basatia"

**AITOR BEDIA 'JANS' ETA JON URIBESALGO 'URI' AÑUBE TALDEKO MUSIKARIAK**  
Bergarako, Arrasateko eta Ataungo kidez osatutako seikoteak lehen diskoa aurkeztuko du bihar gaztetxean, 22:00etan, Sabin bakarlariaren emanaldiaren ostean

**Hasier Larrea** ARRASATE

Udazkenean grabatutako abesti berriak jendaurrean erakusteko garaia iritsi zaio Añuberi. Momentuz, bihar gaztetxean izango dira, eta apirilaren 2an Bergarako kartzela zaharrean, The Clayton-ekin batera. Taldeko bi arrasatearrek gerturatu dituzte proiektuaren nondik norakoak. **Hiru herritakoak izanik, nola egin duzue bat?**

*Jans:* Beñat Gonzalez gitarra-jole bergararrak eta biok bazkaria egin genuen beste pare bat lagunekin, pandemiaren hasiera inguruan. Kartzela zaharrera joan ginen gauean, eta Julen Garmendia ezagutu nuen. Irlandar flauta jotzen hasi zen, asko gustatu zitzaidan eta esan nion Beñati taldea osatu behar genuela hirurok.

*Uri:* Geroxeago, gau batez, Depos-Gaz entsegu lokaletan batu ginen lagun talde bat. Bergarakoak ere bazeuden tartean, eta entsegu bat egitera gonbidatu ninduten. Beñat Lizarralde bergararra ere baxua jotzen hasi zen, baina bateria-jolerik ez geneukan. Orduan, Egoitz Goikoetxea ataundarraren berri izan genuen. Astero agertuko ez zela espero arren, gogo handiarekin hartu du proiektua. **Interneten bi kantu entzun ahal ditugu jadanik. Añubek badu berezitasunik.**

*Jans:* Hemengo eszenako taldeenak baino doinu melodikoagoak egin nahi izan ditugu. Adibidez, punteatzeak Julen Garmendia saxofonistak egiten ditu, gitarrak-joleek egin beharrean. Hori bai, beti saiatzen naiz azaltzen gure musika ez dela oso punka; bai, ordea, oholtza gainean era-kusten dugun jarrera.

*Uri:* Hasieran, estilo akustikoa geneukan, baina grabazio estudioan gitarra elektrikoek presentzia handiagoa hartu dute. Hala ere, diskoko tempo nahi-ko lasaia da. Kontzertuetan az-




Añubeko kideak; ezkerreko biak, Jon Uribesalgo eta Aitor Bedia. JON ANDER ALBERDI

## "HITZ GEHIENAK PERTSONALAK DIRA, ENTZULEAK BEREGANATZEKO MODUKOAK"

karrago jotzen ditugu; nolabait, jarraitzen dugun punk-rock eszenako taldeen antzera.

**Urtebete pasatxo daroazue seiok batera, eta jada argitaratu duzue lehen lan fisikoa. Ideiak garbi zentuztela dirudi.**



AÑUBE

- **Grabaketa estudioa**  
Sound of Sirens (Iruñea).
- **Salmenta postuak**  
DAT, Bergarako Arrano.

*Uri:* Ni taldean sartu orduko, *Jans*-ek, Beñatek eta Julenek landuta zeuzkaten sei kanturen oinarriak. Estudiora bederatzirekin joan ginen. Denok batera ezagutzera eman aurretik dezenteko lanketa zegoen egina. **Gaiak aukeratzean, ze irizpide erabili dituzue?**

*Jans:* Hitz gehienak nire bizipenetatik abiatzen dira. Batzuetan, desesperantzatik idatzi dut, gizarte hezitzaile bezala lan egin izan dudanean sentsazio hori gailendu zaidalako. Gai politikoak baino gehiago, pertsonalak dira; modu horretan, jendeak beregana ekar ditzake abestiak. *Uri:* Askotan gertatzen da momentu txar batetik pasatzerakoan sormena piztu egiten dela.

**Taldearen izena bera kuriosoa da.**  
*Jans:* Sarri abestu dut Ruperren *Zaindu maite duzun hori*, jakin gabe *añubia* hitzak zer esan nahi zuen; ja, ja. *Eguzkia egun osoan sartzen ez den zuloa* esan nahi du. Denborarekin onarpena hartu du izenak taldekideon artean. Bailarako hitza dugu, antzinakoa, eta gure artean ezezaguna. *Uri:* Ea hemendik aurrera jendeak *añube*-ren esanahiaz galdetzeari uzten digun; ja, ja.



Obrako pertsonaia guztiak, kantuan batera. GOIENA

## 'Tarara' istorio iluna, musikaz betetako antzezlan, domekan

Prostituta baten eta biolin-jole baten inguruan garatzen den obra Amaian egongo da ikusgai etzi, 19:30ean

**H.L. ARRASATE**

Alacanteko Josi Alvaradok idatzi eta sariak irabazi dituen *Tarara* antzezlan ekarriko du Hika Teatroak Arrasateko udal antzokira. 70eko hamarkadako Bilboko San Frantzisko auzoan kokatzen da istorioa, eta protagonistak Jasmin abeslari eta prostituta –Kepa Errasti– eta Rosa Teresa goi-mailako biolin-jolea –Jurdana Otxoa eta Tania Fornieles– dira.

Errastiren esanetan, obraren "bizkarrezurra" Rosa Teresa da: "Rosak bere txikitako pasarteak kontatzen ditu, zeinetan Jasmin

baden iragan horretako pertsonaia; Jasminek Rosaren drama ilunei kolorea eta bizitasuna ematen die".

Gogortasunez betetako eszenak goxatzeko musika-uneak egongo dira, eta, funtsean, iraganeko pasarteak barkatzeko gaitasunari buruz mintzo da antzezlan.

Agurtzane Intxaurregak zuzenduta, Rosaren amak –Eneritz Artetxe–, Lizst piano-jolearen figurak –Adrian Garcia de los Ojos edo Iñar Sastre, bietako bat– eta Cristobalek –Jose Cruz Gurrutxaga– osatzen dute ertz ugari ukitzen dituen drama.

## 3 eta 4 urtekoendako ipuin kontaketa gaur Kulturaten

Herenegun, Maider Alcelay arrasatearrak hartu zuen hitza Santa Marina auzoko bibliotekan, 5 urtetik gorako haurren irudimena pizteko helburuarekin. Beste horrenbeste egingo du gaur Kulturaten, arratsaldeko seietan hasita, Itziar Saenz de Ojer ipuin kontalariak. Ordu-bete inguru iraungo duen saio hori 3 eta 4 urteko neska-mutilei eskainiko die. Txikienei istorioak kontatzeaz gain, *Bazen behin* clown taldeko aktorea, pedagogoa, sexologo eta hezitzailea ere bada Saenz de Ojer.

Gaurko ekitaldiak ikusmin handia piztu du, *arrasate.eus* atariko erreserba guztiak agortu egin baitira.

## Giante taldeak post-hardcore doinuz bustiko du Kooltur

Gasteiztik etorriko da Giante laukotea hilaren 24ko Kooltur Ostegunera, euskaraz egindako kantu freskoak taularatzera. 2016an sortutako bandak *Hamaika* diskoa kaleratu zuen joan den udazkenean, 2018an ateratako *This is fine* lanari jarraipena emanez. Azkena Rock jaialdian eta Jimmy Jazz aretoan jotakoak dira, eta euren erreferententeen artean daude Fugazi, Lisabo, Inoren Ero Ni eta Dut taldeak. Hitz gordinak aukeratu dituzte kantuetarako, Anari artista azkoitiarra baitute inspirazio-iturri.

Koolturen martxoko egitarauaren laugarren kontzertua 22:00etan hasiko da, gaztetxean.

DEBAGOIENENKO



# OSASUN ZERBITZUAK



## DENTISTAK

### ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

### GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea

943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA

### BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

### AGUSTIN SAGASTA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3

943 79 44 22

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.

943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g

943 76 07 84

## PSIKOLOGOAK

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

### IÑAKI MADARIAGA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO

Pandemiaren kudeaketa, aurrekontuak, oposizioarekin duten harremana eta abar izan ditu hizpide Lierni Altuna alkateak Goiena telebistan.

**Aurrekontua onartu berri duzue. 2021arekin alderatuta, %47ko igoe-ra izan du. Zergatik?**

Pandemiaren ondorengo urtean aurreikuspenak oso baxuak ziren, eta aurrekontu neurtua egin genuen. Aurten, aldiz, aurreikuspenak handiagoak dira, nahiz eta ikusiko dugun zer gertatzen den gerra testuinguru honetan. Bi inbertsio handi aurreikusten ditugu eta horiek aurrekontua asko handitu dute.

**Zeintzuk dira inbertsio horiek?**

Kiroldegiko teilatua aldatzea da asmoa, eta baita kanpoko pilotalekuan teilatua jartzea ere. Azkeneko euriteek eta hai-zeteek erakutsi dute egoera txarrean dagoela teilatua. Bide batez, obra aprobetxatuko dugu teilatuan plakak jarri eta autokontsumoa eraikin publiko guztietara zabaltzeko. Espero dut lanak aurrera irtetea; izan ere, azkenaldian, prezioak goraka doaz eta beldurra dugu ea inor ez den aurkeztuko obren lehiaketara.

**Goiko taberna ingurua irisgarri egiteko lanak nola daude?**

Abenduan esleitu zen, eta orain, gauzatzea falta da. Espaloia eta bideen arteko mailak parekatu eta lehentasuna oinezkoiei ematea izango da helburua.

**EAJk aurrekontuen aurka bozkatu du. Nolako da bi alderdien arteko harremana?**

Harreman adeitsua da, baina nik uste dut gutxi etortzen direla eta errealitate osoa galtzen dutela. Izan ditugun kalteak... Eurek eskaerekin jarraitzen dute eta nik uste dut batzuek ez dutela zentzu handirik. Eskatzen dituzten gauza batzuk ez dagoz-kigu guri; izan gaitzen zintzoak eta bakoitzari berea eskatu.

**Erresidentzien kontua, adibidez, ez dagokizue zuei?**

Orain dela urte batzuk, Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez, Araba mailako gizarte zerbitzuen mapa bat egin zen, eta kuadrilla bakoitzean zenbat erresidentzia egon beharko lirakeen zehaztu zen. Mapa horren arabera, Aramaiori atea itxi zaizkio. Ratioak kontuan hartuta, gure kuadrillan badaude nahikoa erresidentzia; gehienak, pribatuak. Aldundiak au-

# "Aparkaleku faltarik ez dago; ondo aparkatu behar da"

**LIERNI ALTUNA UGARTE** ARAMAIOKO ALKATEA

Agintaldi amaieran, zortzi urte beteko ditu alkate karguan Lierni Altunak. Berrito ere alkategai ez dela izango aitortu du Eneko Azkaratek aurkeztzen duen 'Harira' saioan



Lierni Altuna, Goiena telebistako platoon. A.E.G.

kera zabalduz gero, bideragarritasun plana egiteko gertu gaude.

**Badago erresidentzia baten beharra?**

Bai; Otxandiok duen moduko erresidentzia txiki bat oso ondo egongo litzateke. Uste dut jendeak samurrago hartuko lukeela erresidentziarako bidea.

**Ur zikinen kolektorea. Ze egoeratan dago proiektua?**

2020-2021 urterako zegoen aurreikusita inbertsio hori. Foru Aldundiak azkenekoz esan zigun proiektua esleitu duela; uztailaz geroztik, zain gaude gaia zelan dagoen jakiteko. Espero dut proiektua jasotzen dutenean bilera batera deituko gaituztela. Egia esan, bidegorria egitea baino samurrago ikusten dut saneamendua egitea.

**Aparkaleku falta dagoela uste duzu?**

Nire ustez, aparkaleku faltarik ez dago, baina ondo aparkatu behar da. Arrasatera etortzen garenean ondo aparkatzen dugu, eta, oinez egin behar baditugu bost minutu, egiten ditugu; baina Aramaion, kiroldegian aparkatu eta okindegira oinez joatea asko kostatzen zaigu, antza. Egia

**"JENDEA ANIMATUKO NUKE KARGU PUBLIKOETATIK PASATZERA SISTEMA EZAGUTZEKO"**

da gai hau atzeratuta dugula, eta orain, irisgarritasun lanak hasten ditugunean heldu behar-ko diogu gaiari.

**Pintaketen harira, Udalak zelan jokatzen du?**

Azkenaldian, pintaketa asko izan ditugu. Batzuek horrela ulertzen dute adierazpen askatasuna; beste batzuek, ez. Gure zalantza nagusia da eraikin pribatuekin zer egin. Publikoetan argi dago zer egin behar dugun eta horretan gabiltza. Etxebizitza pribatuetan, aldiz, irizpide zehatz barik ez dugu nahi aurrekaririk jarri, eta ez gara gauza irizpideak jartzeko. Ikusten dugu inguruko herrietan, pintaketa konkretuetan izan ezik, horma pribatuetan udalak ez duela esku hartzen.

**Mediku zerbitzuarekin arazoak izan dituzue. Zein da egoera?**

Orain dugun medikuak baja jartzen badu edo leku aldaketa egiten badu, arazo asko izango ditugu. Urte askoan sistemak pribatizaziora jo du, eta orain, ondorioak pairatzen gabiltza. Gaur egun, lanaldi osoa dute Aramaion medikuak eta erizainak. Garai batean, pediatra genuen, eta hori berriro ere berreskuratzea ondo egongo litzateke. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiet medikuari eta erizainari; nahiz eta sistemak murrizketak egin, eurak ahalegindu dira aramaiorrei zerbitzu onena ematen. Badakit asko sufritu dutela.

**Abenduko euri jasek nolako kalteak utzi dute herrian?**

Egoera da ditugula 200.000 eurotik gorako kalteak; aurten diru gehiago jasoko dugunez Aldunditik eta Fofeletik, ordenatzen gabiltza zelan konpondu errepideena. Ametzuko errepidea, adibidez, ea aste honetan konpontzen dugun. Pisten kasuan, lehentasunak markatu eta pistak konpontzen hasiko gara. Foru Aldunditik ez dugu horretarako propio dirurik jasoko. Partida berezi bat dugu aurrekontuan, lehentasunen arabera banatzeko: 107.000 euro. Pistei emango diegu lehentasuna.

**Amaitzeko, legealdi hau bukatu ondoren, jarraitzeko asmorik baduzu?**

Ez; deskantsu beharra dut, eta, gainera, aldaketa ona izango da herriarendako. Jendea animatuko nuke kargu publikoetatik pasatzera, sistemak nola funtzionatzen duen ikusteko.



# Bertso-pilota topaketa egingo dute hilaren 27an


Apirilaren 1ean pasako da Korrika bailaratik, eta Aramaiok Gatzagan hartuko ditu bi kilometro. Horren bueltan, egitarau zabala antolatu dute datozen egunetarako: bertso-pilota topaketa, mahai jolasak, bertsoak, mendi irteera, arropen salmenta...

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO  
Egitarau "polita" antolatu dute Korrika Kulturalaren barruan. Bertsoak protagonismo berezia izango du; izan ere, martxoaren 27an, Gorbeialdeko bertso-pilota topaketa egingo dute Aramaioko frontoian, 10:00etatik 13:00etara bitartean. Alde bate-tik, Gorbeialdeko pilotari gazteak pilota astintzen ibiliko dira; eta, bestetik, Aramaioko bertso eskolakoek doinua eta soinua jarriko diete pilota partiduei.

"6 eta 16 urte bitarteko pilotariak izango dira: Aramaiokoak, Legutiokoak, Murgiakoak eta Urkabustaizkoak. Adinaren arabera egokituko dugu partiduko tanto sistema", azaldu du Pilota Federazioko koordinatzaile Aitor Luzuriagak. Gainera, Luzuriagak gogoratu du *Pilotalekuan euskaraz* kanpaina martxan duela Federazioak.

## Aramaioko bertsolariak

Aramaioko bertsolariek euren prestaketa saioekin jarraituko dute. Gaur, barikua, bertso saioa egingo dute: Ane Zuazubiskar, Peru Abarrategi, Aitor Ugarte eta Zigor Enbeita ibiliko dira bertsotan, 19:00etan, Sastiñan. Datorren barikuan, martxoaren 25ean, Paula Amilburu, Xabi Igoa, Asier Galarza *Muxi* eta



Abarrategi, Zuazubiskar, Ugarte eta Enbeita. GOIENA

## GAUR, SASTIÑAN, BERTSO SAIOA EGINGO DUTE ARAMAIOKO BERTSOLARIEK

Aitor Esteban bertsolarien txanda izango da.

Martxoaren 26an, zapatua, nerabeendako euskarazko mahai jolasak jarriko dituzte, 17:00etan, Sastiñan. Korrika apirilaren 1ean izango da.

## Arropen salmenta


Korrikako arropa eta materiala salgai jarriko dute gaur, barikua, Aramaion. 17:00etatik 19:30era bitartean egongo da salmenta postua: lehenengo, kultur etxe inguruan; eta ondoren, plazara mugituko dute postua.

## Murugainen, argazki herrikoia

Korrika Kulturalaren barruan, martxoaren 26an, Debagoieneko mendi irteera egingo dute Murugainera. Gainera, mendi tontorrean herri argazkia egingo dute, 11:30ean.

### Irteera ordutegia

Igotzeko bi irteera jarri dituzte: 08:45ean frontoian batuta igoko dira batzuk eta 10:15ean Untzillatik beste batzuk.



Mendizaleak Murugainerako bidean. GOIENA

## Algaramaioko dirua Aita Marira bideratuko dute

Umorezko aste bukaera izango dute oraingoan Aramaion: Algaramaio. Gaur hasiko dituzte ekintzak, gaztetxoei zuzendutako dantzaldiarekin. Kiroldegian izango da, 17:30ean, Ind-Jones musikariaren saioa.

Bihar, zapatua, helduei zuzendutako *Me too* antzezlan eskainiko dute kultura etxean. Ainhoa Aierbe eta Tessa Andonegi izan-

go dira protagonistak. Sarrera 5 euro izango da eta lortutako dirua Aita Mari proiektura bideratuko dute.

Domekan ere umoreari eutsiko diote, Trokolo teatro taldearen eskutik. *Txus & Txu* antzezlan egingo dute, familia osoari zuzendutakoa. Sarrera 2 euro izango da eta, zapatuko saioan egingo duten moduan, jasotako dirua Aita Mari proiektura bideratuko dute. Sarrerak aurrez erosi behar dira, online, *entra-dium.com* atarian.

## Ahoz Aho ekimeneko azken saioa eguaztenean

Ahozkotasanaren Nazioarteko Jaialdiko bi saio egin dituzte Aramaion; atzo, azkena, hain zuzen. Baina oraindik hirugarrena egitea falta da. Eguaztenean izango da, martxoaren 23an, 18:00etan. Ifigeneia Kakridoni ipuin kontalari greziarrak familia osoari zuzendutako ikuskizuna eskainiko du, gaztekeraz.

Lehenengo saioa martxoaren 6an izan zen. May Gorostiagak *Nire mundua* ikuskizuna egin zuen, eta Aramaioko publikoarekin konektatzea lortu zuen, eta, gainera, hurrengo saioak ikusteko gogoia piztu. Atzo, egue-na, Nicolas Buenaventurak helduei zuzendutako saioa egin zuen, gaztekeraz.

## Abiadura murrizteko seinaleak jarriko dituzte Azkoagan

Arabako Diputazioak oinezkoak babesteko seinaleak jarriko ditu, zutikakoak eta lurrean margotutakoak, Azkoaga auzoan abiadura murrizteko. Azkoagako auzotarrek sarritan eskatu izan dute Azkoaga eta Barajuen lotzen dituen errepidean -A4022- abiadura murrizteko badenak jartzea. Hala, badenik ez, baina seinaleak jarriko dituzte. Toki zehatz batzuetan, oinezkoak babesteko, abiadura 40ra murrizteko dioten seinaleak jarriko dituzte. Hurrengo asteetan egingo dituzte lanak.

Horren harira, Udalak eskatu du bai auzoetan eta baita kalean ere autoa zentzuz erabiltzea eta abiadura mugak errespetatzea.



ORIXOL MENDIZALE ELKARTEA

## Formigalen izan dira Orixolekin

Orixol Mendizale Elkarteak antolatuta, eskiatzen pasa dute asteburua irudiko aramaiorrek. Jacan hartu dute ostatu, eta Formigalera igo dira eskiatzera. Asteburu "ederra" pasa dutela azaldu dute. Gainera, hurrengo irteera ere zehaztu dute: apirilaren 2an, Pasaia-Donostia ibilbidea egin eta Hernanira joango dira Otsua-Enea sagardotegira.

# Badatoz urteurrena hauspotzeko ekintzak

UDaren 75 urteak ospatzeko antolatutako hainbat ekitaldi atzeratu beharrean izan dira, baina datozen asteetan ekingo diete horiei; tabernetan kirolarien solasaldiak izango dira, presidente ohiak omenduko dituzte eta jaiegunak antolatu

## Mirari Altube ARETXABALETA

UDaren 75. urteurrena behar bezala antolatzeko sortutako taldea buru-belarri dabil lanean azken hilabeteetan. Agurtzane Elkoro presidentek eta zuzendaritza batzordeko kide Dorleta Ezeizak eta Ainara Mugak osatzen dute taldea, eta horiekin batera daude Ibon Perez de La-beaga futbol jokalaria eta UDaren bueltan jardundako Adrian Merino, Angel Zubillaga, Jokin Antxia eta Ibai Zangitu.

Kurtzebarri mendiaren argiztapenarekin jarri zuten abian ospakizunez betetako urtea, irailean, eta osasun egoeraren ondorioz hainbat kontu atzeratu beharrean izan badira ere, martxoan berriro hartu dute martxa ekitaldiek. "Urtearen helburua da ospakizun bat izatea 75. urteurrena, jai bat, baina osasun egoera honek zaildu egin du. Poliki bada ere, bagoaz aurreikusitakoa betetzen", azaldu du Elkoro presidentek.

## Tomas Alzolari omenaldia

Martxoan, hain zuzen ere, UDako lehenengo futbol taldeko jokalaria izandako Tomas Alzola omendu dute. 1946-1947 denboraldian, Juventud Deportiva Aretxabaleta izenarekin eratu eta Iturripeko futbol zelaian jokatzen zuen talde hartako kide izan zen Alzola. Arrasaten bizi da 98 urteko futbolari ohia eta urrezko intsignia eta lore-sorta jaso zituen etxean, UDako hainbat ordezkariaren eskutik.

Apirilaren 3an, beste omenaldi ekitaldi bat izango da; presidente ohiari egingo diete aitorza, Ibarra: hamahiruri, hain zuzen ere.

## Maiatza, ekitaldiz beteta

Herriaren hauspoa leloa duen urteurrena aretxabaletarrek dagoeneko barneratu dutela uste du Elkorok: "Ikusi besterik ez dago Aratusteetan zenbat koadrilla mozorrotu ziren UDA gai hartuta. Adierazgarria da hori".

Dena den, gaineratu du hemendik aurrerako ekitaldiekin are eta gehiago ikusiko dela urteurrena kalean.

Tabernetako solasaldi-sortari emango diote hasiera martxoaren 31n. Hilean behin egingo dituzte, eta lehenengoa Dagdan izango da: Ainhize Barrainkua eta Markel Uriarte txirrindulariek euren bizipenen berri emango dute, Lekaixoka bertsolari eskolakoek egindako galderei erantzunez.

Apirilaren 30ean, osteran, Leixargarateko aterpetxearen 50. urteurrena ospatuko dute, Arrasateko Besaide mendizale taldearekin batera: "Erakusketa txiki bat egongo da, omenaldiak

## MAIATZEAN IZANGO DIRA LIGA GENUINEKO PARTIDUA ETA ARETO FUTBOLEKOEN JAI, BESTEAK BESTE



Tomas Alzola, seme-alabek, ilobek eta UDako ordezkariak inguratuta. MIRARI ALTUBE

ere bai, eta aterpetxea ezagutzeko ate irekiak".

Maiatza ere bete-betea etorriko da, eta aipatzekoan artean daude honako hauek: Liga Genuinen diharduten futbol taldeen partidua, hilaren 8an; areto futbol taldeak antolatutako jaiegun, 14an; eta orain dela 50 urte afizionatu mailako Espainiako txapeldun izandakoei omenaldia, 22an. Horiez gain, argazki erakusketa eta kirolarien arteko solasaldia ere izango dira.

Ekainaren 4an egingo den UDA Egunak borobildu egingo du urtea, eta orduan, kirolak, musikak eta herri bazkariak bat egingo dutela aurreratu dute.

Era berean, irailerako antolatuko duten mendi lasterketa

nabarmendu dute, aditzera emanaz geratzeko datorrela. Baita Andramari jaietako txirrindulari lasterketa ere, ekitaldi bereziren bat egingo delako.

## Plan estrategikoa, garatzear

Urteurrena kirol lorpen batekin borobildu gura duten galdetuta ez dela samurra izango dio presidenteak: "Iaz baino 25 kirolari gehiago ditugu, eta hori da guretzako lorpenik handiena". Era berean, aurreratu du Realarekin batera balioetan oinarritutako plan estrategikoa garatzen hasiko direla 2025era begira: "75 urte iraun dugu, baina beste horrenbeste bete behar ditugu". 70 bat kidek hartuko dute parte lanketa horretan.

## Energia komunitate bat sortzeko eskaera egin du EH Bilduk

Komentuan eta brigadako biltegian eguzki plakak jartzea proposatu dute, jasotako energia banatzeko

## M.A. ARETXABALETA

Trantsizio energetikoa aretxabaletar guztiak egin behar dela adierazi du EH Bilduk prentsa-ohar bidez, eta, horretarako, energia komunitate bat sortzea proposatu du; ez da lehenengo aldia hori proposatzen duena: "Aurtengo aurrekontuen negoziazioan emendakina aurkeztu genuen; Udal Gobernuak ez zuen onartu, haien apustua Ekiola zela argudiatuz".

Ildo horretatik, argitu gura izan dute Ekiolaren aurka ez daudela: "Izan ere, energia ko-

munitateetan zein Ekiola moduko proiektuetan herritarrak elkartzen dira euren argindarra sortzeko". Baina energia komunitateak hori baino proiektu gehiago sortzeko pentsatuta daudela eman dute aditzera, "aurrezpena bultzatzeko", esaterako. Era berean, "garrantzitsua den ezberdintasun bat" nabarmendu gura izan dute: "Ekiola eta antzekoetan parte hartzeko zailtasunak izango lituzkete bonu soziala duten familiek. Zergatik utzi familia horiek guztiak energia trantsiziotik kanpo?"

## Hiru proposamen

Hala, hiru proposamen zehatz egin dituzte: batetik, energia komunitate bat sortzeko aurretik egindako proposamena berriro aztertzea; bestetik, komentuko elizaren eta udal brigadaren biltegiaren teilatuetan eguzki plakak jartzea, "behar energetikoak" dituzten familien artean energia banatzeko; eta, azkenik, erakunde publikoak ailegatzeko ez diren familiengana iristeko, eragile sozialen bitartez eta Ongizateko Sailarekin elkar-lanean beste aukera batzuk lantzea.

Lehenengo fasean 30 bat familiarengana iritsi gura dute: "Urtarrilean Aldundiak banatutako diru gehigarriarekin finantzatzea proposatzen da". Guztira 50.000 euro arteko inbertsioa izango litzatekeela gaineratu dute.



NIRE USTEZ

OIER ZUMARRAGA ARANBURU

## Planto

Bizkaiko autoeskolak, Artiach enpresa, Osakidetza lehen arreta, Bizkaibus edota garraiolariak, besteak beste. Zerrenda luze horrek, beste behin, agerian uzten du langileriak lan baldintzekin duen desadostasuna. Prekariatateak gizarte honetako gaitz nagusia izaten jarraitzen du ordutegiari, desegonkortasunari, segurtasunari eta soldatari dagokienez.

Gaur egungo pandemia eta inflazioa aitzakia ezin hobea izan da urte luzez egosten egon den egoerak eztanda egiteko.

Beharginek aski dela adierazi dute eta bizitzaren garestitzearen aurrean planto egin du, konponbide bat bilatu arte. Enpresak merkatuan beren lekua mantentzeko edozein prezio ordaintzeko prest daude? Muturreraino estutuko dituzte langileriaren lan baldintzak? Denak balio du?

Errealitate gordin honek egi bat besterik ez du ezagutzera ematen: kapitalismoa ez da jasagarria. Noiz arte?

# "Epe luzeko inbertsioa da ikerketan egiten den lana"

**LOREA BLAZQUEZ IKERLARIA**

Ikerbasque programako kontratua dauka eta Biodonostian dihardu lanean hainbat gaitz ikertzen; batetik, demenzia frontotenporala; eta bestetik, buruko tumoreak

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Lorea Blazquez (Aretxabaleta, 1980) Donostian bizi da 2020ko uztailea ezker, Londrestik itzuli zenetik. Biologia ikasketak egin zituen, genetikan espezializatu zen, eta orain, buruko hainbat gaitz aztertzen dihardu. **Biodonostiako ikerlaria zara, baina horra iristeko ibilbide luzea egin duzu.**

Biologia ikasketak egin nituen EHUn, baina Oviedon bukatu gero, biologia molekularra eta genetika gustuko nituelako. Uda-ko praktikak egin nituen Donostia ospitalean, neurogenetika kontuak lantzen zituztelako han, eta bertan egin nuen doktore-tesia. Neurogenetika barruan, RNAn ikerketan espezializatu nintzen, eta RNA hori nola manipula genezakeen terapia bidez garatu. **Gero, kanpora joan zinen.**

Tesia 2009an bukatu nuen, eta ikerketa munduan jarraitu gura nuela argi neukan, oso aberasgarria delako egunero galdera berri bati erantzuna topatzeko lan egitea. Iruñean jarraitu nuen nire ikerlari bidea eta ia bost urte egin nituen, RNA kontuekin, terapia genikoetan oinarritutako ikerketan ziharduen lantaldearekin. Sasoi hartan, krisia iritsi zen eta ikerkuntzan murrizketa handiak egin zituzten. Sakontzen jarraitzeko kanpora joatea erabaki nuen, eta Londresera joan ginen familia osoa, ordurako bi ume nituen eta. Bi urte egitea zen asmoa, Europar Batasunak ikerketa arlori bideratutako diru batekin doktoretza osteko lana garatzeko, baina, azkenean, sei egin genituen. Handik neure finantzaketa lerroarekin itzultzea lortu nuen, Biodonostian ikerlari nagusi legez.

**Eta zer duzu esku artean orain?**

Bi ikerketa lerro ditugu zabalik: batetik, demenzia frontotenporala ikertzen dihardugu. Alzheimerren ostean demenziarik ohikoena da eta ospitaleko neu-



Lorea Blazquez ikerlaria Biodonostiako laborategian. LOREA BLAZQUEZ

## "AMORRUA EMATEN DIT LANTALDEETAKO ARDURA POSTUETAN EMAKUMEAK APENAS EGOTEAK"

rologia zerbitzuarekin elkarlanean dihardugu; eta beste lerroa buruko tumoreetan dago oinarrituta, sendagairik ez duten tumoreak ikertzen gabilta.

**Pandemiak balioa eman dio ikerketa-lanari?**

Hori esan izan da, baina, zoritxarrez, ez da horrela; nik ez dut diru gehiago antzeman. Beharbada, arlo oso zehatzetan, COVIDarekin zerikusia dutenetan, abiatu dira proiektu puntualak. Baina ikerketa ez da hori, ez dira proiektu puntualak, urte askotako lana baizik, eta etengabeko babesa behar du.

**Minbiziaren aurkako elkartetik jaso duzu zuk dirua.**

Buruko tumoreak aztertzeke eskatu nuen, eta lortu. Nire proiektuen artean finantzaziorik handiena jaso duena izan da, ia 250.000 euro. Gobernutik bideratzen den dirua gutxiago izan

ohi da. Hala ere, EAEn pribilegiatuak gara uste dut, hein batean; nire ibilbideko faserik egonkorrean nago orain, Ramon y Cajal eta Ikerbasque programarekin dudak kontratuari esker.

**Ikerketa epe luzeko prozesua da, ezta?**

Bai, emaitzak iristen dira, baina prozesu motela da; epe luzeko inbertsioa da ikerketa. COVIDaren aurka erabilitako RNA txertoak, esaterako, urteetako lanaren emaitza dira, eta aurretik egindako lan horri esker izan ditugu eskura txertoak orain.

**Eta genero-berdintasuna iritsi da ikerketara?**

Oso fenomeno kuriozosa gertatzen da, artazi fenomeno. Biologia ikasketetan, esaterako, emakumeak erdia baino gehiago dira. Baina gero, aurrera egin ahala -doktoretzak, doktoretza osteko ikerketak...-, emakume kopuruak behera egiten du eta gizonezkoenak gora. Horri buelta emateko lanean ari gara eta *Emakumeak zientzian* ekimena dugu abian Biodonostian. Amorrutik handiena ematen dit lantaldeetako ardura postuetan eta ikerketa buruetan emakumeak apenas egoteak.

## Literatur Astea dator Kurtzebarri eskolara, askotariko ekintzekin

Irakurtzeko ohitura sustatzeko eta ikasleak literatur mundura hurbiltzeko helburuarekin, Literatur Astea egingo dute Kurtzebarri eskolan martxoaren 24tik 30era bitartean. *Emakume idazleak* izenburupean, askotariko ekintzak izango dituzte egun horietan; besteak beste, emakume idazleen liburuak irakurtzeko eta biografia ezagutzeko aukera eta Ana Jaka (Andoain, 1973) idazlearen bisita. Ikasleek nahi beste galdera egin ahal izango dizkiote. Gainera, DBHko ikasleek eurek sortutako ipuinak kontatuko dizkiete gaztetxoenei. Eta asteari bukara emateko, martxoaren 30ean, 30. Irakur Maratoia egingo dute.

## Hainbat ekintza antolatuta, Basotxo hasi da lanean

Basotxo erretiratuen elkarteak ekin dio lanari, eta, komunikaziorako bideak zabaldu nahian, bazkideen Whatsapp taldea sortu gura du. Elkartearen albisteak jasotzeko bakarrik izango da, eta interesa dutenek izena eman beharko dute.

Ekintzei dagokienez, martxoaren 31n, hitzaldia egingo du Clemente Domingo erizainak: *Automedikazioa eta paziente bizia*. Basotxon bertan izango da (17:00). Apirilaren 1ean, ostera, gaztaina-jana izango dute (18:00). Eta datarik zehaztu barik izan arren, martxoaren 1ean ospatzekoak ziren zaindariaren eguna ere ez dutela ahaztuta adierazi dute.

## Gaztetxoentzako ekintzak antolatu ditu Loratu apirilarekin

Azkeneko urteetan udaleku irekien ardura izan duen Loratu egitasmoak Lehen Hezkuntzako hiru-garren, laugarren eta bosgarren mailetakoko neska-mutikoendako eskaintza prestatu du apirilaren 11rako, 12rako eta 13rako. *Loratulekuak* izenarekin jolasak eta ekintza bereziak iragarri dituzte hiru egun horietako goizetarako -10:00etatik 13:00etara-.

Izena emateko epea zabalik dago, martxoaren 21era arte, eta 60 lagunendako dute lekua. Galde-tegi bat prestatu dute horretarako, eta argibideak gura dituenak hemen ditu bideak: 747 42 18 69 eta [loratu@loramendielkartea.eus](mailto:loratu@loramendielkartea.eus). Prezioa da 50 euro ume baikoitzeko -bigarrena, 30 euro-.

## Mikel Zamoraren kontzertua izango da hilaren 25ean

Mikel Zamora aretxabaletarrak lehen diskoa aurkeztuko du: *Mikel Zamora PR*. Indie ukituak dituen pop-rock estiloko disko intimo eta pertsonala da. Ohol-tza gainean eskarmentu handiko musikariak izango ditu lagun datorren egubakoitzean, hilaren 25ean (20:30).

Bestetik, hilaren 26an, Fun Dantz dantza urbanoen jaialdia etorriko da bueltan. Hemeretzi taldek hartuko dute parte, bi kategoriatan banatuta: juniorrak eta absolutuak. Jaialdia kiroldegian izango da (18:30) eta 70 minutu iraungo du. Bi ekitaldi-tarako sarrerek 5 euro balio dute. Arkupen edo online -*aretxabaleta.eus*- eros daitezke.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

Jou Díaz  
Karakina

Durana 15  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA



Aitor Ruiz de Austri, Beñat Arrieta, Gari Barandiaran eta Ixak Sarasua. 'ZUREKIN BAT'

## 'Upeide' taldeak 51.198 euroko saria irabazi du

Aitor Ruiz de Austri, Beñat Arrietak, Gari Barandiaranek eta Mikel Arrietak osatutako taldeak zakua irabazi du Ainhoa Etxebarriak aurkezten duen ETB1eko 'Zurekin bat' saioan. Diruaren zati bat Upeide izeneko elektrotzaranga sortzeko erabiliko dute

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA  
Lau kideko bi talde lehian aurrez aurre, eta helburu nagusia eguero jokoan dauden 800 euroak irabazi eta programaren zaku potoloa eramatea; hain zuzen, horixe bera lortu dute Aretxabaleto eta Eskoriatzako gazteek. Aurreikusitako baino gehiago irabazi dute publiko gazteari eta familiarrari zuzenduta dagoen *Zurekin bat* saioa. atalean, eta pozik daude saridunak, hasierako helburua beteta eta plaitoan une ederrak pasata.

### 27 programatan disfrutatzen

Aitor Ruiz de Austri, Beñat Arrietak, Gari Barandiaranek eta Ixak Sarasuak hasi zuten programako ibilbidea, nahiz eta Sarasuaren ordez Mikel Arrieta batu zen *Upeide* taldera. Hasieratik helburu garbia zuen laukoteak, 4.000 euro inguru lortzea, Upeide elektrotzaranga prestatzeko materiala erosteko. "Gabonetan hasi ginen parte hartzen eta gutako bi gaixotu ginenean

geldiune bat izan genuen. Otsail hasieran bueltatu, eta, guztira, 27 saiotan izan gara parte hartzen. Ondo pasatzeko helburuarekin hasi arren, ondo moldatzen ginen; beraz, programarako prestatzen hasi ginen, eta aurreikusitako baino gehiago irabazi dugu saioan, eta uste baino diru gehiago irabazi. Gainera, lan kontuengatik eta bestelakoengatik programa utzi behar genuenean, orduan etorri da sari nagusia; hortaz, oso pozik gaude", adierazi du Aitor Ruiz de Austri, *Upeide* taldeko liderrak. Aretxabaletoak gaineratu du Sarasua praktiketan hasi zenez unibertsitateko lagun duen Mikel Arrieta donostiarra sartu zela haren ordez taldera, eta

**27 PROGRAMATAN HARTU DUTE PARTE ETA HASIERAN ZEHAZTUTAKO HELBURUA BETE DUTE**

bera izan dutela bidelagun saioaren zati handi batean.

### Kamiseta-jokoa

Saioetan egin dizkieten galderi erantzun zuzena bilatu guran aritzeaz batera, inguruko musika taldeei propaganda egiteko ere aprobeztatu dute aukera: "Nhil, Txerrikumeak, Wood Strings... Taldeen propaganda egitera joan ginen hasieran, baina, saioa aurrera joan ahala, kamiseta barik geratzen hasi ginen".

Jasotako diruarekin konforme, irakurketa txiki bat egiteko tarte ere hartu dute taldekideek: "ETB1eko lehiaketa bakarra da *Zurekin bat* saioa, eta, ETB2ko bi lehiaketekin alderatuz *-Esto no es normal* eta *Atrápame-*, askoz diru gutxiago dago jokoan. Irabazi duguna oso ondo dago, baina argi dago zer-nolako ezberdintasunak dauden kate baten eta bestearen artean, bai programazio bai aurrekontu aldetik".



Irati Betegi pilotaria, asteon, Iturrigorri pilotalekuan entrenatzen. IMANOL BELOKI

## Irati Betegi, emakumezkoen eskuz binakako master finalean

Gabirian jokatu du aretxabaletarrak, Olatz Intxaustirekin batera, pilota goxoarekin, zapatuan, 17:30ean

### I.B ARETXABALETA

Emakumezkoen eskuz binakako Master Laboral Kutxa finalerako sailkatu da Irati Betegi pilotari aretxabaletarra. Hori horrela, pilota goxoarekin arituko da Olatz Intxausti antzuolarrarekin batera, Uxue Perez eta Aiala Uriarte lezamarren aurka. Finala Gabirian jokatu dute, bihar, 17:30ean.

"Gabonetan nire lehenengo finala jokatu nuen, mistoan. Zapatuan, berriz, emakumezkoen txapelketako finalean estreinaldia izango dut. Ondo prestatuta nago, eta saiatuko naiz irabazten. Fi-

nalaren aurretik, gainera, gaur, 18:30ean, Oñatin Gipuzkoako binakako partidua jokatu dut Lander Valle aretxabaletarrarekin, eta biharko entrenamendu gisa ondo etorriko zait", adierazi du Irati Betegik.

### Errasti, harro

Juan Mari Errasti Aretxabaleto pilotari entrenatzaileak ere finala irabazteko aukerakin ikusten du Irati: "Pilota gogorarekin ere aritzen da, eta goxoarekin jokatzeko nabaritu du. Ea lan ona egiten duen...".

## Zinegoak-en bost film labor izango dira Arkupen ikusgai

Bilboko LGTBI Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdiko (Zinegoak) bost film labor proiektatuko dituzte, jatorrizko hizkuntzan, Arkupeko Zaria aretoan, hileren 23an, eguaztena.

Ikus-entzunezkoak martxoan proiektatuko direnez, emakumeen paperak protagonismo berezia izango du, eta, proiektazioak 19:00etan hasita, honako hauek izango dira lanak: Katherine Martinearen *Les filles ne marchent pas seules la nuit* ikus-entzunezkoa; Paloma Orlandiniren *Ob Secena*; Albert Carboren *Elsa*; Shaleece Haasen *To the Future, With Love* animaziozko lana; eta Maider Garciairen *No deberías* lana.

## OHARRAK

### Karatea Ibarra

Domekan, Gipuzkoako infantil mailako karate txapelketa jokatu da Ibarra kiroldegian. 10:00etan hasiko da txapelketa, eta 13:30 inguruan amaituko da.

### Futbola, debalde

Domekan, preferente mailako UDA-Urnieta (15:30) eta ohorezko erregional mailako UDA-Hernani jokatu dira (17:30) Ibarra. Bietara joateko dei egin du UDAk, sarrerara doan izango dela aprobeztatuta.

### Bola-jaurtiketa irekia

Uratz-Aldeko San Jose bola jaurtiketa irekia jokatu da zapatuan, 11:30ean hasita.

# Aurkezpena egiteaz gain, ondorengo ekintzen berri

Gaur aurkeztuko dute Eskoriatzako Korrika batzordeko kideek Korrikaren baitan antolatutako egitaraua. Apirilaren 1ean egongo diren ekintzez haratago, aurretik eta ostean izango diren hitzorduen berri ere emango dute, besteak beste

**Imanol Beloki Unamuno** **ESKORIATZA** Herriko elkarteetako ordezkarriak, eragileak eta norbanakoak hamabost egunean behin batu dira kultura etxean, Korrikaren gaineko egitaraua prestatzeko. Apirilaren 1ean iritsiko da Korrika Eskoriatzara, eta, eguna iritsi aurretik, egunean bertan eta ostean zenbait hitzordu izango dira herrian; hori horrela, gaur, egubakoitza, Zaldibar antzokian 19:00etan izango den ekitaldian emango dute guztia berri, AEK-k Korrikarako egin duen *Uhinak* dokumentalaren proiektioarekin batera. Hala ere, martxoaren 23an berriz batuko da batzordea, 18:30ean, kultura etxean, azken prestaketa lanak fintzeko.



Eingeanke taldeko ordezkariek lekukoa eramaten, 2019an. GOIENA

## Iñigo Beitiaren hitzaldia

Korrika Eskoriatzara iristeko atarian, hilaren 31n, Iñigo Beitia antropologo eskoriatzarrak hitzaldia eskainiko du, 19:00etan, Zaldibar antzokian. *Kulturaren eragina hizkuntzaren biziberritzean. Behin-behineko ondorio batzuk* izeneko lana aurkeztu zuen Soziolinguistika Klusterrak eta Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen dituzten Txillardegia Hausnartu Soziolinguista sarietara, eta hirugarren saria jaso zuen berak.

Euskararen gaineko ikerketetan parte hartu izan du Beitiak, eta, lan hori ardatz, *Euskararen biziberritze prozesuaren egungo egoera eta gako berriak* izeneko hitzaldia eskainiko du herritarren aurrean: "Adituek esandakoak batu ditut, eta, horiek azaltzeaz batera, nola kokatzen dutenen euskararen egoera gaur egun adierazteaz batera, ateratako gako berri edo ideia eta kontzeptu berriak izango ditugu hizpide".

## Kultura, kirola eta musika

Apirilaren 1ean, berriz, orotariko ekintzak izango dira egunean

zehar. Korrika Txikiarekin hasiko da eguna, eta, eguerdi partean Korrika ofiziala pasa ostean, buruhandiak, Oztopo trialsin taldekoen erakustaldia eta musika emanaldiak izango dira herritarren gozagarri, besteak beste.

## Korrika pasa osteko ekintzak

Apirilaren 1ean Korrika Eskoriatzatik pasa arren, apirilaren 10ean Donostiara iritsi arte ez da bukatuko. Hori horrela, Leintz Gatzagako eta Eskoriatzako Korrika batzordeek elkarrekin mendi-martxa antolatu dute apirilaren 3rako. Norbere neurria egokitzeko moduko ibilbidea izango da, eta bide osoa nahiz zatika egin daitekeela adierazi dute antolatzaileek.

10:00etan hasiko da mendi-martxa, Eskoriatza-Atxorrotx-Gatzaga-Eskoriatza, eta 11:30ean, talde argazkia aterako dute Atxorrotzeko tontorrean. Bertatik Gatzagarainoko oinezko bidearekin jarraitzen duenak 14:00etan salda izango du zain. Arratsaldean, berriz, 19:00etan, Mikel Etxabururen poesia errezitaldi musikatuak izango da Zaldibar antzokian.

## Egitaraua:

### Martxoak 18, ostirala

- 19:00 Korrikaren aurkezpena, eta *Uhinak* dokumentalaren proiektioa, Zaldibar antzokian.

### Martxoak 25, ostirala

- 18:00 Arropa salmenta, Fernando Eskoriatza plazan.

### Martxoak 31, osteguna

- 19:00 Iñigo Beitia eskoriatzarraren hitzaldia: *Euskara biziberritzeko egungo egoera eta gako berriak*, Zaldibar antzokian.

### Apirilak 1, ostirala

- 10:30 Korrika Txikia.
- 13:49 Korrika ofiziala.
- 17:00 Buruhandiak.
- 18:00 Trial erakustaldia, Gorosarrin.
- 19:00 Kontzertuak, plazan.
- 22:30 Sei Urte taldearen kontzertua, Inkernun.

## Aparkaleku gehiago jarri dituzte Intxaurtxueta auzoan

33 aparkaleku izango dira, guztira, eta mugikortasun urriko pertsonentzat egokitutako plaza bat

### I.B. ESKORIATZA

Joan den astean hasi zituzten Apotzaga eta Eroski atzealdearen arteko aparkalekuko lanak. Bi egunez itxita egon zen Intxaurtxueta auzoko 13 eta 14. zenbakidun etxeen atzeko aparkalekua, eta oraindik ez dituzte egin beharrekoak amaitu.

Udal webgunean jakinarazi dutenez, dagoeneko aparkatu daiteke bertan, nahiz eta geratzen den zer egin. "Obrak astean amaituko ditugu, baina gero, margotze lanak-eta faltako dira; beraz, astebete gehiago inguru arituko dira bertan", adierazi du Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako Udaleko Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburuak.

### Hamahiru aparkaleku gehiago

BEZa barne, 21.163 euroko kostua izan dute lanek, eta obra bukatzean 33 aparkaleku-plaza



Intxaurtxuetako aparkalekuko lanak. I.B.

lortuko dira, lehen zeudenak baino hamabi gehiago, eta mugikortasun urriko pertsonentzat egokitutako plaza berri bat sortuko da, lehen ez zegoena. Horrez gain, oinezkoak modu seguruan ibiltzeko bide irisgarria, espaloia, prestatuko dute.

## Foru Aldundiko udalekuak eta Gazte Oporraldiak, prest

7 eta 13 urte bitarteko haurrentzako -2009 eta 2015 bitartean jaiotakoak- hiru aldundiek elkarlanean urtero antolatu ohi dituzte udalekuak leku hauetara: Zuhatza, Barria, Zarautz, Hondarribia, Orio... Udaleku horietara joateko izena banaka, binaka edo hiruko lagun-taldeen eman daiteke astelehenetik aurrera, martxoaren 29ra arte,

bi bide hauetako bat erabilia: [gipuzkoangazte.eus/udalekuak](http://gipuzkoangazte.eus/udalekuak) webgunetik edo Eskoriatzako udaletxean, H@zi zerbitzuan.

Horrekin batera, 14 eta 17 urte bitarteko nerabeei zuzendutako Gazte Oporraldiak programarako -2005 eta 2008 bitartean jaiotakoak- ere ireki dute izen-ematea. Zarautz-surfa-, Hondarribia-antzerkia- eta Araba-Gazte-Rock programa- dira, besteak beste, eskaintzen diren lekuak. Izena emateko, Aldundiko udalekuen bide berak jarraitu daitezke.



# "Sufritu arren, oztopoak gainditzin gozatzin da"

**IÑAKI SANTAMARIA** OZTOPO LASTERKETETAKO ATLETA

laz hasi zen oztopo lasterketan lehiatzen, eta asteburu honetan hasiko du denboraldia. Domekan izango du lasterketa, Valladoliden: 14 kilometro eta 40 oztopo

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA Urte luzez futboleant eta areto futboleant aritu ostean, beste etapa bati eman zion hasiera iaz Iñaki Santamaria eskoriatzarrak. Kirolari sutsua da, geldiezina, eta bere mugak gainditzeko gertu dago beti. Hori horrela, sare sozialen bitartez, oztopo lasterketak jarraitzen hasi zen, eta pixka bat entrenatzen. Ordutik, hainbat lasterketa egin ditu, baina denboraldia asteburu honetan hasiko da, eta lehiatzeko gogoz dago.

**Nola hasi zinen kirol honetan?**

Betiko kirolekin nazkatuta, oztopo lasterketek tentatu eta apurka-apurka gimnasioan hasi nintzen entrenatzen. Instagram sare sozialean bilaketak egin nituen eta oztopo lasterketak egiten zituzten pertsonak jarraitzen hasi nintzen. Hori duela urtebete izango zen, eta, nire kontura prestatzen ari nintzela, Espainiako txapeldunak, Lluís Barbek, 30 plaza ireki zituen berarekin entrenatu ahal izateko. Hautatuetakoa bat izan nintzen eta aplikazio baten bitartez entrenamenduak ezartzen zizkigun. Bere helburua zen iazko urrian egin zen Asturiasko Espainiako txapelketarako zenbait lagun prestatzea.

**Bertan parte hartu zenuen. Zer moduz joan zen?**

Martxotik urrira bitartean Lluís Barbarekin entrenatzen aritu nintzen Asturiasko lasterketarako, eta tarte hartan hiru lasterketa egin nituen. Denontzat Hernani, Denontzat Donostia eta Gladiator Race Iruñea lasterketak izan ziren egindakoak. Asturiaskoan 14 kilometro ziren eta tartean 40 oztopo. Bukatu nituen egin beharreko guztiak, baina azken oztopo-sortan, gogorrena izaten dena, huts egin nuen. Kontua da kategoria ezberdinetan lehiatu zaitezkeela, eta ni elite mailan aritu nintzen. Eskumuturreko bat ematen di-



Iñaki Santamaria eskoriatzarra proba batean. I.S.

## "EUSKAL HERRIKO LASTERKETETAN ARITUKO NAIZ, ESPAINIAKOA ONDO PRESTATZEKO"

zute zure kategoria ezartzen duena, eta proba guztiak gaintzen badituzu, eskumuturrekoa mantentzen dizute; ez bada horrela, moztu egiten dizute eta ez duzu punturik batzen.

**Ondoren zer egin zenuen?**

Nire kontura pixka bat entrenatu nintzen, eta duela gutxi, berriz hasi naiz Lluís Barbarekin, maiatzean Castellon egingo den Espainiako txapelketa prestatzeko. Ordura arte egingo ditut zenbait lasterketa, eta hurrengo martxoaren 20an izango da, Valladoliden egingo dudana. Lasterketa hamabi kilometrokoa izango da, 40 oztopo dituena.

**Entrenatzeko zer egiten duzu?**

Nire kabuz korrika egitera joaten naiz, gimnasioan ere orduak sartzen ditut, eta oztopo lasterketan aurre egiten dizkiogun oztopoak ere pres-

tatzen ditut lagun artean, entrenatzeko. Halako lasterketan, kuadrilla artean joateko kategoria dago, hasiberriatzat moldatutako lasterketak ere badaude, eta gero, elite mailakoak. Nik azken honetan aritu nahi dut, baina entrenatzeko eta ondo pasatzeko besteetan aritzea ere atsegin dut.

**Zein izango da denboraldi honetan zure helburua?**

Federatuta nago, eta asteburu honetan denboraldiko lehenengo lasterketa egingo dut. Kasu honetan, ligako lasterketa bat da, baina halakoak Estatu osoan zehar egiten dira, eta guztietara joatea oso zaila da. Asmoa da maiatzean Castellon izango duan Espainiako txapelketako lasterketa ondo prestatzea, eta behar bezala amaitzea. Gainontzeko lasterketak baino garrantzitsuagoa da honako hau, eta elite mailako eskumuturrekoekin helmugara iristea da nire asmoa. Hala ere, egun hori iritsi bitartean, Euskal Herrian antolatzen diren hainbat lasterketan arituko naiz, oso urrun joan gabe. Ondo pasatzera, disfrutatzea eta baita sufritzea ere. Hori bai, gozatuz.



NIRE USTEZ

MARI CARMEN ARRIETA

## Bittor, 25 urte zu barik

Familiaren izenean: "Udaberriak argia, epeltasuna eta kukuak kantuan ekarri ohi ditu. Baina guri udaberri etorrera bakoitzak gogorarazten digu martxoaren 20an argi eta epel behar zuena ilun eta hotz bihurtu zitzaigula. Loreak esnatu behar zirenean, iharu ziren gure bihotzak. Harrezkero, 25 urte pasa dira. Bizitzak aurrera jarraitu du eta guk, kolpe hartatik sekula altxatuko ez ginela pentsatu bagenuen ere, hemen jarraitzen dugu, bizitzari forma emanez, baina ahaztu barik zure hutsunea nabarmena dela. Nabarmenegia. Oraindik ere faltan botatzen zaitugu, Bittor. Faltan senarra, adiskidea, bidelaguna. Faltan aitxa, babesa, magala. Faltan honezkero dozena erdi ardi izango lituzkeen aita, mendian hurretx-makilak hartzen ibiliko litzatekeena. Faltan biloba txikienarekin dantza eta dantza egingo lukeena. Faltan anaia zaharrena. Baina bizitzak aurrera egin du, eta harro ikusiko zenuke izoztuta utzi gintuen udaberri haren ondoren Uxarte inguruan emeki-emeki loratu den bizitza berria. 25 urte zu barik, eta oraindik faltan botatzen zaitugu, Bittor. Hutsunea demasa da. Baina badator udaberria, hasi dira arbolak loratzen".



IÑAKI KORTAZAR

## Maturana eta Beamurgia garaile

Bi urtez jokatu barik egon ostean, zortzi bikote aritu ziren musean, eta joan den domekan, Inkernu tabernan jokaturako Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketan, Iñaki Maturana eta Egoitz Beamurgia izan ziren garaile; horrenbestez, martxoaren 26an eta 27an Seguran jokaturako Gipuzkoako kanporaketarako sailkatzea lortu zuten.

## OHARRAK

### Zinema: 'Aita Mari' dokumentala

Martxoaren 20an, 19:00etan, Zaldibar antzokian proiektaturako dute ikus-entzunezkoa. Sarrerak hiru eurotan erosi daitezke, kiroldegian edo [bibe.me](http://bibe.me) webgunean.

### San Pedro jaiak antolatzeko bilera

Proposamenak egiteko bilera irekia hilaren 24an izango da, 18:00etan, kultura etxean.

### Ludoteka: txori-etxolak

Ludotekan txori-etxolak egiten aritu dira, eta gaur ere ekintza bera izango dute. Hilaren amaieran, etxola horiek jartzera joango dira, martxoaren 29an eta 30ean.

# Jokalari gutxi, eta partidu erabakigarria

Eskoriatza sailkapeneko laugarren postuan dago, eta domekan aurkari izango duen Antiguoko taldea hirugarrena da sailkapenean. Puntu kopuru bera dute, eta eskoriatzarrek aurre hartu nahi diete, baina partidu zaila aurreikusten dute

**Imanol Beloki Unamuno** **ESKORIATZA** Areto futboleko hirugarren maila nazionalako Eskoriatza taldeak partidu erabakigarria jokatu du domekan, 16:50ean, etxetik kanpora, Donostian. Hain zuzen ere, sailkapeneko hirugarren postuan dagoen Antiguoko taldearen aurka neurtu beharko dituzte indarrak Mikel Alkaideren mutilek, Pio Baroja kiroldegian, eta puntu kopuru bera dutenez, aurkariaren aurretik jartzeko hiru puntuen bila irtengo dira kantxara.

## Garaipena, ezinbestekoa

Denboraldiko azken hiru partiduak irabazi dituzte eskoriatzarrek, eta, bide beretik jarraitu guran, urrats bat gehiago egin nahi dute. Taldea "sendo" egon arren lesionatutako jokalaririk asko dituztela adierazi du Mikel Alkaide Eskoriatzako entrenatzaileak, eta ez dela lehia erraza izango domekakoa nabarmendu: "Partidura jokalaririk



laz, Antiguokori gola sartu berri. GOIENA

gutxi goaz; izan ere, guztira, hamahiru jokalaririk eta hiru atezain bakarrik gaude, eta bost edo sei jokalaririk gutxiagorekin arituko gara. Horrekin batera, taldeko zenbait jokalaririk arratsaldeko txandan aritu dira aste

osoan lanean, eta euren kabuz entrenatu dira. Hala ere, bolarik onean gaude, eta azken jardunaldietan lortu ditugun emaitzetan ikusten da hori. Horri etsiz, partidua irabazi beharra dugu, atzetik datozkigunei distantzia ateratzeko. Ilusioz gaude, baina partidua oso zaila izango da; izan ere, ligako talderik onenetakoa dela esango nuke. Nire ustez, behintzat".

## Julen Arregiren lesioa

Duela bi jardunaldi, Laskorain taldearen aurka Julen Arregi jokalaria lesionatu egin zen, eta bere hutsunea ere sumatuko du taldeak. Hori horrela, asteon sare sozialetan animo mezuak eskaini dizkiote klubetik: "Eskoriatza Kirol Elkartetik gure laguntza osoa bidali nahi diogu Julen Arregiri, Lasakorain taldearen aurkako partidaren eskuin belauneko gurutzatua izandako lesioagatik. Hala, ebakuntza gelatik pasa beharko du. Animo!".

## Mendiko jarduera oro erretratuetan ikusgai Zaldibar antzokian

Joan den asteburuan izandako Mendi Tour izeneko ekitaldiarekin bat eginez, Zaldibar antzokiaren sarreran Donostiako Club Vasco de Camping Elkarteak antolatutako CVCEPHOTO mendi jardueren nazioarteko argazki lehiaketan irabazi duten lan batzuk izan dira ikusgai hilaren 11 ezker, eta gaur, bihar eta etzi izango dira azkenengo egunak horiek ikusteko.

Argazkilari entzutetsuek egindako hogeitaz argazki daude Zaldibar antzokian ikusgai. Modu txundigarrian erakusten dute mendiko jarduera oro; mendia, natura eta bertan egiten diren jarduerak modu bikainean erretratatuak, hain zuzen ere.



ATAMA ESKORIATZA

## Urrezko dominak Mundukoan

Portugalen jokaturako Munduko Kenpo Txapelketan Atama Eskoriatzako zenbait ordezkari izan ziren. Batetik, Leire Rato borrokalariak urrezko bi domina lortu zituen; full kenpo senior mailan (-60 kg) eta submission senior (-60 kg) mailan. Otavio Oscar borrokalariak ere urrezko domina lortu zuen, gizonezkoen submission senior mailan (+90 kg).



Bergarako Arragoa musika taldearen kontzertuaren une bat. GOIENA

## Euskara oinarri, literatura, kirola eta musika nagusi

Korrikaren bueltan egitaraua aurkeztu dute asteon Leintz Gatzagako Korrika batzordeko kideek

### Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Gatzagako Korrika batzordeak zenbait hitzordu antolatu ditu orain arte, eta hilabete honetarako beste zenbait ekintza prestatu ditu, gainera. Esate baterako, Rosa Urreta eta Joxerra Agirreureta gatzagarrak hitano ikastaroa ari dira eskaintzen. Hala ere, asteon aurkeztu dute Korrikaren bueltan antolatu duten egitarau ofiziala.

### Museotik plazara, korrika

Prestatu duten egitarauko ekinztekin martxoaren 25ean hasiko dira, eta kasu honetan, protagonistak herriko gaztetxoak izango dira. Izan ere, 18:00etan hasita, Korrika Txikia egingo dute. Gatz Museotik irtengo dira korrika herriko haurrak eta San Migel plazarainoko bidea egingo dute. Ibilbidea amaitzen dutenean, txokolate-jana izango da bertaratzen direnentzat.

### Musika eta literatura

Martxoaren 26an, berriz, 17:00etan, kaleko haur-antzerkian ibilbide luzea duen Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa izango da, kultura etxean, eta ondoren, 18:30ean, kontzertuak izango dira herriko plazan. Hain zuzen ere, Bergarako Arragoa folk taldea –bi familiak osatutako musika taldea– eta Arrasate musika folk taldea igoko dira oholtza gainera.

Apirilaren 1ean, berriz, Korrika ofiziala pasako da herritik, eguerdi aldera, baina hor ez da bukatuko Korrikaren baitan antolatu duten egitaraua. Izan ere, apirilaren 3an, domeka, Atxorrotxera mendi-irteera egingo dute, 10:00etan Gatzagako plazatik irtenda. Bertan, eskoriatzarrekin batu eta talde argazkia atera ostean, herrira bueltatuko dira salda beroa hartzera.

## OHARRAK

### Bizitegi-eraikinak azpibanatzeko ordenantza

Lurzoru urbaezineko bizitegi-eraikinak etxebizitzatan azpibanatzeko ordenantza argitaratu du Gatzagako Udalak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Erreklamaziorik aurkeztu ez denez, ordenantza behin betiko onartuta geratu da. Hala, xehetasunak nahi dituenak udal webgunean irakur ditzake.

### Hiri lurren balio gehikuntza

Hiri lurren balio gehikuntza arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketaren hasierako onarpena jendaurrean jarri dute udal webgunean. Erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko epea ireki dute, eta 30 lanegunetan ez badira egoten, behin betiko onartuko da.

**Jokin Bereziartua** BERGARA

San Juan auzoan egindako agerraldian aurkeztu zuten, eguazten arratsaldean, Larramendiko Arnasa taldea. Agerraldia egin zuten lekutik metro gutxira dagoen Larramendi industrialdean eraikitzeko den paper-hondakinak tratatzeko plantaren proiektuaren aurka agertu ziren, irmo. "Nola fida gaitzake hondakinak airera eta uretara isuriko dituela onartzen duen enpresa batekin? Gure helburua herria informatzea eta kontzientziatzea da, baita azpijokoak salatzea ere", adierazi zuten, besteak beste.

Agerraldian adierazi zuten "askotariko eragileak" batzen dituela taldeak: "Bergararren osasunaz kezkatuta etorkizunean San Juanen errauste planta bat eraikiko delako, herritar, erakunde eta eragile anitz biltzen duen taldea gara. Hondakinaren balorizazio-prozesua sortze-instalazioetan bertan egingo da, ekoizpen-instalazioetan dauden arazoak beste leku batzuetara ez eroateko". Hitza hartu zuten Lorea Larrañagak –auzotarren izenean–, Iñaki Madinabeitiak –Mendia Bizirik–, Ane Eginok –Martxanterak–, Aitor Aldazabalek –Kukubaso–, Maite Aristegik –Etxalde baserriarren mugimendua– eta Piter Encinasek –Ekologistak Martxan–.

### Dirulaguntza salatu dute

Adierazi zuten Udalak uztailean onartutako hirigintza-bateragarritasunari buruzko txostena indarrrik gabe utzi zuenean eta lizentziaren eskaera Eusko Jaurlaritzari ingurumen-adierazpena onartzeko egindako eskaeran islatzen ez zen jardueramota bat zehazten zela ohartzean, bi gauza "argi eta garbi" gelditu zirela:

# "Erraustegiaren" aurka egiteko beharrak batuta

Larramendiko Arnasa taldea aurkeztu dute, San Juango industrialdean aurreikusita dagoen plantaren aurkako "askotariko eragileak" batzen dituen eta "kontzientziatze lana" egingo duena; Valogreenek ez dio GOIENARI proiektua ze puntutan dagoen argitu



Larramendiko Arnasa taldea aurkezteko agerraldia eguazten arratsaldean, San Juan auzoan. JOKIN BEREZIARTUA

"Batetik, Tapiak Valogreeneren alde egin duela; eta, bestetik, Valogreenek proiektatutako planta ez dela bateragarria indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorrekin".

Jaurlaritzak Valogreenen enpresari 2,5 milioi euroko dirulaguntza eman izana ere salatu zuten, besteak beste: "Gainera, Eusko Jaurlaritzak bateraezint-

tasun-adierazpenari alegazioa jarri zion, hondakinaren kudeaketari dagokionez enpresak duen izaera argi eta garbi aipatuz [...] Eta proiektuaren jardueran nagusia aldatzeak, Larramendin erraustegiaren ezarpena posible egiteko helburu argiarekin, mesfidati sentiarazi gaitu, eta arretaz jarraitu ditugu proiektuaren izapidetze-urratsak. Ezin dugu

ahaztu, halaber, Valogreenek herrian egindako aurkezpenean ez zuela argibide teknikorik eman nahi izan".

### Sara Ibañez hilaren 29an

Larramendiko Arnasa otsatzen duten eragileek diote enpresak aitortzen duela "toxikotasun larri gisa" kalifikatutako hondakinak sortuko dituela: "Ezin

gara enpresa horretaz fidatu... Era berean, ez dugu ahazten hondakinaren tratamenduari buruzko legeriak dioena; hau da, hondakinak sortzen diren lekutik gertuen dauden instalazioetan tratatu behar direla".

Ahal duten neurrian, herritarrek informatu nahi dituzte, onartzen duten arren proiektuaren gaineko informazioa lortzea oso zaila izaten ari zaiela: "Askotariko zurrumurruak entzun ditugu, baina ezer ofizialik ez oraindik, eta horregatik ikusi dugu beharrezkoa taldea aurkeztu eta ekintzak antolatzeari ekitea". Hain zuzen, martxoaren 29an, Sara Ibañez sendagile erretiratuak hitzaldia emango du Irizar jauregian, 19:00etan: "Musikaren dagoen findegiak sortzen dituen osasun arazoez hitz egingo digu". Euren asmoa da aurrerago ekitaldi gehiago ere antolatzea: "Uste dugu Bergarako eta eskualdeko bizilagunekin egingo dugun lana garrantzitsua izango dela inposatu nahi duguten proiektuari aurre egiteko. Aurrera begira, beste ekitaldi mota batzuk egitea aurreikusten dugu, herritarrok erraustegiaren aurka gaudela erakusteko".

### Enpresaren erantzunik ez

Proiektua gaur-gaurkoz ze puntutan dagoen jakiteko, Elxeko (Alacant) Valogreen enpresarengana jo du GOIENAK informazio eske, baina enpresako arduradunek adierazi dute oraingo ez dutela ezer esateko.

## SALATU DUTE, BESTEAK BESTE, ENPRESAK EZ DITUELA ARGIBIDE TEKNIKOAK EMAN

## Mugikortasuna hobetzeko bost arlo izango dira lehentasunak

Oinezkoengan, garraio publikoan, bizikletaren erabileran, zirkulazioan eta aparkalekuetan eragin nahi du Gobernuak

**J.B. BERGARA**

Agintaldi hasieratik dihardu Udal Gobernuak herriko mugikortasuna hobetzeko lanketan. Mugikortasun plan berrira begira –2020ko udaberrirako onartzea zen hasierako asmoa– Laber

enpresari esleitu zitzaion mugikortasun azterketa egitea, eta hobetu beharreko bost arlo identifikatu dituzte: oinezkoen mugikortasuna, garraio publikoa, bizikletaren erabilera, trafikoa eta aparkalekua.

### Bidegorria eta garraio publikoa

Oinezkoen dagokionez, Udal Gobernuak epe laburrerako lehentasun moduan ikusi ditu, esaterako, trafikoa lasaitzeko neurriak ezartzea, Zubietan eta Masterrekan espaloiak zabaltzea eta Metrominutu ekimena martxan jartzea –oinezkoen ibilbideak plano batean identifikatzen dituen ekimena da; puntu esanguratsuak eta horien arteko oinezko distantzia markatuz–. Bizikletaren erabilera txikiari aurre egiteko –lekualdatze global guztietatik

%2 egiten dira bizikletaz eta emakumeek ez dute apenas erabiltzen– bizikleta aparkalekuak gehituko dituzte, bizikleta-kaleak ezarriko dituzte –autoarekin partekatuta– eta bidegorri sarea osatuko dute Antzuolarako konexioarekin. Garraio publikoari erreparatuz, herri barruan %3koa da, eta %23rakoa herritik kanpo; lehentasunak dira auzo-taxia eta herribusaren erabilera areagotzeko neurriak hartzea –erabilera eta gastua partekatzea proposatuz, adibidez– eta Taxi

lagun zerbitzu berria sustatzea, pertsona nagusiak anbulatorio-ra hurbiltzeko. Trafikoaren arloan, ibilgailuen zirkulazioa baretzeko neurriak hartzearekin batera, jasagarritasuna eta segurtasuna handitzea nahi du Udal Gobernuak. Azkenik, aparkalekuei dagokionez, "kaleko aparkalekuen kudeaketa eraginkorra" identifikatzen du azterketak mugikortasuna hobetzeko giltzarri moduan. Horren azterketa epe ertainera egingo duela dio Udal Gobernuak.





Alberto Alonso, Javi Bucsek, Ainhoa Lete, Nagore Iñurrategi eta Maite Agirre, martitzenean, Udal Artxiboaren atarian. TXOMIN MADINA

## Egia testigantzen bidez, oroimena bateratzeko

36ko gerratik gaur egunera arte Bergaran motibazio politikoak eraginda izan diren giza eskubideen urraketan gaineko ikerketa egingo du Aranzadi Zientzia Elkarteak, herritarren lekukotzetan oinarrituta; udalbatzako hiru alderdien babesa dauka proiektuak

### Jokin Bereziartua BERGARA

36ko gerran, diktadura frankistan eta 1960tik gaur egunera arte Bergaran izan diren giza eskubideen urraketan memoria berreskuratu eta ezagutzera emateko asmoz, Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak *Oroimena eta Giza Eskubideak Bergaran* izeneko proiektuaren berri eman dute asteon. "Gure

memoria historikoa eta gertukoak aztertu, jaso eta gure herriko memoria kolektiboan txertatzeko ikerketa bat izango da, datozen bi urteetan garatuko duguna", adierazi zuen jarduneko alkate Ainhoa Letek martitzeneko prentsa agerraldian.

Agerraldi horretan izan ziren udalbatzako hiru alderdietako bozeramaileak: Nagore Iñurra-

tegi (EH Bildu), Maite Agirre (EAJ) eta Alberto Alonso (PSE-EE). Izan ere, horixe da proiektuaren beste ezaugarrietako bat: adostasun politikoak. "Halako gai garrantzitsu bat udalbatzako alderdi guztiekin prestatzea eta garatzea ezinbestekoa dela uste dugu; hiru alderdiek partekatu dugun nahi bat izan da", gaineratu zuen Letek.

### Bi garai ikertuko dituzte

Aranzadi Zientzia Elkarteak historialari Javi Bucsek aurreratu zuenez, bi garai ikertuko dira: batetik, 36ko gerratik frankismoaren lehen urteetara arteko garaia; eta, bestetik, "gertuko memoria" deitzen dena, hau da, 1960tik gaur egunera artekoa. Giza eskubideen aurkako gertakariak jasan dituztenak izen eta abizenekin identifikatu nahi dituzte, testigantzen bidez: "Egia jakitea da helburua, izen-abizenekin jasotzea zeintzuek sufritu zituzten edo sufritzen dituzten giza eskubideen urraketak. Nazioartean oso hedatuta daude biktimizekiko hiru printzipio: egia, justizia eta erreparazioa, eta guk ikerlari moduan lehen urrats horretan murgilduta gaude. Hots, egia jakiteko lanean. Justiziarako eta erreparazioarako ezinbestekoa da lehenago egia jakitea".

### Testigantzak, "ezinbesteko"

Horretarako bergararren inplikazioa "ezinbestekoa" izango dela dio Bucsek: "Herritarren parte-hartzea ezinbestekoa izango da, dena ez dagoelako artxiboetan. Historialariak gara, hainbat artxibo kontsultatu behar ditugu –tokikoak, probintzialak, militarrik...–, baina urraketa eta sufrimendu mota batzuk ez daude dokumentuetan jasota. Testigantzak behar ditugu; jendeak jakin behar du, gainera, testigantza horietako asko ez baditugu orain jasotzen etorkizunean ez direla existituko. Horretan esperientzia badugu; hau da, 36ko gerra eta frankismoa lehen pertsonan bizi izan zutenak ez daude gure artean eta gure dokumentazio lana senideek kontatu diguten horretan oinarritu behar izan dugu. Horrega-

tik, 1960tik gaur egunera arteko gertuko oroimena deitzen zaion garai horren testigantzak hartzeko orain da momentua. Anonimotasun eta konfidentziasun osoarekin egingo dugu lan, jasotzeko dauden sufrimenduak ez daitezen betirako galdu". Bucsek aurreratu duenez, herritarren testigantzek ahalbidetuko dute motibazio politikoak eragindako Bergarako giza eskubideen urraketan "erradiografia" bat izatea: "Lehen urratsa datu bilketa izango da; gure asmoa ez da, gainera, errelatoan sartzea, gertatu zena modu inpartzialean kontatzea baizik".

### Bulego berria Udal Artxiboan

Testigantzak, argazkiak eta bestelako dokumentazioa emateko eta errepresioa eta giza eskubideen urraketak jasan dituzten pertsonen inguruko informazioa eskuratzeko, Oroimenaren Bulegoa irekiko dute Udal Artxiboan; horrez gain, 943 46 61 42 telefono zenbakia eta [memoria@aranzadi.eus](mailto:memoria@aranzadi.eus) helbide elektronikoa ere egongo dira eskuragarri. Bulegoa apirilko azken eguaztenean eta maiatzeko eguazten guztietan egongo da irekita. Ikerketak 2023. urte amaierara arte iraungo du eta webgune batean bistaratuko dira jasotako testigantzak eta informazioak, edozeinen eskura egon dadin. "Webgune hori erreminta bat izango da, osatzen joan ahalko dena", adierazi du Bucsek.

### OROIMEN BULEGOAN, TELEFONAZ ETA POSTA ELEKTRONIKOZ ERE JAR DAITEKE KONTAKTUAN

## Erasoa irmo salatu dute

Begarako Neska\* Gazteak taldeak deituta eta Martxanterekek eta Udalak babestuta, elkarretaratze jendetsua egin zuten hilaren 11n, gizon batek herriko bi neskari egindako sexu-izaerako erasoa salatuz. "Eraso matxistak eguneroko ogia dira; gure herria ez da espazio seguru bat neska\* gazteontzat, beldurrez bizitzera kondenatu gaituzte", salatu zuten deitzaileek.



IMANOL SORIANO

## 'Non dago basoa?' hitzaldia, Basoen Astearen barruan

Udalak eta Kukubasok antolatuta, hilaren 22an, *Non dago gure basoa?* izeneko hitzaldia egongo da Seminarixoan (18:30), Basoen Astearen barruan. Oñatiko Natur Eskolako hezitzaile Idoia Bollarrek eta Iñaki Aizpuru biologoak egingo dute hitzaldia. Gainera, hilaren 25ean, umeentzako eta familientzako tailerrak izango dira Usondo parkean (17:00).

# Ukraina: EAJk eskatu du baliabideak bideratzea

Gerratik ihesi datozen ukrainar errefuxiatuei Udalak auzoetan eta erdigunean dituen etxe hutsak eta beste baliabide batzuk bideratzea eskatu dute jeltzaleek; Gobernuak dio haien "askotariko beharrak" entzuten ari direla eta hasi direla "lehen urratsak" egiten

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Eguaztenean Udalean egindako Bozeramaileen Batzordean, Udalak dituen etxebizitza libreak eta gainerako baliabideak Ukrainako errefuxiatuei eskaintzea eskatu zuen EAJk. "Errusiaren inbasioaren aurrean Ukrainako herriari lagundu beharra dago, erantzukizunez eta erantzunkidetasunez. Udalak baditu etxebizitzak eta baliabideak; esaterako, Uberako eskola-etxea, Elosuko apaiz-etxea, herri erdigunean pare bat etxebizitza... Egokitu egin beharko dira, noski; garbiketa, horniketa... Baina garaiz gabiltza eta bizi dugun egoerak hala eskatzen duela uste dugu", dio EAJko bozeramaile Maite Agirrek. Horrez gain, herritarrek euren borondatez eskaintako etxebizitzak aukera ere aztertu beharko dela dio jeltzaleek: "Horregatik guztia-gatik, jarraipen mahai bat martxan jartzea eskatuko dugu, pausoak elkarrekin eman eta gainontzeko euskal erakundeekin elkarlana bultzatzeko".

**Gobernua, "lehen urratsekin"**

Bestalde, Ukrainako errefuxiatuen oinarrizko beharrei erantzuteko "lehen urratsak" egin dituela iragarri du asteon EH Bilduren Udal Gobernuak. Ohar bidez adierazi dute, besteak beste, Bergaran bizi diren ukrainar jatorriko hainbat herritarrekin eta udan Txernobylgo haurrak hartzen dituzten bi elkarterekin batzartu direla: "Haiek dituzten beharrak entzutea izan da egindako lehen urratsa. Askotariko egoera pertsonalak bizi dituzte Ukrainako gerrak eraginda haien herria utzi behar izan duten pertsona hauek. Eta beharrak ere askotarikoak dituzte. Horiek jasotzen ari gara".

Udal Gobernuaren arabera, "tragedia humano honen aurrean" ezin dute beste alde batera begiratu: "Guztia galduko duten



Bergarako udaletxea, San Martin plazan. GOIENA

## "JARRAIPIEN MAHAI BAT" NAHI DUTE JELTZALEEK, BESTE ERAKUNDEEKIN ERE LAN EGIN EGITEKO

herritarrek izango dira, zaurituko direnak, hilko direnak. Ume eta gazte belaunaldi bat betiko markatuko du gerrak. Eta Europako gainerako herritarrengan ere une honetan pentsaezinezko ondorioak ekar ditzake, gerra bat nola hasiko den aurreikusitako daitekeelako, baina inoiz ez nola amaituko den". Horrez gain, diplomaziaren aldeko "hautu irmoa" egiteko eskatu die erakunde gorenei, "bakearen aldeko konpromisoa" berretsiz. Horrez gain, "kezka" erreparratzen diote mundu mailako potentziak sortzen ari diren blokeek elkarren kontra daroaten "mehatxu militar, ekonomiko eta teknologikoari". Azkenik, "elkartasun zintzoena" helarazi diote Ukrainako herriari, eta gerra sortzen ari den sufrimendua arintzeko "ahalmenen arabera bitarteko guztiak" jarri-

ko dituzte; oraingoz, ez dute baliabide horien gaineko zehaztasunik eman.

**PSE-EE, "atsekabetuta"**

Ukrainako gerraren bueltako adierazpen instituzionalerako, baina, ez da adostasun politikorik lortu. Otsailaren 28ko osoko bilkuran, PSE-EEko bozeramaile Alberto Alonsok atera zuen gaia galderen eta eskaeren tartean, eta, Ukrainaren inbasioa hiru alderdiek salatu bazuten ere, gaia "hurrengo batzordean" lantzekotan geratu ziren. Alonsok "tamalgarrizati" jo du udalbatzako talde politikoko guztiek "Ukrainaren inbasioaren aurkako" adierazpen instituzionala onartzeko akordiorik lortu ez izana. Eta atsekabetuta agertu da ukrainarrei elkartasuna adierazteko eta bakea eskatzeko testu bat adosteko dauden "zailtasunengatik". PSE-EEk otsailaren 25ean bidali zien adierazpen instituzionalerako proposamen bat EAJri eta EH Bilduri: "Negoziaziorako testu irekia zen, adostasuna bilatuz eta azken osoko bilkuran irakurtzeko, sinbolismo-karga handia izan zezakeelako. Hala ere, ez da posible izan".

## GORA ETA BEHERA



## Litxarreriak lurrean, parkingaren atarian



Zapatu goizean atera zuen herritar batek argazkia, Ibargaraiako aparkaleku publikoaren oinezkoen irteeratik gertu. "Poltsa mordo bat lurrean, baina parkean zakarrontziak daude!", salatu du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo ☎ 688 69 00 07.

## Ernai: Gazte Martxara dei egiteko ekintzak datozen egunotan

*Begarako gaztiok independentzia!* izeneko kanpaina abiatu du Ernai antolakundeak. Apirilaren 14tik 17ra Zugarramurdi, Erratzu eta Elizondo artean egingo duten Zutik! Gazte Martxa ekimenera begirako ekintzak antolatu dituzte; tartean, Arrano tabernan hilaren 25erako antolatu duten bertso saioa (22:30) eta hilaren 30erako antolatu duten euskara-

ren gaineko saioa (18:30). Joanes Ilarregi, Xabat Ilarregi, Ekhiñe Zapiain eta Paule Loizaga bertsolariak gonbidatu dituzte, eta Ibon Leibar Txinbo arituko da gai jartzaile. *Ongi etorri, gazte, euskararen herrira* saioan, berri, Josu Alonso, Andrea Gonzalez, Ainhoa Pardina eta Beñat Loidi gazte bergararrak izango dira protagonista. Apirilaren 2an, triki-baffle-poteoa egingo dute. Gazte Martxara joateko autobusetan izena eman ahal izango da Arrano tabernan bertan.

## OHARRAK

### Emakume baseritarren erakusketa ikusgai

Martxoaren 8aren bueltan antolatu duten *Bertatik bertara, emakume baseritarren bizitza* erakusketa hilaren 27ra arte dago Aroztegin. Martitzenetik domekara bisitatu ahal da.

### Odol ematea: hurrengo ateratzea

Hilaren 23an, 16:30etik 20:30era, Oxirondon: 747 48 99 20 (Dulce).

### Nerabeen gurasoei zuzendutako hitzaldia

Nerea Mendizabalek emango du: *Nerabeak eta gatazken kudeaketa*. Hilaren 24an izango da, Seminarixoan (18:00).

### Egubakoitzak Berreskuratzen bueltan dator

Bueltan dator egubakoitzak musikatzea helburu duen ekimena. Labana eta Feline taldeek joko dute gaur kartzela zaharrean (22:00). Sarrera bost euro ordaindu behar da.

### Bigarren eskuko kirol materialaren azoka

Pol-Polek eta Lokatzak antolatu dute hilaren 26rako, Fraiskozurin –eguraldi txarra bada, frontoian–. Materiala saltzeko, 09:30etik 10:30era arteko tartean bertaratu behar da. Materiala erosteko ordutegia 11:00etatik 14:00etara da.



Senior mailako neska, talde erretratuan. A. FAMILIAR

# Mailaz igotzearekin itsutu barik, lanean

Bergara Soraluze taldeko neska denboraldi borobila egiten dabilta Gipuzkoako bigarren mailan. Bigarren postuan daude eta zortzi jardunaldi geratzen zaizkie liga amaitzeko. Alex Familiar entrenatzailea, baina, ez dago mailaz igotzearekin itsututa

**Xabier Urtzelai** BERGARA

Bergara Soraluze taldeko neska gozaten dabilta aurten. Gozaten partiduetan, eta gozaten entrenamendu saioetan. "Oso ondo gaude, hori da egia, eta denean igartzen da. Taldean oso giro ona dugu, eta entrenatzaileok ere gustura joaten gara lanera. Zortzi partidu geratzen dira, eta bai, aurrean gaude, baina ez diogu horri erreparatzen. Zortzi jardunaldi hauekin gozatu gura dugu, eta gero, ekainean, aurrean amaitu badugu erabakiko dugu zer egin", adierazi du taldeko entrenatzaile Alex Familiarrek.

Izan ere, Bergara Soraluze kideek ligan jokaturako hamazortzi partiduetatik hamabost irabazi dituzte, eta Erroibide taldea baino ez da izan kapaz emaitza hobea eskuratzeko – horiek ligako partidu guztiak irabazi dituzte—. Hala, emaitza oso onak badira ere, Familiarrek ez du, oraingo, igoerekin pentsatzen hasteko asmorik. Izan ere, bergararrak urteak daramatza saskibaloiari lotuta, eta denetarik esperientziak bizi izan ditu. "Badakit mailaz igotzeko aukera izateak ilusioak pizten dituela, jendea hasi dela aukera horren gainean berbetan. Duela bi urte ere lortu genuen mailaz igotzea, baina gero, pausoa ez ematea erabaki genuen. Azken batean, guretako garrantzitsua ez da lehenengo edo bigarren

## TALDE BAKARRA DAGO, ORAINGOZ, BERGARAK BAINO LAN HOBEA EGIN DUENA

mailan jokatzeko. Guretako kirol proiektua da garrantzitsua. Duela hiru urte eta erdi atera genuen senior mailako nesken taldea, eta eurekin eta harrobiarekin lanean jarraitu behar dugu. Badakit zer den mailaz igotzea eta konturatzea liga hori handi geratzen zaizula, badakit partiduak bata bestearen ostean galtzea zeren, zelan eragiten duen horrek jokariengan. Horregatik diot ekainean ikusiko dugula datorren urtean ze talde izango dugun, zenbat joango diren kanpora ikastera, harrobian zer daukagun... Horiek guztiak hartu behar dira kontuan erabakia hartzeko orduan; ez dago presarik".

### Defentsako lanean, onenak

Oraingo, etorkizun laburrean pentsatzen dabilta mahoneroak, eta etorkizun labor hori domekako norgehiagoka da –16:00, Labegaraiaeta–. "Oartzunen bisita izango dugu, eta duela hilabete batzuk esango nizuke, berez, ez dela ligako kontrario gogorrenetako bat, sailkapenaren erdi inguruan dabilen taldea

delako. Baina azken lau partiduak irabazi egin dituzte, eta hori ere kontuan izan behar dugu". Kontrara, kontuan hartu behar da, baita ere, bergararrek denboraldi osoan partidu bakarra galdu dutela etxean, eta azken bost partiduak jarraian irabazi dituztela. "Bai, alde horretatik, uste dut orain momentuan ligako defentsa onena daukagula, oso indartsu gaude arlo horretan. Bi baja ditugu, Naroa Aranguren eta Maria Martinez min hartuta ditugu, baina gainontzeko jokariari oso maila polita erakusten dabilta".

### Mutilak, liderraren kantzara

Gipuzkoako lehenengo senior mailan jokatzeko duen Bergara Soraluzearen egoera bestelakoa da. Mahoneroak mailari eusteko lehian dabilta, eta Avia Eibar eta Electricidad Perosanz taldeak baino ez dituzte sailkapenean atzerago. Egia da, baita ere, puntu kopuru berberekin (28) lau talde daudela pilotuta: Añorga, Hernani, Cafes Aitona eta Bergara. Hala, asteburuan bergararrek erronka handia izango dute, kategoriako liderraren kantzara jokatu dute eta. Domeka eguerdian Donostian dute hitzordua –12:00, Benta Berri kiroldegia–, Inter de Mitente taldearen kontra. Nabarmentzekoa da talde horrek oraindik ez duela etxean partidurik galdu.



LOKATZA

## Espainiako txapelketara begira

Lokatza Ziklismo Eskolako Edurne Ormaetxea aramaiorak, Itxaso Askasibar elgetarrak eta Itxaso plaza arrasatearrak maila handia erakutsita ekin diote denboraldi berriari –argazkian, taldeko kide Eneritz Urrutia ere eurekin–. Hala, domekan Espainiako kopako lehen proba puntuagarrian izango dira, Beasainen (09:00).

## Aristi eta Irizar Alentejoko Itzulian daude, Portugalen

Alentejoko Itzulian dabilta lehiatzen Mikel Aristi eta Julen Irizar bergararrak. Eguaztenean, lehenengo etapan, Aristi 12. helmugaratu zen. Gaur, egubakoitza, 197 kilometroko etapa izango dute Elvas eta Ponte de Sor artean. Bestalde, astean albiste izan da Euskaltel-Euskadi taldea Espainiako Itzulirako gonbidatu dutela.



Bergararrak denboraldiaurrean. EUSKADI

## Multzoko liderrak dira Soraluze BKE taldeko mutilak

Gipuzkoako lehenengo senior mailan bigarren fasea jokatzeko dabilta, eta, jokaturako bost partiduetatik lau irabazita, bergararrak multzoko liderrak dira. Bergararrek, baina, oraindik bide luzea dute egiteko, faseari bederatzi jardunaldi geratzen zaizkio eta. Zapatuan (18:00), Donibaneren kantzara jokatu dute, Pasaian.



Pulporen kontrako partiduan. GOIENA

# "Abestietako hitzak gaur idatzi ditugula dirudi"

**ANDER ELORZA** FLYSHIT TALDEKO GITARRA JOLEA

Bergarako hardcore musika taldeak 25. urteurrena ospatuko du zapatuan –19:30, kartzela zaharra–; Gaizkiñe taldekoak ere igoko dira oholtzara

**Xabier Urtzelai** BERGARA

Angiolillo liburutegiaren berri-naugurazioaren baitan, musika jaialdi berezia antolatu dute zapatarako –19:30, kartzela zaharra–. Izan ere, eszenatoki horretara gehien igo den taldeetako batek, Flyshitek, urteurren borobila ospatuko du. Ibilbide luzea egin dute, eta, hala ere, Bergarako *euli kaka* fresko dago, baita garai batean idatzitako hitzak ere: *Milaka morroi armatu*, *banketxeetan kontu amagabeak dituzten marrazoei zerbitzatzen*. *Beraien armak mundu osoan zehar errugabeen aurka tirokatzen dituzte*. *Eta hala ere, herriaren alde dabilzala sine-tsiak*, *idatzi zuten Bizitza... baina nola bizi?* diskoko (2005) *Milaka morroi armatu* abestian. Zapatarako entseatzan dabilzala jaso dute GOIENAREN deia. **Duela 25 urteko entsegu egun batek izango zuen gaurkoarekin antzekotasunik?** Seguruena ez! Ja, ja, ja. Duela 25 urte, arratsalde osoa emango genuke lokalean, entseatzan, edo, beste barik, arratsaldea pasatzen. Gaur, ordu eta laurden egon gara. Laneko erreleboak direla, umeak direla... Presarekin ibiltzen gara denok. Duela 25 urte, instrumentuak jotzen ikasten gertatzen, eta orain...



Ander Elorza, kamerari begira, Txapa Irratiaren 30. urteurrenean (2014). GOIENA

Bueno, oraindik ere horretan dihardugu. Baina bai, gauzak dezente aldatu dira, bai.

**Hain justu, duela 25 urte, Errusiako tropak Txetxeniatik erretiratu ziren, eta Espainia OTAN barruan sartu zen...**

Garai bateko taldeetako hitzak hartzen badituzu, badirudi gaur egun idatzitakoak direla. Alegia, gauzak ez direla horrenbeste aldatu. Bestalde, hitzen bueltan nahikoa buruhauste izan dugu guk, ez dugu horretarako aparteko erraztasunik izan eta gai sozialei heldu izan diegu. Pro-

testa egiteko tresna moduan erabili izan dugu musika. Eta orain ere hitzekin arazoak izaten ditugu; alegia, zelan kontatu garai batekoak ziren arazo berberak gaur egun... Ze hitz jarri horri... Hori izan da, seguruena, gure puntu makala.

**Gauzak modu konkretu batean egin dituzue urte hauetan guztietan.**

Bai; *do it yourself* esamoldea gure egin dugu. Indarguneak sortzen ahalegindu den musika taldea izan gara, gauzak gure kabuz egin ditugu, gure erara, baina, aldi berean, saiatu gara

loturak sortzen beste talde batzuekin, beste gaztetxe batzuekin...

**Zer prestatu duzue zapatarako?**

Zerbait berezia izango da. Berez, iaz sortu zitzaigun urteurrena ospatzearen ideia, baina pandemia tarteko atzeratzen joan da kontua. Taldean esan ohi dugu 1996an hasi ginela jotzen, lehenengo kontzertua urte hartan eman genuela uste dugu, baina hori ere ez daukagu oso garbi; ja, ja, ja. Hala ere, urte hauetan taldeko kide izan diren ia guztiak etorriko dira kontzertura. Zorituraz, Azkaiter Pelox kanpoan dabil eta ezingo da etorri, eta oparixkoak ditugu guztiendako. Eta gaurko entseguan, esaterako, garai bateko abesti zaharrak errepasatzen ibili gara; horiek ere lekua izango dute zapatuan. **Non dago 25 urtez bizirauteko sekretua? Izan ere, taldea nahiko aktibo egon da denbora tarte horretan.**

Bai, gu ez gara geratu, egia esan. Baina esango nuke erritmoa gure bizitzetara egokitu dugula, eta hor egon dela gakoetako bat. Talde batzuek astero izaten dituzte kontzertuak, gu hilean kontzertu bat jotzearekin konformatu gara, ez gara batera eta bestera deika ibili. Halakoetan ez da erraza izaten, taldeko kide guztiek ez dutelako bizi-erritmo berbera, ezta nahi berberak ere. Beti egoten da kontzertu gehiago egin nahi dituen, edo denbora ateratzeko zailtasun handiagoa duena... Baina hor beti jokatu dugu errespetuz; azken batean, lagun talde bat gara. Bestalde, urte hauetan guztietan joan-etorriak egon dira, normala den moduan; gogoan dut Azkaiter Peloxek gurekin jotzen zuenean Erasmus ikasketak egitera kanpora joan zenekoa,

edota Eloi bateria jotzen ikas-tera AEBetara joan zenekoa, eta gero, Katalunian ere ibili zen... Horrez gain, jendeak beste musika proiektu batzuetan ere esku hartu du... Garrantzitsuena da oraindik gauzak egiteko gogoz gaudela.

**Pandemiak zelan harrapatu zintuzten?**

Bada, azkeneko diskoa nahiko aurkeztuta geneukan; alegia, lotuta genituen kontzertu guztiak emanda genituen eta abesti berriak sortzen hasi ginen orduan. Hala, bi urte hauetan ahal izan dugunean lokalean ibili gara, eta kontzertu batzuk egiteko aukera ere egon da tarte honetan. **Flyshitek, musika aldetik, bilakaera handia izan du?**

Baietz esango nuke. Gaur egun, ez dugu garai bateko hardcorea azkarrik egiten, eta, sustraiek hor jarraitzen badute ere, gure erreferenteak aldatzen joaten dira eta horiek ere eragina dute musikan. Eta, bestalde, instrumentuak hobeto menperatzen joan gara, beste melodia batzuk bilatzera joan gara... Badago eboluzioa, bai.

**Zein izan da taldearen momentu gorena?**

Zerbait esatearren, *Bizitza... baina zelan bizi?* diskoa atera genuen unea azpimarratuko nuke. Baina hasiera ere oso potentea izan zen; orduan Bergaran ez zegoen musika talderik modu aktiboan eta gogoan dut gure kontzertuetara jende mordoa joaten zela.

**"GARRANTZITSUENA DA 25 URTE PASA DIREN ARREN GAUZAK EGITEKO GOGOZ GAUDELA"**

## Poesia musikatua gaur eta kontzertua bihar Seminarixoan

'Oroitzen hondarrak nota txikietan' lana erakutsiko dute gaur, piano soinuaz, kantuz, irudiz eta poemaz lagunduta

**X.U. BERGARA**

Gaur, egubakoitza –20:00, Seminarixoa–, piano soinuaz, kantuz, irudiz, poema errezitaldiz eta argiztapen giro intimoaz osatutako ordubeteko emanaldia egingo dute Izaskun del Cerrok

–pianoan– Nerea Zuloagak –kantuan–, Mikel Etxaburuk –poemak errezitatzen– eta Yera Sanchezek –irudiak–. Hain zuzen, Mikel Etxabururen *Ahaztu baino lehen*, ama poema liburuan oinarritutako emanaldi musikatua da.

Sarrerak, 8 eurotan, *seminarixoa.eus* atarian.

**Islabat zapatuan**

Zapatuan, berriz –20:00, Seminarixoa–, Islabat taldeak kontzertua eskainiko du. Asier Olabarrietak etxean sortutako abesti sorta plazaratuko du eta ondoan izango ditu Andoni Alonso –baterian–, Jesus Jimenez –gitarra, sinteak, klarineta, koruak– eta Aitzol Mujika –baxua, koruak–. Sarrerak, 8 eurotan, *seminarixoa.eus* atarian.



Nerea Zuloaga, Mikel Etxaburu eta Izaskun del Cerro. 'EUSKADI.EUS'

*aek*  
22.korrika  
**ZUZENEKO  
JARRAIPENA  
ZURE  
TELEFONOAN**

APIRILAREN 1EAN, EGUBAKOITZA, 11:15ETIK AURRERA  
DEBAGOIENA, KILOMETROZ KILOMETRO, ZUZENEAN



**goiena**<sup>''</sup>  
Zu hemen zaude.

# Kolektorearen bigarren zatia aurten egingo dute

Antzuolako hondakin-uren kolektorea luzatzeko obren lizitazioa egin berri du Ura Agentziak, eta jada argitaratua dago Buletin Ofizialean. Behin obra esleituta, lanak bost hilabeteko epean egin beharko dira. Proiektuak 605.000 euroko aurrekontua du

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako ur-zikinak Bergara-ramateko kolektorearen bigarren faseko lanak esleitu ditu Ura Agentziak. Hala, tarte berriak jarraipena emango dio Antzuola eta Bergara arteko A-636 errepidearen parean 2019ko martxoan egindako kolektorearen lehen zatiari.

Hirugarren zatia, aldiz, Antzuolako hondakin-urak Bergarako araztegiarekin lotuko dituen, etorkizunean egitea aurreikusten duela azaldu du Ura Agentziak. "Horretarako, beste tarte bat eraiki beharko da; oraingoz, ez dago epe jakinik, baina egin beharreko lanak dira", nabarmendu dute.

## Bost hilabeteko lanak

Behin obra esleituta, eta dena ondo bidean, lanak bost hilabetean egingo direla esan du Ura Agentziak. 605.000 euroko aurrekontua dute, BEZa barne.

Proiektuak Antzuolako hondakin-uren egungo kolektoreko

urak hartuko ditu ibaiaren ezkerrean, egungo ibaira isurtzen den puntutik gora, Ezkitza erreka Antzuola ibaiarekin bat egin aurretik. "Egin beharreko lehenengo jarduketa errepideko hormigoizko hesiak kentzea izango da, ibaira behin-behinean sartzeko eta, horrela, proiektuan aurreikusitako lanak egin ahal izateko. Gutxi gorabehera, 2.700 metro kubiko material aterako dituzte sarbide hori gauzatzeko. Material hori behin-behinean pilatuko da, eta obrak amaitu ondoren, egungo kokalekuan birjarriko dira. Ibaira sarbidea prest utzitakoan, egungo kolektorea luzatu egingo da", azaldu du Ura Agentziak.

## BEHIN LANAK ESLEITUTA, ASMOA DA BOST HILABETEKO EPEAN OBRA AMAITUTA EGOTEA

Hartara, lanak aurrera atera ahal izateko, egungo hoditeria bideratu egingo dute Antzuola ibaiaren, Ezkitza erreka eta ezkerreko ertzeko ezpondaren arteko plataforma txiki batera. Gero, kolektorea ertzez aldatuko da, eta, ibilguaren eskuinaldera gurutzatu ondoren, harri-lubeta baten baretik abiaraziko da, ibaira heldu aurretik –behin-behinean, hondakin urak Bergarara bideratu arte–.

"Lan horiek osatzeko, kolektorearen bidegurutzak erasandako ezkerreko ertza babestu egingo da, eta erabiltzeari utziko zaion kolektore-tartea eta bertan dauden hormigoizko elementuak –eskailerak, lauzak eta abar– kendu egingo dira. Era berean, erreka-urak ibaira aise jariatzeko eta arrain-fauna errazago igartzeko moduko igarobide malguagoa egingo da", argitu du Ura Agentziak.

Asmoa da behin lanak esleituta lanei ekitea eta aurten eginga egotea, hain zuzen.



BERNARDO KORTABARRIA

## Vicente eta Martinez txapelak

Mus Txapelketako irabazleak Serafin Vicente eta Anselmo Martinez izan dira; bigarren Miren Iturbe eta Jesus Kortabarria *Kaxeta* sailkatu dira. Gipuzkoako Txapelketa martxoaren 26an eta 27an jokatu dute, Seguran. Euskal Herri mailako finala, berriz, apirilaren 9an izango da, Baigorri. Guztira, hamahiru bikotek parte hartu zuten Ongi Etorriko kanporaketan.

## Herriko elkarteek bihar jasoko dituzte trasteak Olarandik

Olaran berriz ere ateak irekitzear dago. Horregatik, Udalak elkartei laguntza eskatu die eraikinean gordetzen dituzten materialak eta gainerakoak garbitu, antolatu eta kentzeko. Hala, eta elkarri trabarik ez egiteko asmoz, talde bakoitzeko bi pertsona joatearekin nahikoa izango dela jakinarazi du. Bihar, 08:30 aldean egingo dute garbiketara.

## 'Sendabelarrek dakitena' liburuaren aurkezpena

*Sendabelarrek dakitena* liburua kaleratu du Garbiñe Larrea naturopatak. Liburu honek, guztira, 45 sendabelarren propietateak ezagutzeko eta osasunaren mesedetan erabiltzeko informazio zehatza jasotzen du bere baitan. Aurkezpena hilaren 22an, martitzena, egingo du Larrea idazle urnietarrak, Torresoroan, 18:30ean.

## GORA ETA BEHERA



## Zaborra 'pump track' parke berrian

Egin berri duten *pump track* parkearen lehen erabilerarekin batera zaborra pilatu izana salatu du antzuolar batek: "Gauzak ekarritako bidetik berriro eramatea hain zaila al da?".



A-363 errepidea, kolektorearen bigarren zatia egiten hastear diren tartea. M.A.



Arrolako kideak Jentilaitzen. ARROLA

# Izan direnei eta datozeinei gorazarre

Sasoi betean bizi du Arrola elkarteak 50. urteurrena. Gaur egunera arte lanean tinko jarraitu dutenei omenaldia egin diete Jentilaitzen, baita belaunaldi berriei eta gogotsu datozeinei ere. Guztira, 51 haritz eta pago landatu dituzte horiei omenaldia egiteko

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Hainbat urtez Antzuolako zuhaitz landaketa egunaren ohitura galduta egon den arren, aurtun berreskuratu dute Arrolako kideek 50. urteurrenaren baitan. Guztira, 51 haritz eta pago landatu dituzte, giro ederra lagun zutela, Jentilaitz inguruko belardietan, Trekutz azpian. Eta etorkizunera begira ere jarri

direla azaldu dute Arrolako kideek: "50 zuhaitz iragana irudikatuz eta beste bat etorkizuna adierazteko landatu ditugu. Orain arteko eta datozeinei omenaldi gisa egindako ekintza izan da".

Landatutako eremua itxitura baten bitartez itxiko dute elkarreko kideek, eta Arrolaren helburua izango da sartutako zuhaitzak ondo erlaldatzen zaintzea.

Baita zuhaitzontzaz hazkundera urtez urte zaintzea ere.

## Liburu aurkezpena

Hilaren 24an, Arrolaren ibilbidea eta hainbat testigantza jasotzen dituen *Arrola 50 urte mendiz mendi* liburuaren aurkezpena egingo da Torresoroan, 18:30ean. Askotariko testigantzak dituen ikus-entzunezkoa eskainiko da.

## Dantzaren bitartez, emozioak azaleratu dituzte Torresoroan

Askotariko adinetako emakumeek hartu dute parte dantza tailerlean, eta "oso aberasgarria" izan dela diote

## M.A. ANTZUOLA

"Erabat arrakastatsua" izan da Blanca Carrasco dantzariak Torresoroan gidatutako dantza tailerra. "Askotariko adinetako emakumeek hartu dute parte, eta hori oso aberasgarria izan da guztiontzat. Niri asko gustatu zait hori", azaldu du. Besteak beste, inprobisazioa landu dute, eta guztien artean osaturiko performance batekin bukatu.

"Askotariko adinetako emakumeek hartu dute parte saioan. Gazteenak 18-20 urtekoak ziren; gehienak, 40-45 urtekoak, baina erretiratu batzuk ere bazuden, eta hori asko gustatu zait", dio Carrascok. "Lehenik eta behin, azaldu diet ni ez naizela terapeuta, dantzaria baizik, eta dantzaren esparrutik egin dugu lanketa. Izan ere, dantzak badu osagai terapeutiko bat, eta, era berean, sortzailea da".



Dantza garaikide saioa. IMANOL SORIANO

## Saio gehiago

Martxoaren 8aren bueltan egingo den saioa izan da, eta parte-hartzaileak "oso gustura" geratu dira. Hori dela-eta, gehiago egiteko eskaera egin dute, eta Blanca Carrasco bera ere prest azaldu da.

## Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa martxotik maiatzera

Bideberri mankomunitateak antolatuta, zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa eskainiko dute. Martxoaren 23tik maiatzaren 25era bitartean izango da, Olaranen, eguaztenetan, 17:15etik 18:45era bitartean. Izena emateko azken eguna martxoaren 21a da, eta udaletxean eman behar da; plazak mugatuak dira -kontu korronte zenbakia eraman-.

## 'Sendabelarrek dakitena' liburuaren aurkezpena

*Sendabelarrek dakitena* liburuaren aurkezpena egingo du Garbiñe Larrea naturopatak. Liburuan, 45 sendabelarren propietateak ezagutzeko eta osasunaren mesedetan erabiltzeko informazio zehatza dago. Sendabelarrok naturalak izan arren kalte egiteko gaitasuna ere badutela dio. Hilaren 22an, izango da solasaldia, Torresoroan, 18:30ean.

## Erreleboari eusteko gertu

Guztira, hogeita lau Arrolazale -heldu nahiz ume- elkartu ziren Jentilaitzeko zuhaitz landaketan parte hartzeko domeka goizean. Ondoren, salda eta txorizoa hartu zuten Lakiriolako Kimu Berri elkartearen.

Gaztetxoek, aitzurra eskuan, ekin zioten zuhaitzak landatzeari, Arrola Mendizale Elkartearen erreleboa gertu dagoen adierazle.



Umeak zuhaitzak landatzen. ARROLA

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

MUJKA  
HARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34

# Berritu ostean, zabalik da berriz betiko kontsulta

Debagoieneko ESik azaroan abiatu zituen Elgetako kontsultategia berritzeko lanak. Ordutik, medikuak eta erizainak aldameneko lokalean artatu dituzte pazienteak. Lanak amaituta, orain dela astebete itzuli da zerbitzua betiko lekura

## Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Elgetako kontsultak bazuen berritua izateko premia. Urte luzez interbentzio gutxi batzuk egin dira, eta nabaria zen. Lau hilabeteko lanen ostean, barikuan estreinatu zuten zerbitzu berria elgetarrek. Debagoieneko ESiko zuzendari ekonomiko Jaime Ruiz de Eginok azaldu du 40.000 bat euroko inbertsioa izan dela, gutxi gorabehera. "Saiatu gara ambulatorioa erabat eraberritzen. Irisgarritasuna izan da lehentsitako gaitako bat, eta orain, automatikoki zabalitzen den atea dago sarreran. Osasun-zentroaren irisgarritasuna hobetzeaz gainera, egokiagoa da mugikortasun-arazoak dituzten pertsonentzat", azaldu du. Desagertu da, beraz, hainbat pazienterendako hain pisutsua zen lehengo ate zaharra.

## Eraginkortasun energetikoa

Eraginkortasun energetikoa ere kontuan izan dute Debagoieneko ESiko arduradunek. "Arotzeria osoa metalikoa da orain, eta leihoak egokiagoak dira. Argiztapen osoa, berriz, led motakoa da", azaldu du Ruiz de Eginok. "Horrekin batera, kontsulta guztia margotu da, zoruak leundu dira eta altzari guztiak aldatu dira".



Debagoieneko ESiko zuzendari ekonomiko Jaime Ruiz de Eginok, Elgetan. L.Z.L.

Espazioaren antolaketan ere egon dira aldaketak. Sendagilearena zen gelan erizaina dago orain, eta alderantziz. "Espazioa birpentsatu dugu. Gelen tamainarengatik egin dugu kontsulten aldaketa. Erizainak tresneria eta gailu gehiago behar ditu, eta espazio handiagoa edukitzea komeni zen. Tiradera berriak daude orain, eta biltegitzeko armairu modernoagoak. Tresneriari dagokionez, egoera onean zegoena mantendu egin dugu, baina zaharkitua zegoena ordezkatu egin dugu".

Kontsultak lekuz trukatzear gainera, distribuzioa ere aldatu egin da. "Gelen atzeko aldean jarri ditugu bai medikuaren bai erizainaren mahaiak. Hainbat kexa genituen egongelatik kontsulta barruko elkarrizketak entzuten zirela-eta, eta kontua da sendagilearen mahaia, esaterako, ate ondo-ondoan zegoela. Atzeko aldean jarri izanak bermatuko du pazienteen pribatasuna".

Itxarongelan ere aldaketak izan dira. Jarlekuak, esaterako, berriak dira, eta kontsultategian



Itxarongelan leiho eta jarleku berriak daude, eta biltegitzeko armairua. L.Z.L.



Kontsulta biak lekuz aldatu dituzte, eta orain, erizainak du gela handiena. L.Z.L.

sortzen diren hondakinak leku seguruan biltegitzeko espazioa dago orain. "Bila etorri bitartean, leku kontrolatu batean egon behar dute hondakinek".

## Argitasunean alde handia

Elena Larramendi da Elgetako sendagilea. Pozik agertu da kontsultategian egindako hobekuntza lanekin. "Batez ere, argitasunean alde handia nabaritu dugu. Pazienteek ere askotan esaten didate", adierazi du.

Ruiz de Eginok Kutxabanken eta Elgetako Udalaren laguntza

eskertu ditu. "Lanek iraun duten bitartean aldameneko lokalean jarri dugu kontsulta; Kutxabanken bulegoa zegoen espazioan, alegia. Eskerrak eman nahi dizkiot Kutxabanki, lokala erabiltzeko aukera eman izanagatik, eta baita ere Elgetako Udalari, lanekin hastekoak ginela jakin bezain pronto laguntzeko prest izan delako. Kontsulta lekuz aldatzeko espazio bila ibili ginenean, Kutxabaneko ardura-dunen kontaktua pasa ziguten, eta horrek asko erraztu zigun berrantolaketa".

## Korrika Lagun kanpaina abiatuko du orain batzordeak

Egunotan jasoko dituzte informazio gutunak herriko tabernariet, dendariet, elkarteet eta enpresek

## L.Z.L. ELGETA

Poliki-poliki, gauzak ari dira forma hartzen, eta herritarren lehen erantzuna ona izan da. Korrika dendak 1.200 bat euro atera zituen material salmentarekin. Batzordeko kideek, orain,

Korrika Lagun kanpainako gutunak banatuko dituzte herriko tabernetan, dendetan, elkarteetan eta enpresetan.

Baiezatatuta dago, bestalde, apirilaren 1ean Herri Korrika izango dela Elgetan. 18:30ean

abiatuko da eta, 2019an bezala, herriko eragileek eskutik eskura ibiliko dute lekukoa. Batzordeak eskatu du parte hartzea lehenbailehen baieztatzea, laster erabakiko baitira bai ibilbidea bai eragile bakoitzari egokitu-tako zatia. Eskolak Korrika Txikia ere egingo du; apirilaren 8rako iragarri dute.

Hurrengo Korrika batzordea hilaren 30ean izango da. Batzordearekin harremanetan jartzeko nahikoa da [korrikaelgeta@gmail.com](mailto:korrikaelgeta@gmail.com) helbidera idaztea.



Herri Korrika, 2019an, Salbador kalean behera. L.Z.L.



# "Euskarara gerturatzeko bideetako bat kultura da"

BERTOL ARRIETA IDAZLEA

Zarauzarrak 'Geuretik sortuak' programarekin Zuian egindako egonaldiaren ostean idatzitako nobela aurkeztuko du martitzenean, 18:30ean, liburutegian

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Donostian bizi da Bertol Arrieta (Zarauz, 1975). Udaberrian hogeitau eguneko egonaldia egin zuen Zuian, eta *Abiatzea da zai-lena* nobela da emaitza.

**Zer kontatzen duzu nobelan?**

Nobela intimista da. Emakume bat da protagonista. Irakasle izan zen Zuian, eta bertara bueltatu da hogeitau urte geroago. Badiñudi oporretan joan dela, baina egiazki zerbaiten bila joan da. Zeren bila joan den argitzen da nobelan.

**Oier Zuñigaren lantaldeak Elgetan egin bezala, zuk ere egonaldi artistikoa egin duzu; kasu honetan, Zuian.**

Bai, eta esperientzia oso polita izan da. Luxua da hogeitau egun edukitzea beste ezertan pentsatu gabe nobela bat aurrera eramateko. Gero, Arabako txoko hori ezagutzeko aukera izan da. Hainbat herritxok osatzen dute Zuia -Lukiano, Murgia, Giller-na...- eta guztietan izan naiz. Donostian bizi den zarauzarrak batendako kontrastea handia da. Toki oso-oso berdea ezagutu dut. Dentsitate txikiko lekua da, eta beste erritmo batera bizi da jendea, baina denbora oparitu didate, eta zoragarria izan da. **Informazio bilketa lan handia egin duzu nobela idazteko?**



Bertol Arrieta idazle zarauzarrak bere lanlekuan. B.A.

## "NOBELA IDAZTEKO 30-40 BAT ELKARRIZKETA EGIN DITUT ZUIAN; LUXU HUTSA IZAN DA"

Ba, azkenean, 30-40 elkarrizketa egin ditut Zuian, eta bertako txoko asko ezagutu ditut. Lan pixka bat eman dut, bai. Hamar eguneko bi egonaldi egin nituen; horrela antolatzea erabaki nuen. Lehen egonaldian, informazio

orokorra bildu nuen. Donostia-ira itzuli eta zer egin nahi nuen argi edukita itzuli nintzen informazio gehiagoren bila.

**Eta zer-nolako harrera egin zizuten bertakoek?**

Oso ona. Elkarrizketa asko egin ditut eta jende asko ezagutu dut. Nobela ere aurkeztu dugu. Esperientzia oso polita izan da.

**Geuretik sortuak programari buruz zer esango zenuke?**

Oso interesgarria dela. Zuia ez da oso euskalduna, eta jendea euskarara gerturatzeko bide nagusietako bat kultura da.



Mendizaleen Plazan udal jabetzakoa den etxebizitzako sukaldia. IMANOL BELOKI

## Plazako etxebizitza ukrainarrei eskaintzeko eskatu du EAJk

Udal Gobernuari eskatu diote etxea Eusko Jaurlaritzaren Lehen Kontingentzia Planerako proposatzeko

**L.Z.L.** ELGETA

Iñigo Urkullu lehendakariak duela astebete aurkeztu zuen *Ukrainaren inbasioagatik lekualdatutako pertsonak hartzeko Euskadiko Lehen Kontingentzia Plana*. Elgetako jeltzaleek uste dute "Errusiaren inbasioaren aurrean" Ukrainako herriari "lagundu" egin behar zaiola. Hain zuzen ere, erreferentzia egin diote 1936ko gerrak elgetarren memorian duen lekuari. "Elgetarren memorian ondo jasota dago gerrak ekarri zuen sarraskia (...) Orain, guri tokatzen zaigu besteek gurekin egin zuten lana egitea", azpimarratu dute.

Udalak herriko gazteendako alokairu sozialeko etxebizitza partekatua egin du aurretik medikuaren etxea zen udal jabetzeko etxebizitzan. "Gazteen artean ez du arrakasta handirik izan ekintza horrek, eta, gaur egun Ukraina bizitzen ari den

egoera ikusita, premia handiak daude etxerik eta herririk gabe geratu diren milaka eta milaka errefuxiatu ukrainarrei laguntzeko", azaldu dute jeltzaleek.

**Jeltzaleak, ukrainarrekin bat**

EAJko ordezkariak bat egiten dute ukrainar herriarekin. "Ukraina nazio bat da, bere kultura, hizkuntza propioa eta herri izateko eskubide guztiak". Horrekin batera, erabat gaitzesten dute Errusiaren erasoaldia. "Gaitzesten dugu Putin diktadore basatiaren inbasioa eta Ukrainan sortzen ari den sarraskia. Basati horrek ez ditu ez ospitaleak, ez umeak, ez giza korridoreak eta ez Nazio Batuen betebeharrak errespetatzen. Elgetan badugu orain aukera ahal dugun neurrian laguntzeko".

Udal Gobernutik ez diote, oraingoz, eskaera honi erantzunik eman.

## OHARRAK

### Neska-mutikoendako ipuinak liburutegian

Gaur, 17:30ean hasita, hiru ipuin saio. Izena eman behar da.

### Mendi irteera eta sagardotegia, domekan

Kantsatzeke mendi taldeak antolatuta, mendi buelta Arantzazun eta sagardotegia Zerainen. Taldea 08:00etan batuko da, plazan.

### Podologoa erretiratuendako

Xalbadorpek antolatuta, podologo zerbitzua astelehenean.

### Hondakin bilketa zerbitzuak

Baserriko plastiko bilketa martitzenean eta garbigune ibiltaria eguaztenean. Ohiko leku eta ordutegiarekin.

## Kaleko erabilerak behera egin du

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (Uema) eta Soziolinguistika Klusterrak *Hizkuntzen erabileraren kale neurketa* egin zuten 2021ean. Elgetan maiatzean egin ziren kale neurketak eta bi erakundeek asteon eman dituzte neurketaren emaitzak. Esan behar da datu kezagarriak daudela Elgetari dagokionez. Hain zuzen, 14 eta 25 urte

arteko gazteak dira, modu nabarmenean, euskara gutxien erabiltzen dutenak (%36,5); herriko batez bestekoa baino 21,4 puntu gutxiago, zehazki. Txanponaren beste aldean, haurrak dira gehien erabiltzen dutenak (%73,10). Eta 25-39 urte arteko heldu gazteek (%69,8) 65 urtetik gorakoek baino (%53,8) gehiago erabiltzen dute euskara.

Adinaren aldagaia adierazgarria bada, esan behar da euskararen erabilera, orokorrean, ia lau puntu apaldu dela Elgetan, 2017an egindako neurketako datuekin alderatuz gero. Sexuei dagokionez, emakumeen erabilera (%61,3) gizonenakoa (%54,1) baino zertxobait handiagoa da.

Gaiak merezi du azterketa sakonagoa Elgetak arnasmune izaten jarraitzeko.



Julen Korkostegi, Alazne Aierbe, Jon Lopez, Iker Oñate, Anik Zubizarreta eta Onintza Andres, gazteleku aurrean. O.E.

## Gaztelekuko gazteek esandakoa jaso dute

Pandemiak eragindako egoera emozionala ezagutzeko prozesu parte-hartzailea egin dute eta gaztelekuko zerbitzua hobetzeko dituzten ideien eta ekarpenen inguruan ere galdetu zaie. Prozesu "aberasgarria" izan dela diote udal ordezkariak eta hezitzaileak

### Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Gazteek pandemian zer emozio, sentipen, izan dituzten jakiteko lantze saioak egin dituzte Oñatiko gaztelekuan joan den maiatzetik ekainera. Hezitzaileen eta gazteen arteko lana izan da, taldeka, eta hitzen eta jolasen bitartez. Eguneroko jardunean landu dute gaia Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. maila artekoekin, Kuboko erabiltzaileekin, eta aldizkako bilera luzeagoak egin da DBHkoekin, Topaguneko erabiltzaileekin. Emaitzak aurkeztu dituzte astean, eta "prozesu oso aberasgarria" izan dela aitortu dute udal ordezkariak eta hezitzaileak.

### Amorrua eta poza

Aberasgarria izanaren arrazoietako bat "modu naturalean eta gertutasunez" egin izana dela uste du Anik Zubizarretak, Udaleko Partaidetza batzordeburuak: "Eurek ondo ezagutzen duten espazio batean egin da prozesua, ondo ezagutzen dituzten hezi-

tzaileekin. Azpimarratzekoa da hori". Hezitzaileek baieztatu dute gazteek eroso hartu dutela parte prozesuan. "Ederra izan da bizitzea nola berba egin duten gazteek, euren sentipenak eta bizipenak nola kontatu dituzten besteen aurrean, lasai eta inor epaitu barik", dio topaguneko hezitzaile Julen Korkostegik. "Amorrua, tristura edo haserrea adierazi dute, baina baita itxaropena eta poza ere", gaineratu du Alazne Aierbek, kuboko hezitzaileak.

**Hobetzeko ekarpenak, martxan** Gazematikan kokatzen da prozesu honen abiapuntua, Gipuzkoako Udalak eta Aldundiak osatzen duten egitasmoan. Gaz-

**TOPALEKUA  
ORDUTEGIZ KANPO  
ERABILTZEA ETA  
GUNEA APAINTZEA  
DIRA BI EKARPEN**

teen emozioak ezagutzea zen erronketako bat, eta horiek ezagututa zelan lagundu bestea. "Gaztelekuko erabilera zelan hobetu jakin gura izaten dugu, eten barik izaten dugu hori go-goan, eta prozesu natural honetan ere jaso ditugu ekarpenak", dio Jon Lopezek, Gazteriako udal teknikariak. Pantailak eta bideo-jokoak eskatu dituzte, esaterako, baina gehiago izan dira kanpora lo egitera joateko planak eta jolasak eta irteerak.

Ekarpen horietako batzuk gauzatu dira dagoeneko eta beste batzuk horretarako bidean daude. "Kuboa terraza jartzen da eguraldi onarekin, adibidez, eta itxita egon diren goiko pisuko gelak zertarako erabili ere ari gara aztertzen. Topagunea ohiko ordutegitik kanpo ere erabiltzea da beste eskaera bat, eta hori ere aztertuko dugu. Kuboko ordutegia, berriz, zabalagoa izango da apiriletik aurrera", esan du Udaleko Gazteria batzordeburu Iker Oñatek.

## Argindarra eta gasa ordaintzeko hobariak eskatuko ditu EAJK

Gizarte bazterketa arriskuan dauden herritarrendako lirateke, eta dirua, Ur-jauziak enpresatik jasotakoa

### O.E. OÑATI

Oñatiko alderdi jeltzaleak gizarte-bazterketa arriskuan dauden oñatiarrentzat aurreikusitako laguntza handitzea eskatuko du, bereziki, pertsona horiek beharrezkoa duten hobaria jaso dezaten argindarraren eta gasaren etengabeko igoyerari aurre egin ahal izateko. Hobari horietako dirua Udalak Ur Jauziak enpresatik jasotzen duen onuratik ateratzea proposatu du EAJK.

Egungo errealitateak energia berriztagarrien eta horien eraginkortasun energetikoaren aldeko apustuaren beharra dakarrela diote jeltzaleek; gogora ekarri dute 1989an orduko Udalak Olateko Ur Jauziak erosteko hartutako erabakia, Eli Galdos alkate zela, eta gaineratu dute erabaki hark oraindik "ekarpen handia" egiten diola Udalari: "Joan den urtean, esaterako, Ur

Jauziak enpresaren ekitaldia azken urteetakoaren antzekoa izan zen, baina, merkatuko KW-h prezio altuari esker, 1,4 milioi euro inguruko aparteko diru-sarrerera izan zuen". Hain zuzen ere, Ur Jauziak enpresak ematen dituen onurak argindarra eta gasa ordaintzen laguntzeko hobariak ematen erabiltzea da jeltzaleen proposamena.

### Eguzki-plakak

Era berean, EAJK adierazi du Ur Jauziak "aitzindaria" izan zela eraikin publikoetako zenbait sabaitan elektrizitatea ekoizteko eguzki-plakak instalatzen: "Gaur egun ere, teknologia honetan inbertitzen jarraitzearen aldeko apustua egiten dugu, ekoizpenaren dibertsifikazio gisa. Etor-kizuna egungo erabakietan hasten da eta tinko jarraituko dugu lanean".

## Biharko duatloiak eragina izango du hainbat errepidetan

Oñatiko duatloia egingo da zapatu arratsaldean, martxoak 19, eta horrek aldaketak ekarriko ditu herriko kale batzuetara. 16:45etik 18:00ak arte, erabat itxita egongo dira Arantzazuko Ama eta Udana arteko errepidea, eta horrek eragina izango du Olabarrietako, San Martingo, Berezaoko eta Murgiako errepideetan.

## Oñatiko Maibi denda saritu du Gipuzkoako Bazkondeak

Gipuzkoar Merkataritza Enpresa Sarien 28. edizioa izan da aurtengoa, eta bi debagoiendar saritu dituzte. Oñatiko Maibi Dekorazioa eta Ehungintzak Retail Euskal Eskola Saria jaso du, "etengabe kontsumitzailearen ohituretara egokitzeko duen gaitasunagatik eta Retail Euskal Eskola programan egindako lanagatik".

## Hilaren 23rako jaso gura dituzte Korrika laguntzeko ekarpenak

Korrika egingo dituzte Oñatitik Elorregira bitarteko zazpi kilometroak apirilaren 1ean, han Korrika ofizialarekin bat egiteko. Elorregin Oñatik izango duen kilometrorra bideratuko da Korrika diruz laguntzeko Oñatin egingo den ekarpena. Martxoaren 23a aurretik jaso gura dituzte eskaerak: [korrikadebagoiena@gmail.com](mailto:korrikadebagoiena@gmail.com).

## Arte udalekuetarako begirale izateko epea gaur amaitzen da

Ekainaren 27tik uztailaren 22ra egingo dira arte udalekuak Oñatin, eta begiraleak hartzeko izen ematea gaur, egubakoitza, amaitzen da. Bi bide hauekiko bat erabiltzaile eman daiteke oraindik izena: telematikoki, udaleko webgunean sartuta edo zuzenean udaletxeko HAZ bulegora joanda; kasu horretan, aurrez hitzordua eskatu behar da.

# Armarria, dagozkion ezaugarriekin berrituta

Herriko armarria eta bandera eguneratzeko lana nola eta zein irizpide jarraituta egin duen azaltzera etorriko da Eusko Ikaskuntzako kide Rosa Ayerbe aditua astelehenean Oñatira. Santa Ana antzokian emango ditu azalpenak, 18:00etan

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

Gipuzkoako Toki Erakundearen Erregistroa herrialdeko udalari guztietako informazioa eguneratzen ari da, eta, Udalari egindako eskaerari erantzuteko, herriko armarriaren eta banderaren inguruko azterketa egiteko eskatu zion Udalak Eusko Ikaskuntzari. Oinarrikoak diren irizpide edo ezaugarri batzuk ez dituztela betetzen ikusita, koloreak eta forma horien artean, eguneratu egin ditu Rosa Ayerbe historialari hernaniarrak.

## Armarria eta bandera

Armarriari lotuta, forma eta koloreak zuzendu dizkio. Ayerbek txostenean jasotzen duen moduan, armarriaren formak borobildua izan beharko du, forma *espainiarra* izan behar du, eta ez puntaduna, Frantziaren erabiltzen duten modukoa. Koloreak ezin dira bata bestearen gainean erabili, ezta esmalteak ere, eta hori da orain artekoan gertatzen zena: esaterako, kolore beltzeko arranoa gorriaren gainean edo urre koloreko oreina zilar koloreko zelaiaren gainean. Gainera koroa, berriz, jartzekotan, itxia izan beharko luke egungo irekiaren orde, eta inguruko erramu itxurako apaingarriak ere "errealagoa" izan



Eusko Ikaskuntzaren proposatutako aldaketekin burututako armarria eta bandera. E.I.

beharko luke. Kanpoko bi elementu horiek, baina, koroa eta erramua, aukerakoak dira, eta Udalak horiek gabeko armarriaren alde egin du.

Banderari dagokionez, egungo estandarte da Ayerberen esanetan, ez bandera, eta bere proposamena da: hitzik gabeko eta aspa formako gurutze gorria duen bandera zuri laukizuzena. Hau da, orain arteko *Oñati hiri bikain eta leiala* esaldi barik. Banderaren erdian kokatu beharko litzateke armarria. Txostenak jasotakoak ikusita, argazkikoa

da Eusko Ikaskuntzaren proposamena. Hilaren 31ra arte egongo da aukera ikusteko eta alegazioak jartzeko. Oñatiko Udaleko udalbatzak onartu beharko du ostean osoko bilkuran, eta Aldundiak gero.

1770ekoa da Oñatiko armarria, urte hartako maiatzaren 9ko udal aktan jasotzen denez, udaltxea eraiki zutenean. 1980an, Xabier Zelaiak 1851tik erabilitako udal zigiluen ikerketa bat egin zuen, eta aldaketa handirik ez zela egon ikusi, kanpoko apaingarrietan salbu.

## Emakumeen Etxea egokitzeko lokala erosi gura du Udalak

Gutxienez 400 metro koadroko azalera duen lokala edo eraikina erosi gura du Udalak Emakumeen Etxea proiektua gauzatzeko, eta 295.112 eurotan finkatu da gehienezko prezioa. Kokapena, azalera, argiztapen naturala izatea, espazioaren ikusgarritasuna eta erabiltzaileen intimitatearen arteko oreka, isolamendu akustikoa, herriko bestelako baliabideekiko hurbiltasuna eta barne-espazioaren banaketa dira baloratu dituzten ezaugarrietako batzuk, eskaintza ekonomikoaz gain. Martxoaren 30a aurretik jaso gura ditu Udalak Emakumeen Etxerako lokala erosteko eskaintzak.

## Hikalaguna taldeak berriz hasi dira elkartzten

Hainbat astetako etenaren ostean, berriz hasi dira elkartzten Hikalaguna taldeak. Hiru hitzordu dituzte eginda: martitzenetan, 18:30ean, Errota okindegian; eta egubakoitzetan, 15:00etan Bizipozen eta 18:30ean Olakua tabernan. Talde irekiak dira eta gura duen herritar oro joan daiteke batera zein bestera beste herritar batzuekin batera noka eta toka praktikatzen.

Ekainerako, gainera, Hika Eguna antolatzea dute pentsatuta. Egitasmoa martxan jarztearekin batera hasi dira ospakizun egun hori antolatzen. Ekainean izango da, baina oraindik zehaztu barik dute zer eta non egingo duten.

NIRE USTEZ



ALAZNE GURIDI

## Zaintzaren alde!

Matia Fundazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatuta, Usurbilen aurten egoitza berri bat eraikiko da. 110 etxebizitza egingo dira 127 adinekorentzat, eta egoiliarrek autonomia eta arreta pertsonalizatua izango dute. Zentro berri horretan, etxebizitza kontzeptua berreskuratuko da eta komunitateari konektatua dagoen ingurune batean kokatuko da. Ongietorriak izan daitezela zaintza hobea baten alde egindako ahalegin guztiak.

Zaintza-sektoreak, berriz, duintasunez zaintzeko eskubidea bermatzen duen eredu bat eskatzen du. Sektorea pribatizatzeko joera nagusitzen ari omen da azken urteetan, eta bide honen arriskuak salatuta izan dituzte zaintzaileek. Izan ere, zaintza eta onura ekonomikoa ez datoz beti bat!

Gai honetan denok gaude inplikatuak, eta, nire ustez, zaintzaren alderdirik garrantzitsuena familia-harremanean jokatzen da. Menpekotasuna duten senideen aurrean, zer? Traste-zaharrak izango balira bezala tratatu edo maitasunezko zaintza eskaini? Zein da zure aukera?



**Gualbi**  
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA  
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK  
KONTU IKUSKARIAK

*Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!*



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com



Oñatiko Musika Banda, Aitor Biain Bidareren zuzendaritzapean, Zubikoan kontzertua eskaintzen. IMANOL SORIANO

# Familia osoarentzako bandaren kontzertua

'Peru eta otsoa' kontzertu pedagogikoa eskainiko dute Oñatiko Musika Bandak eta Banda Gazteak domekan, 13:00etan, Zubikoan. Gonbidatu bereziak izango dira: Miel Guridi narratzailea, Potx eta Izaskun, eta sorpresa gehiago ere iragarri dituzte

**Amaia Txinturreta Guridi** OÑATI  
Denboraldiko laugarren kontzertua eskainiko du domekan Oñatiko Musika Bandak, eta, oraingo honetan, pedagogikoa izango da. "Musika Bandak lehenengo aldiz egingo du horrelako bat. Umeak, gurasoak, aitona-amonak... Hau da, familia osoa erakarri nahi dugu. Publiko berri bat da guretzat, nahiz eta batzuk etortzen diren gure ohiko kontzertuetara ere. Alde horretatik, berezia da planteamendua. Banda Gazteak ere hartuko du parte domekan -aurten bigarren aldiz-, eta horrek 80 pertsonako banda bat sortzen du", adierazi du bandako zuzendari Aitor Biain Bidartek.

## Kontzertua, bi zatitan

Lehenengo zatian, *Peru eta otsoa* ipuina izango dute ardatz. Ipuin horren helburua da musika klasikoko instrumentuak haurrei ezagutaraztea, istorio baten bitartez. Pertsonaia bakoitza musika instrumentu batekin egon-

go da lotuta eta Miel Guridik egingo ditu narratzaile lanak. Musika eskolako Arantzazu Bikuña irakasleak adierazi du aurretik musika instrumentuen lanketa egin dutela eskolan 5 eta 8 urte bitarteko ikasleekin, eta domekan bertan ikusi ahaliko dutela emanaldia ikasle txikienek ere. "Ikusten dugu ikasleak motibatuta eta pozik daudela horrelako emanaldiekin", gaineratu du.

Bigarren zatian, lehiaketa moduko bat egingo dute marraski bizidunen kantuak eskainiz, eta, Potx pailazoaren eta Izaskun pertsonaiaren laguntzarekin, publikoan daudenek asmatu egin beharko dute bandakoak zein kantu ari diren jotzen.

**MUSIKA ESKOLAKO EK AURRETIK KLASEAN LANDUTAKOA ZUZENEAN ENTZUNGO DUTE DOMEKAN**

Musikarientzako erreperorioa ere ezohikoa izango da eta Biain zuzendariak gaineratu du Banda Gazteko taldekideak ere "prest eta motibazio handiz" daudela domekako emanaldirako. Guztira, 120 pertsona inguruk hartuko dute parte.

## Gonbidapenak

Sarrera doakoa izango da, baina gonbidapenak hartu beharko dira aurrez musika eskolan edota Txokolateixan. Domekan, 13:00etan, Zubikoako pilotalekuan izango da emanaldia. Biainek gaineratu du familia osoarentzat izango dela kontzertu "dibertigarria", musika ezberdina entzuteko aukera eskainiko duena, banda ezagutzeko ere balioko duena eta sorpresa ugari izango dituen ere bai.

Denboraldiko lehenengo kontzertura 400 lagun inguru joan ziren; azkenekora, 500. Beraz, pozik daude bandako taldekideak orain arte eskaini dituzten kontzertuen harrerarekin.



Gimnasia erritmikoko gaztetxoak, azken erakustaldian. LIDE OSINAGA

## Denboraldi hasiera zaila izan arren, badoaz indarrak hartuz

Gimnasia erritmikoko taldekideak ilusio bereziz ari dira prestatzen ikasturte bukaerako ekaineko erakustaldia

### A.T. OÑATI

Azken bi ikasturteak ez dira errazak izan gimnasia erritmikoko taldearendako. Pandemiak bertan behera utzi zituen entrenamendu guztiak, eta, aurten goari fundamentuz ekitea ere "zaila" izan den arren, "martxa hartzen" doazela adierazi du Lide Osinaga entrenatzaileak.

Gabonetan egin ohi izan duten erakustaldia Aratuste jaietara atzeratu behar izan zuten, baina, azkenean, horrenbeste denbora pasa eta gero, gimnasten etxekoek zuzenean disfrutatu ahal izan zuten erakustaldiarekin Zubikoan. "Umeek eskertu egin zuten erakustaldia normaltasunez egin ahal izana, denondako zaila izan da eta bidean gimnasta batzuk gelditu zaizkigu motibazio faltatik, baina bagoaz egoerari ahalik eta ondoen buelta ematen. Ilusiorik ez zaigu falta, behintzat", azaldu du Osinagak.

### Gaur egun, 50-60 gimnasta

Pandemiak behartuta, 50-60 gimnastara mugatu behar izan zuten kopurua taldean, eta gaur egun ere zenbaki horretan mugitzen da taldekide kopurua: "Gimnasta gehiago izan ditugu aurreko denboraldietan, baina badakigu zerbait orokorra dela eta beste talde batzuetan ere egoera bertsuan daudela. Pentsatu nahi dugu normaltasun handiagoga dagoen heinean gure entrenamenduak eta ikasle kopurua ere lehengora itzuliko direla".

Txapelketarik ez dute aurrera begira, momentuz, baina ekainean egingo duten ikasturte bukaerako erakustaldira begira gogoz daude ikasle guztiak. Osinagak gaineratu du kirola ezagutu nahi duenarentako ateak zabalik dituztela beti, eta, gimnasia erritmikoa ezagutzeaz gain, horrekin ondo pasatzea dela duten helburu nagusia.

## Futbol campusa Aloña Mendiren eskutik Aste Santurako

2020an antolatuta zuen lehenbiziko aldiz futbol campusa Aloña Mendik, eta bigarrenegun egingo du aurtengo Aste Santuan. Apirilaren 19tik 22ra bitartean izango da, lau egunean, 09:00etatik 13:00etara, eta 2013, 2012 eta 2011. urteetan jaiotako umei zuzenduta egongo da.

Futbolaz gain, joko tradizionalak eta kooperatiboak ere

egingo dituzte, hainbat udal instalazio erabilia; pilotalekua eta kiroldegiko kantxak, esaterako. "Futboleko oinarriko gaitasunak garatzeaz gain, ongi pasatzea eta bizitzarako beharrezkoak diren balioak barneratzea izango da helburu nagusia", diote campuseko antolatzaileek.

Plazak mugatuak dira eta ize-na eman edo informazioa eskatzeko helbide honetara idatzi behar da: [alonafutboludalekuak@gmail.com](mailto:alonafutboludalekuak@gmail.com). Prezioa 60 euro da.

# Prest du disko berria Broken Legacy taldeak

Dagoeneko hiru aurrerapen kantu argitaratu ostean, hilaren 27an publikatuko dute 'Hortzimuga' izeneko bigarren diskoa, hainbat musikariren kolaborazioekin, eta apirilaren 2an egingo dute lan berria estreintzeko kontzertua, gaztetxean

## Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI

Sei musikaririk osatzen dute 2017an sortutako Broken Legacy taldea: Aitor Atxak –ahotsa–, Unai Urkiak –baxua eta ahotsa–, Gorka Mondragonek –bateria– eta Asier Goitia, Pello Uriarte eta Josu Manuel gitarristak. Uda aldera grabatu zituzten disko berria osatzen duten zortzi kantuak, Asuako (Bizkaia) Chromaticity estudioetan, eta dagoeneko guztia prest dute publiko egiteko.

## Hiru aurrerapen kantu

*Ortizimuga* diskoa lehenengoaren "jarraipena" izango dela adierazi du Urkia taldekideak, baina gaineratu du oraingo



Broken Legacy taldeko sei musikariak. BROKEN LEGACY

honetan soinu kalitateari dagokionez "aurrerapausoa" eman dutela eta kantuak "gehiago garatu" dituztela. Urte hasieran argitaratu zuten sare sozialetan lehen aurrerapen kantuak: *Ezezaguna*. Otsailean, bigarrena estreinatu zuten, bideoklip eta guzti, *Hostoak erori dira*, eta *Jukutria* argitaratu berri dute asteon. Horien guztien harrera "oso ona" izaten ari dela azaldu du Urkiak, eta, era berean, entzuleak "gogoz" daudela diskoa osorik entzuteko.

## Disko berria eta aurkezpena

Lan berriko hiru kantutan kolaborazioak dituzte: Pedro J. Mongerena, Drop! eta Wood Strings taldeetako Paul Casalena eta Uckaia taldeko Lander Txabarrirena.

Diskoa martxoaren 27an jarriko dute salgai –euren asmoa da egun horretan tabernaren batean postua jartzeko–. Eta apirilaren 2an gaztetxean emango dute kontzertua, Letagin eta Calathea taldeekin. Orduetik aurrera, online jarriko dute salgai eta euren sare sozialen bitartez emango dute horren berri.

## Oñatiko eta Kubako musikariak gaztetxean

Bihar, zapatua, *Parte zaharra aske!* elkartasun ekimenaren baitan, 20:00etan hasita, lau talde igoko dira gaztetxeko agertokira: Rebel Noise, Lee kore, Lehen Lerroa eta Lizartxo taldeak, hain zuzen. Domeka eguerdian, berriz, 12:00etan, Kubako Duo Jade bikotearen zuzeneko izango da Antixenean, pintxo eta edari kubatarrekin lagunduta.

## Ikatz tabernan kontzertuak izango dira gaur gauean

Zuzeneko musikarekin gozatze-ko aukera eskainiko du gaur, egubakoitza, Ikatz tabernak. Izan ere, oraingo honetan, hiru talderen kontzertuak izango dira bertan: Iruñerriko Streetwise, Atturri eta Arrasateko Kontralde taldeak, hain justu ere. 21:00etan hasiko dira zuzenekoak eta sarrera 7 euroren truke erosi ahalko da.

DEBAGOIENEN  
**PROFESIONAL  
LIBERALAK**

<p><b>ABOKATUAK</b></p> <p><b>BERNARDINO MAIZTEGI</b> BERGARA / Irizar 5 Tel.: 943 76 10 81</p> <p><b>BEGOÑA LASAGABASTER</b> ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A Tel.: 943 79 98 86 / Faxa: 943 77 01 08 blasaga@conet.es</p> <p><b>RAFAEL ARANBURU</b> BERGARA / Irizar 5 Tel.: 943 76 10 81</p> <p><b>AHOLKULARITZAK</b></p> <p><b>ANDRA MARI AHOLKULARITZA</b> ARETXABALETA / Araba ibilbidea 20, behea Tel./Faxa: 943 79 29 26 andrama@arrakis.es</p> <p><b>ALBERDI ASESOREAK</b> BERGARA / Matxiategi 36 Tel.: 943 76 90 83</p>	<p><b>ARKITEKTOAK</b></p> <p><b>BIARK ARKITEKTOAK</b> ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea Tel.: 943 79 80 33 www.biark.net</p> <p><b>LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA</b> Arkitektoa eta tradesperson formazioa Tel.: 636 89 92 11 larraitz.arkiestudioa@gmail.com</p> <p><b>ETXE ADMINISTRAZIOAK</b></p> <p><b>URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK</b> ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea Tel.: 943 79 51 25 uribesalgo@uribesalgo.es</p>	
--	---	--

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# "Eskiko entrenamenduak baliatu ditut bertikalean"

**MENDIKO LASTERKETAK** Aitor Ugarte Korrikalaria eta eskiatzailea Espainiako kilometro bertikaleko txapelketa irabazi berri du gazte mailan, eta uztailean Andorran egingo duten Munduko Txapelketarako txartela eskuratu du

**A. Ezkibel / X. Urzelai** ARRASATE  
Aitor Ugartek (Aramaio, 2002) uztailean Andorran egingo duten Munduko Txapelketarako txartela eskuratu berri du. Joan den zapatuan, Ladrillarren (Caceres) egindako Espainiako txapelketan lehenengoa izan zen gazte mailako kilometro bertikalean. 40 minutuko saio leherkorrean, faborito guztiak utzi zituen atzean.

## Zer moduzko lasterketa izan zen?

Bada, beste batzuetan baino gehiago izan zuen estrategiatik. Izan ere, normalean, kilometro bertikaleko lasterketak erlojuaren kontrako bakarkako probak izaten dira, eta zapatuan bosnaka irten ginen. Hala, faboritoen taldean sartu ninduten, eta horrek esan nahi du gure artean indarrak neurtzen joan ginela, garrantzitsua zen kontrarioa zertan zebilen ikustea. Hala, ibilbide nahiko apurtua zen, ez zen erritmo konstantea mantentzeko aproposa eta goialdean sekulako hotza egiten zuen. Hain zuzen, behetik gorako bidean bigarren joan nintzen, indarrak neurtzen, eta azken tartean ondo nindoala ikusita estutzea erabaki nuen eta lehenengo iritsi nintzen. Normalean, gora iristen naizenean gustuko izaten dut tarte batean lasai egotea, atsedean



Aitor Ugarte, erdian, joan den zapatuko podiumean. EUSKADIKO

hartzea. Baina zapatuan ez zegoen horretarako aukerarik, gora iristeaz batera zira jantzi eta behera egin genuen lasterka. Kilometro bertikalekoa baino gehiago, lineako proba zirudien. **Halako baldintza gogorak zeuden goian?**

Bai, bai, sentsazio termikoa oso baxua zen. Lasterkari batzuk 4x4 ibilgailuetan sartu zituzten, eta ospitalera ere eraman zuten bat, hipotermiak jota.

**Munduko Txapelketarako txartela eskuratu duzu lehen postu horri esker...**

Hori da; abuztu amaieran izango dut hitzordua, Andorran. Gainera, kilometro bertikalaz gain, skyrace modalitatean ere esku hartu ahal izango dut.

**Bereziki prestatu duzun lasterketa izan da hau?**

Bada, egia esan, ez. Lasterketa bereziki askorik prestatu barik azaldu nintzen irteera puntura. Duela bi urte ere gauza bera egin nuen, mendiko eskiko denboraldia prestatu nuen ondo, eta orduan egindako entrenamenduak baliagarriak izan ziren, gero, kilometro bertikalean las-



Ezkerretik hasita, proba irabazi zuen Iturbe, Maiora, Uribarri eta Urrutia. A.U.

## Taldeka onenak izan dira

Euskadiko emakumezkoen selekzioa onena izan zen Espainiako txapelketan, taldeka. Onditx Iturbek –probako irabazlea–, Ainara Urrutia aretxabaletarrak (7.a), Ainara Uribarri oñatiarrak (9.a) eta Maite Maiorak (15.a) osatu zuten selekzioko laukotea.

terketa ona egiteko. Hori kilometro bertikalekin posible da egitea, baina, noski, ez lineako lasterketekin. Esaterako, Aloñako Igoera bat egiteko, Arrasate-Udalatx... Horiek prestatzeko korrikako saioak egin behar dira derrigor. Oraindik mendiko eskiko lasterketa pare bat egingo ditut selekzioarekin, eta gero hasiko naiz buru-belarri korrikako lasterketekin.

**Mendiko eskiko denboraldian zauden oraindik murgilduta. Zer moduzko negua izan da?**

Mendiko eskia oso kirol jardueira teknikoa da, eta, alde horretatik, aurrerapauso politak egin ditut. Baina, emaitzei dagokionez, egia esan, ez dut nabarmenkorik lortu. Duela hiru aste, erorikoa izan nuen Andorran eta orkatila mindu nuen, eta ondoren ez dut nire onena emateko tarterik izan. Sierra Neva-

dara eskiko selekzioarekin joan nintzen, baina bi probatan ezin izan nintzen irten, orkatila errekupeatu barik neukalako, eta bertikalean oso txarto ibili nintzen, ez nuen batere sentsazio onik izan, eta psikologikoki ere etsita hasi nuen lasterketa. Baina tira, alde positiboa ateratzen saiatu nintzen, eta neure buruari esan nion hiru egun egin nituela ia 3.000 metrora eta horrek mesede egingo zidala. Bada, ondoren astebetetz atsedean hartu nuen eta fisioterapeutarekin lan eginda Espainiako Txapelketara ondo iritsi nintzen.

**"DENBORALDI EMANKORRA IZAN DA ESKIKOA, BAINA EMAITZAK EZ DIRA OSO ONAK IZAN"**

## Kalkulagailuarekin jarraitzeko moduko jardunaldia da azkena

**PILOTA** Irribarriak eta Rezustak irabazi egin behar diete Elezkano II.ari eta Zabaletari finalerako sailkatzeko

**X.U.** ARRASATE

Asteburuan erabakiko dute, Iruñeko Labriten eta Eibarko Astelenan, Eskuz Binako Txapelketako finalerako ze bikote sailkatuko diren, eta askok dagoeneko atera dituzte kalkula-

gailuak. Izan ere, finalerdietakoa oso ligaxka parekatua izan da, emaitza estuak egon dira norgehiagoka guztietan, eta, hori horrela, lau bikoteek dute, jardunaldi bakarra geratzen dela, finalerako sailkatzeko aukera.

Aukerak bai, baina probabilitateak ez dira berdinak. Gauzak simple azaltze aldera, bi bikote daude txartela euren esku dutenak: Altuna III.a-Martija eta Irribarria-Rezusta.

Irribarriari eta Rezustari dagokionez, finalerako sailkatzeko egin beharrekoak garbi dituzte; zapatuan (Labrit, 17:15) garaipena behar dute Elezkano II.aren eta Zabaletaren kontra. Alegia, euren esku dute finalerako txartela, eta hori, zelan ez, asko da. Izan ere, euren



Beñat Rezusta. GOIENA

kontrarioei ez die garaipenak bakarrik balio.

Domekan jokatuko dute, Astelenan (17:00), beste norgehiagoka Altuna III.ak eta Martijak Lasoren eta Imazen kontra. posible da, zapatuko emaitzaren arabera, domekako bi bikoteak jokatuta egotea. Izan ere, Elezkano-Zabaletak Irribarria-Rezustari 22-17 eta 22-21 arteko emaitzarekin irabazten badiete, domekako lehiak ez du ez gatzik eta ez berakatzik izango.



Oñatiko duatloiarren hasiera (2019); bihar ere taldean irtengo dira denak. IMANOL SORIANO

# Atleta uholderik barik, ikuskizuna bermatuta

**DUATLOIA** Bihar, zapatua, 171 atleta batuko dira Oñatiko duatloiko irteera puntuan (16:30). Beste urte batzuetakoa baino kopuru txikiagoa da; hala ere, Oñatiko esprint distantziako lasterketak osagai guztiak ditu puntako kirol ikuskizuna izan dadin

## Xabier Urtzelai OÑATI

Azken egunotako zereginetan buru-belarri harrapatu du GOIENAK lasterketako antolaketa taldeko kide Andoni Correas. "Azken asteotan meloia poliki-poliki zabaltzen joaten da, egunotan erabat zabaltzen den arte", dio, umorez. Hain zuzen ere, umorea da galdu ez duena, nahiz eta atleten parte-hartzea aurreikusitakoa baino txikiagoa izango den: "Izen-ematea zabaldu genuenean aurreikusten genuen 200 eta 250 atleta artean etorriko zirela lasterketara, baina gero, joan gara ikusten beste duatloiko batzuetara zenbat atleta joan diren, eta, egia esan, larrituta geunden. Pentsa, joan den astean Añorgako duatloira 77 parte-hartzaile joan ziren. Atletak baino boluntario gehiago zeuden... Hori horrela, ikus-tea gurera 171 atleta etorriko direla, tira, zenbateko polita iruditzen zaigu, konforme geratu gara". Oñatiarrak aitortu du ez dela duatloietan izan duten

jaitsiera horren zergatiak azaltzeko kapaz: "Motibo bat baino gehiago egongo da, baina egia da duela urte batzuk herritar gehiago animatzen zirela lasterketetan esku hartzera. Egia da Estatuko beste leku batzuetan lasterketa bat egiteko ez dagoe-la urte osorako federatu beharrik, eta gurean bai. Hori den motibo nagusia? Ez dakit esaten".

## Faborito talde polita

Lasterkari kopurua beste edizioetakoa baino txikiagoa bada ere, lehia eta ikuskizuna bermatuta daude: "Emakumezkoetan Maddi Marquet -2021eko irabazlea-, Helene Alberdi eta Arrate Mintegi nabarmenduko nituzke. Eta gizonezkoen kate-

**26 EMAKUMEZKO BATUKO DIRA IRTEERA PUNTUAN, ETA 145 GIZONEZKOK HARTUKO DUTE ESKU PROBAN**

gorian uste dut Urko Herran besteak baino koska bat gorago egon daitekeela, eta ondoren, maila berean dagoen atleta talde polita dago".

Faboritoen taldetik kanpo geratu da, lasterketan ez delako egongo, iaz podiumera igo zen eta 2017an lasterketa irabazi zuen Beñat Arnaiz. Aretxabale-takoa COVIDak eragindako pneumonia batetik errekuperatzen dabil.

## Esprint distantziako proba

Zapatukoa esprint distantziako lasterketa izango da. Horrek esan nahi du lehenengo sailkatuak ordu bete inguruan helmugan izango direla. Emakumezkoak 16:30ean irtengo dira -26 atleta izango dira- eta gizonezkoen kategorian irtengo diren gainontzeko 145 atletak 16:45ean abiatuko dira. Korrika 5 kilometro egingo dituzte, 20 bizikletan eta azken tartean beste 2,5 kilometro egingo dituzte korrika.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

O.ERREGION. GIZ.

#### Mondra-Zarautz

Zap. 16:30. Mojategi.

#### Bergara-Oiartzun

Zap. 16:30. Agorrosin.

#### Elgoibar-Aloña mendi

Dom. 16:30. Mintxeta.

#### Aretxabalea-Hernani

Dom. 17:30. Ibarra.

O. ERREGION. EMAK.

#### Leintz Arizmendi-Hernani

Zap. 18:30. Mojategi.

#### Mariño-Bergara

Dom. 12:00. Irun.

GORENGO M. IRAUPEN F.

#### Santo Tomas L.-Mondra

Zap. 17:30. Berio.

#### Usurbil-Antzuola

Zap. 17:45. Usurbil.

#### Aretxabalea-Urnieta

Dom. 17:30. Ibarra.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

#### Añorga-Aretxabalea

Zap. 16:15. Rezola.

### ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

#### Antiguoko-Eskoriatza

Dom. 16:50. Donostia.

#### Mondrate-Durango

Zap. 17:30. Musakola.

EUSKADIKO TXAP. GIZ.

#### Albadero-Aretxabalea

Zap. 18:00. Rivabellosa.

GIPUZKOAKO TXAP. GIZ.

#### Oiartzun-Mondrate

Zap. 16:00. Oiartzun.

GIPUZKOAKO TXAP. EMAK.

#### Lauburu Ibarra-Eskoriatza

Gaur. 20:45. Donostia.

### ESKUBALOIA

EUSK. TXAP. GIZON

#### Legazpi-Fagor Professional

Zap. 19:15. Legazpi.

#### Mugarri Ingou-Escolapios

Zap. 18:00. Iturripe.

EUSK. TXAP. EMAKUM.

#### Cons. Aloña Mendi

Atsedena.

GIP. SENIOR 1 MAILA

#### Donibane-SoraluceBKE

Zap. 18:00. Pasai

Donibane.

### SASKIBALOIA

EBA

#### MU-LBC Cocinas

Dom. 18:30. Iturripe.

### LEHEN NAZIONALA

#### MU-Tabirako Baque

Zap. 18:30. Iturripe.

GIZON. BIG. MAILA

#### Mekalki Aloña-Erroibide

Zap. 18:00. Zubikoa.

EMAK. BIG MAILA

#### MU-Getxo SBT

Dom. 18:15. Iturripe.

GIPUZKOAKO TXAP.

#### Inter d. Mitente-Bergara Soraluce

Domeka. 12:00.

Donostia.

GIP. SENIOR. GIZ.

#### Bergara Sora.-La Rioja

Zap. 16:00. Iabegaraieta.

### PILOTA

#### Oñatin, egubakoitza

(18:30) hiru partidu; eta

zapatuan (16:30) bi

partidu.

#### Aretxabaletan, egubakoitza,

(19:00) bost partidu.

#### Antzuolan, egubakoitza,

(19:00) partidu bat.

#### Bergaran, egubakoitza,

(19:15) partidu bat.



EMAKUME MASTER CUP

## Astoreren elastiko berriak

Astore etxeak plastikozko botilak birziklatuz eginiko kamiseta berriak diseinatu ditu Emakume Master Cup-eko pilotarientzat. Hain zuzen, kamiseta bakoitza egiteko hamaika botila erabiltzen dituzte. Eguaztenean egin zuten aurkezpen ekitaldia, Arrasaten bertan. Master Cupeko pilotariak izan ziren ekitaldian; tartean, Madalen Etxegarai oñatiarra.



Oihan Vega konpositorea, Toti Martinez de Lezea idazlea eta Valen Moñux zuzendari eszenikoa. IDOIA GONZALEZ

## Donostiako erreketak, liburutik musikalera

Toti Martinez de Lezearen 'Bretxa' eleberrri historikoan oinarritutako formatu handiko musikala egingo du Bergara Antzerki Musikala (BAM!) elkarteak; hamabigarren lana 2023ko urtarrilaren 13an estreinatuko dute Donostiako Victoria Eugenia antzokian

**Aitziber Aranburuzabala** BERGARA  
*La Brecha* (T'arttalo, 2016) liburuaren euskarazko berrargitalpen eguneratua –Erein argitaltearen eskutik eta Miren Arratibelek itzulita– eta eleberrian oinarritutako musikala aurkeztu zuten Larrabetzuko idazleak eta Bergara Antzerki Musikala (BAM!) elkarteak martitzenean, Donostian. "1813an

Donostian gertatu zen sarraskiaren kontakizuna da, Maritxu Altuna txokolategilearen ikuspuntutik kontatuta", dio idazleak.

Bergara Antzerki Musikala (BAM!) elkarteak bere hamabigarren ikuskizunerako aukeratu du istorioa. "Kanpokoak kontatu izan ditugu aurreko lanetan eta plazera da gurean gertatu zen drama bat kontatzea

eta euskal idazle baten istorioan oinarrituta. Mimo handiz eta detaile guztiak ondo landuta ari gara ilusio handiarekin guztia prestatzen", dio musikalaren konpositore Oihan Vegak. "Ikaragarri pozik nago Bergarakoen proposamenarekin; izugarri gustatzen zaizkit musikalak, eta itzela da nire istorio bat aukeratu izana!", dio idazleak.

### Handia eta modernoa

Orain dela sei urte jo zuten idazlearen atea Oihan Vegak eta musikalaren zuzendari eszeniko Valen Moñuxek. "Isilik eta harrituta begira gōeratu zitzaigun musikalerako proposamena egin genionean, eta zera esan zigun gero: 'Zuek erotuta zaudete! Eta etxe honetan eroak ongietorriak dira!'. Eta harrezkero, ederra izan da eta ari da izaten Toti Martinez de Lezearekin lan egitea".

150 lagunek hartuko dute parte: 30 musikariko orkestrak, helduen eta haurren abesbatzak; aktoreak; dantzariak, abeslariak... Eleberria "erabat errespetatuz" eta kronologia ondo zainduta egin dute *Bretxa*-ren gidioa. "Broadwayko estilokoa da eta puntako teknologia ere erabiliko dugu. Broadwayko musikalak aipatzean, askotan burura datozkigun irudiak dira artistak koloretako eskaileretik jaisten eta halakoak; bada, hau ez da halako istorio alai edo koloretsua, baina, kalitateari eta formatuari dagokionez, Broadwayko musikaletatik gertu dago. Orain arte kontatu ez den moduan kontatu gura dugu horrenbeste aldiz kontatu izan den Donostiako sarraskiaren gainekoa. Historia arloko kontuak ikuskatzeko Donostiako historian trebatuak diren bi maisu izan ditugu alboan: Jose Maria Leclercq, historialaria eta arkeologoa, Donostiako herritar merezimenduaren domina eta 2022ko Urrezko Danborrerako izendapena jaso zuena; eta Jose Javier Pi Chevrot, arkitekturaren doktorea, Donostiako XIX. mendera arteko hiriaren hirigintza eta arkitekturaren aditua dena. Euren laguntzarekin garai hartako Donostiaren irudiak erakutsiko ditugu ikuskizunean, 3D dimen-

tsioan, led pantaila handi baten", dio Vegak.

### Bidelagun gehiago

Proiektuaren motorra BAM! elkartearen arren, beste hainbat kultura eragile bidelagun dituztela gaineratu dute. "Lehenengo proiektutik alboan izan dugun Bergarako Musika Eskolaz gainera, Donostiako Union Artesana, Tiempo 22 dantza akademia donostiarra, Donostiako 31 de Agosto Rekreaionista Elkarteak, Lasarte-Oriako LOZET Rekreaionista eta Kultura Elkarteak, Irungo Anaka Kofradia eta Zarauzko Monte Albertia Goi mailako Ile-apaindegia eta Estetika Zentroa".

Vegak eta Moñuxek egin dituzte *Bretxa*-ren gidioaren egokitzapena, libretoa, musikaren konposaketa eta abestien hitzak eta eszenografiaren diseinua. Mikel Markiegik du orkestrazioaren ardura, Txemi Etxebarriak zuzenduko du orkestra eta Marije Ugaldek, berriz, abeslariak eta abesbatzak, Carol Gomezek landuko ditu koreografiak eta Ander Arruti izango da zuzendari laguntzailea.

### Urtarrilaren 13an estreinaldia

"Pozik eta ilusioz" ari dira lanean. "Entseguak hasi ditugu orain. Aurretik egindako lanen eskarmentuak lagunduko digulakoan gaude –*Miserableak*, *Olentzero*, *Mozkorra parregarri...*–, orain dela 30 urte egin genuen-eta lehenengo musikala".

**'BRETXA' MUSIKALA: BERGARAKO ANTZERKI MUSIKALA ELKARTEAREN IKUSKIZUN BERRIA**

GOIENA  
TELEBISTA  
SASOI  
BERRIA

**'BIZI GIPUZKOA!'**

MARTXOAREN 24AN, EGUENEAN,  
21:30EAN ETA 33:30EAN  
DEBAGOIENEAN BARRENA  
JULEN LANDALUZEEK AURKEZTUTAKO SAIOA

goiena  
Zu hemen zaude.







Proiektors Sormen Taldeak egin duen *Turnoka* film laburreko fotograma batean Bergarako industrialdea. AITOR ALBERDI

## Laburbirak hiru geltoki ditu Debagoienez

Euskaltzaleen Topaguneak beste elkarte eta erakunde batzuekin elkarlanean antolatutako XIX. Laburbira, euskarazko film laburren zirkuitua, Aramaion izango da etzi, domeka; Arrasaten, martxoaren 22an; eta Bergaran, berriz, hurrengo egunean

**Aitziber Aranburuzabala** ARAMAIO Euskal zinemagintzaren erakunde izateko asmoz abiatutako ekimena da Laburbira; Euskal Herriko euskara elkarteak batzen dituen Euskaltzaleen Topagunea da bultzatzaile nagusia, Benito Ansola Sariarekin, Durangoko Azokako Irudien gunearekin, DemaSA lehiaketarekin eta Kameratoia egitasmoarekin elkarlanean osatzen duena.

Otsailaren 25ean hasi ziren, Areatzan, bilduma berria herriz herri erakusten, eta apirilaren 4an Lantaronen borobilduko dute, 29 herritan eskainita. Debagoienez hiru aukera izango dira iaz ekoiztutako euskarazko askotariko film laburrak ikus-

teko: Txirritola euskara elkarlearen eskutik, Aramaioko kultura etxean eskainiko dute domekan, 19:00etan; AED elkarlearen ekimenez, Arrasateko Udalaren laguntzarekin eta Korrika Kulturalaren programazioaren baitan, Amaia antzokian izango dira martitzenean, 19:30ean, filmak ikusgai; eta Jardun Euskara Elkarlearen eskutik, martxoaren 23an, Seminarioan, 20:00etan.

### Bederatzi film labur

Urtez urte sendotzen doan egitasmoa da Laburbira; horren erakusle da aurten hemeretzi lan jaso dituztela. Horietatik bederatzi film labur aukeratuta

osatu dute 80 minutuko iraupena duen emanaldia.

Askotariko filmak batu dituzte aurten ere, eskarmentua duten zinemagileek eta hasiberriek egindakoak, eta askotarikoak dira, era berean, gaiari eta generoari begiratuta ere. Arrasateko Iban del Campok zuzendu duen eta dagoeneko sariak irabazi dituen *Serendepia* dago horien artean; Arrasateko emanaldian zuzendaria izango da. Bergarako Proiektors Sormen Taldeak egin duen *Turnoka* film laburra ere katalogoan dago; horiez gain, *Itsasoaren mugimendua*, *Lanbroa*, *Falta zaizuna*, *Rewing*, *Subandilla*, *Hurrengo geltokia* eta *Itsaso* filmak.

## Ekinez izeneko musika jaialdia egingo dute ekainean Bergaran

Punk, rock eta Oi! estiloetako hamabost talderen kontzertuak izango dira ekainaren 10ean eta 11n

### A. Aranburuzabala

BERGARA Berritze lanak hasi aurretik kontzertuetarako agertoki bihurtuko du Agorrosin futbol zelaia herriko musikariak eta musikazaleak antolatzen ari diren Ekinez jaialdiak.

### Herrikoak eta kanpokoak

Euskal Herriko musika eszena alternatiboari "dagokion espazioa ematea" eta herritarrei "estilo horiek gerturatzea" dute helburu, antolatzaileek. Ekainaren 10ean eta 11an egingo dute, eta

hamabost talde baino gehiago gonbidatu dituzte. Zerrenda osoa iragarri ez duten arren, honako talde horiek izango direla aurreratu dute: Bergarako Brigade Loco eta Kaleko Urdangak, Aretxabaletako Neallta Fola eta horiez gain, Jonny Gerriwelt, Rotten XIII, Unidad Alavesa, Pubyc Enemy eta Labana.

'Entradium.com' plataforman eskura daitezke jaialdirako sarrerak; bi egunetarako bonoa, 30 eurotan, eta egun bakarreko sarrera, berriz, 20 eurotan.

## Goienakideen txokoa

### MARTXOKO SARIAK

#### Lau liburu

'Sendabelarrekin dakitena'  
Garbiñe Larrearena

Parte hartzeko sariaren izena: liburuak



#### Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUTZ  
OSTALONDA

www.harremandenda.org

Telebista Merkataritza Produktuak

#### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

#### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte hartzaileen artean egingo da zozketa. Inon ere dagoen (90) 15 1999 egunean sarrera jakingarria dago eta dagoeneko Goiena Komunitatea Zerbitzuaren bitartez antolatuta baten arabera da. Datozleak honen helburu bakarra da inon ere dagoen sariaren pertsona. Eskubidea erantsi dagoen bitartean, hain zuzeneko erabakirik, helburu hori dagoen bitartean goiena.eus

### Irabazi bi lagunendako sarrerak

#### Arrasateko udalari esker

'Arima' antzerkirako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Martxoak 27 | 19:30

#### PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE 'Arima'

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte hartzaileen artean egingo da zozketa. Inon ere dagoen (90) 15 1999 egunean sarrera jakingarria dago eta dagoeneko Goiena Komunitatea Zerbitzuaren bitartez antolatuta baten arabera da. Datozleak honen helburu bakarra da inon ere dagoen sariaren pertsona. Eskubidea erantsi dagoen bitartean, hain zuzeneko erabakirik, helburu hori dagoen bitartean goiena.eus

### KORRIKA 2022

#### Eraman lekukoa Goienaren kilometroan

Komunitatea dugu ardetz, komunitatea bide-erri, eta aurten lekukoa eramateko ohorea kideei ematea erabaki dugu.

Apirilak 1 | Aretxabaleta | 250. kilometroa | 13:43

Parte hartzeko sariaren izena: lekukoa




### Irabazi bi lagunendako otordua

#### GOIKO BENTA JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkari *Otoroia* atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: martxoak 22



GOIENAKIDE Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.



*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 60€  
Datu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena  
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.



HILETA

## Juan Manuel Gonzalez Arroitia

2021eko abenduaren 25ean hil zen, 75 urte zituela.

Haren emaztea: M. Carmen Lopez. Semeak: Juan Manuel (†) eta Sergio. Anai-arrebak: Mari Carmen eta Jon Etxebarria (†). Ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.

Bere oroimenez, azken agurreko hileta-elizkizuna larunbatean izango da, martxoaren 19an, 19:00etan, San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Etorriko zaretanoi, bihotzez aurrez eskerrak familiaren izenean. Arrasaten, 2022ko martxoaren 18an.

HILETA

## Maria Luisa Aranburu Urtaza

2022ko martxoaren 17an hil zen, 70 urte zituela.

Senarra: Juan Miguel Guridi Madinabeitia. Seme-alabak: Asier eta Arantza Elizondo, Hiba eta Ainhize Bereziartua. Bilobak: Jon, Legaire, Haizene, Enaitz. Gurasoak: Luis (†) eta Calixta (†). Ezkon gurasoak: Juan (†) eta Nicolasa (†). Ahizpak: Arantza, Mila eta Juan Cruz Irizar. Ezkon arreba: Lucia eta Jesus Agirrebeña, Arantza eta Agapito Fuentes, Jaione eta Jose Ramon Urkia (†). Ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.

Haren arimaren aldeko hileta-elizkizuna gaur, egubakoitza, izango da, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian. Aldez aurretik mila esker.

Moyua Bellatokia hartuko zaituztegu 11:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 18:00etara. Oñatin, 2022ko martxoaren 18an.

HILETA

## Dionisio Arregi Igartua

Arantzazun hil zen, 2022ko martxoaren 16an, 75 urte zituela.

Anaia-arrebak: Maria eta Nikolas Altube (†), Pilar eta Tomas Biain (†), Andres (†), Txaro eta David Kortabarria, Simon eta Ixiar Uribeetxebarria, Jesus Mari, Arantxa eta Martin Sola, Konxita eta Aurelio Diaz. Ilobak, lehengusu-lehengusinak, gainerako ahaideak eta bere zaintzailea Vanessa.

Haren arimaren aldeko hileta-elizkizuna gaur, egubakoitza, izango da, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian. Aldez aurretik mila esker.

Eguzkilore Bellatokia hartuko zaituztegu 11:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 18:00etara. Oñatin (Arantzazu), 2022ko martxoaren 18an.

OROIGARRIA

## Zorione Arana Abarrategi

2019ko martxoaren 15ean hil zen.

*Zure izena gure buruan,  
zure oroitzak gure bihotzean.*

Zure kuadrilla.  
Arrasaten (Garagartza), 2022ko martxoaren 18an.

OROIGARRIA

## Pello Ojanguren Bilbatua

2022ko martxoaren 10ean hil zen, 68 urte zituela.

*Beti izango zaitugu gogoan.*

Elgetako lagunak.  
Elgetan, 2022ko martxoaren 18an.

OROIGARRIA

## Angel Atxa Altuna

Nerea Atxa gure lankidearen aita

2022ko martxoaren 15ean hil zen, 72 urte zituela.

*Gure besarkada beroena familiari.*

**goiena**

Goiena Aseguru Artekaritza SL.  
Arrasaten, 2022ko martxoaren 18an.

ESKER ONA

## Imanol Garate Unamuno

2022ko martxoaren 9an hil zen, 86 urte zituela.

Familiaren izenean, bihotz-bihotzez, eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zineten guztioi.

Bergaran, 2022ko martxoaren 18an.

ESKER ONA

## Pello Ojanguren Bilbatua

2022ko martxoaren 10ean hil zen, 68 urte zituela.

*Eskerrik asko eman diguzun guztiagatik,  
senar, aita, aitxita eta suhi paregabea!  
Zure indarra gure eredu!*

Etxekoan partetik.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zaretan guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Elgetan, 2022ko martxoaren 18an.

URTEURRENA

## Mari Cruz Arriaran Aguirrezabal

2021eko martxoaren 22an hil zen, 90 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 20an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretanoi aurrez eskerrik asko.  
Bergaran, 2022ko martxoaren 18an.

ESKER ONA

## Gregorio Palacios Barbero

Maribi Ugarteren alarguna

2022ko martxoaren 8an hil zen, 70 urte zituela.

Hiletara etorri eta gurekin egon zaretan guztioi, bihotz-bihotzez familiaren izenean, eskerrik asko.

Aupa, Goio Futbolzaile amorratua Jokalari bezala Eskoriatza, UDA, Mondraue, Vitoria... Entrenatzaile bezala Eskoriatza, UDA, Joma, Athletic... Gero arte.

Arrasaten, 2022ko martxoaren 18an.

ESKER ONA

## Matilde Bengoa Mazmela

Javier Bengoaren alarguna

2022ko martxoaren 15ean hil zen, 88 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zaretan guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2022ko martxoaren 18an.

BABESLEA

# Oroilore

Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu

*Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerrik beroenak guregan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.*

**Ion, Mario, Iban eta Maribi**

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA  
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

## TXUTXU-MUTXUAK



1



2



4



3



5

**1. Ibiltarien Jaia, bueltan**

Bi urteko etenaren ostean, mendizale mordoxka elkartu zen Elgetan, Ibiltarien Jaia ospatzeko. 24 kilometroko ibilaldia egin zuten denboraldia hasteko.

**2. Osintxun, Korrikaren alde**

Ate joka dago 22. Korrika, eta han-hemenka askotariko ekintzak egiten dihardute. Osintxun materiala saltzen izan ziren aurreko egubakoitzean.

**3. Lehena, etxean**

Motz talde oñatiarrak lehen kontzertua herritarren aurrean eman zuen. Hamaika kantu propio eta Golde De Estado taldearen bizpahiru bertsiok eskaini zituzten.

**4. Goienara bisita**



Garabide Elkartearen *Hibil - Hizkuntza Gutxituak Biziberritzeko Lankidetz*a ikastaldiko partaideak Goiena Komunikazio Taldearen egoitza bisitatzen egon ziren.

**5. Jolasak, kalean**

Txatxilipurdiko begiraleen laguntzarekin jolasean ibili ziren neska-mutiko arrasatearrak San Andresen. Gazte txokotik kalera atera zituzten jolasak.

**6. 50 urte ezkontuta**

Anton Zabala bergararrak eta Etxebarriko Maritere Ugarteburuk urrezko ezteiak beteko dituzte martxoaren 18an. "Zorionak, bikote! Egun ederra pasa, familiaren partetik".



6

**Kontatu, kontatu!**

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Kontaiguzu eta bidaliguzu argazkia!

**Posta elektronikoa**

Mezua bidali [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

**Ordezkaritzak**

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## ZORION AGURRAK



**BERGARA**  
**Izar Unamuno Unamuno**  
Martxoaren 22an, 4 urte. Urte askotarako, Izar! Oso ondo pasatu zure familia eta lagun danekin.



**ARAMAIO**  
**Manex Herrarte Balanzategi**  
Martxoaren 22an, 9 urte. Zorionak, Manex! Jarraitu zaren modukua izaten! Maitte zaittugu. Aritz, aitaxo eta amatxo.



**ARETXABALETA**  
**Maddi Amozarrain Oلابarria**  
Martxoaren 21ean, 10 urte. Eguzkiari hamar buelta dagoeneko, Maddi! Ilargiraino eta buelta maitte zaittugu!



**OÑATI**  
**Eire eta Gari Agirrebaltzategi Urzelai**  
Martxoaren 20an, 3 urte. Zorionak! Ondo-ondo pasatu zuen eguna. Segi oin arteko moduko alaiak izaten!



**OÑATI**  
**Oier Ortiz de Mendibil Astigarraga**  
Martxoaren 20an, 4 urte. Zorionak, potxolo! Asko maite zaitugu! Jarraitu beti bezain irrifartsu! Muxu handi bat etxekoan partetik!




**OÑATI**  
**Ane Emparanza Judez**  
Martxoaren 19an, 10 urte. Zorionak, maittia! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta segi zaren bezalakoa izaten. Asko maite zaitugu. Patxo handi bat familiariaren, eta bereziki, Xabiren partetik. Zorionak, printzesa!



**ESKORIATZA**  
**Jose Mari Maturana Agiriano**  
Martxoaren 19an, 85 urte. Zorionak familixaren partetik!



**ARRASATE**  
**June Hernanz Telleria**  
Martxoaren 19an, 8 urte. Zorionak, June! Gozatu zure eguna, maitxia. Patxo erraldoi bat maite zaitugun danon partetik!



**ARETXABALETA**  
**Joxepa Garcia-Etxabe**  
Martxoaren 19an, 92 urte. Zorionak, amama Joxepita! Zu bezelakoik eztau besteik! Ze suertia daukouen zurekin! Ondo-ondo pasatu zure eguna familia danarekin eta patxo potolo bat! Asko maite zaittugu.



**BERGARA**  
**Iker Zabala Pozo**  
Martxoaren 18an, 4 urte. Zorionak, politx hori! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean! Asko maite zaitugu, batez ere Egak! Mila muxu.




**OÑATI**  
**Alaitz Isasti Arkauz**  
Martxoaren 17an, 9 urte. Zorionak, politx hori. Ondo pasatu zure eguna. Asko maite zaitugu.



**ESKORIATZA**  
**Josu Lecuona Martinez de Lahidalga**  
Martxoaren 17an, 10 urte. Zorionak familia guztiaren partetik! Ondo pasatu eguna. Muxuak.



**ARRASATE**  
**Uxue Belategi Galdos**  
Martxoaren 16an, 5 urte. Zorionak, artista! Heldu da horrenbeste espero zenuen eguna. Primeran pasatu lagunez inguratutik, eta jaso ezazu besarkada eta muxu bero bat, familia osoaren partetik. Ondo pasatu!



**ARRASATE**  
**Asier Olloqui Sarabia**  
Martxoaren 16an. Zorionak, bihotza! 14 urte! Etxekoan partetik, zorionak eta muxu handi bat!



**BERGARA**  
**Helene Sanchez Roman**  
Martxoaren 15ean, 8 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo ospatu zure eguna. Besarkada eta muxu pilo bat, etxeko guztion partetik.



**ELGETA**  
**Amets Agirre Osa**  
Martxoaren 15ean, 10 urte. Zorionak, guapo! Ondo pasatu bi zenbakiren estreinaldia eta izan zoriontsu! Aurten ospakizun doblea egingo dugu aurreko urtekoen partetik, eh!




**ARRASATE**  
**Irai Zabaleta Urteaga**  
Martxoaren 14an. Zorionak, xagutxo! Jada lau urte etxeko txikiak... Ondo pasatu eguna, terremoto! Ekain, aitona, amama, tia Leire, aitaxo eta amatxo.



**ARRASATE**  
**Laia Castillo Romero**  
Martxoaren 13an, 5 urte. Zorionak, poxpolintxo! Heldu da zure eguna! Disfrutatu topera eta segi beti alai eta zoriontsu! Asko maite zaitugu! Patxo erraldoiak Danelen, Oihanen eta etxeko guztien partetik.



**ARETXABALETA**  
**Leo Almeida Romero**  
Martxoaren 13an. Maitxia, bost urte jada! Zorionak! Jarraitxu holakua izeten. Asko-asko maite zaitzugu, ilargiraino ta buelta! Amatxo, aitaxo eta Jon.



**ARRASATE**  
**Iraitz Sarabia Landa**  
Martxoaren 13an, 21 urte. Zorionak, Iraitz! Etxekoan partetik, zorionak eta muxu handi bat!



**ARRASATE**  
**Xabi Andres**  
Martxoaren 11n, 7 urte. Zorionak, Xabi! Izugarri pila maite zaitugu! Mila kilo muxu eta besarkada familia osoaren partetik!



**OÑATI**  
**Eduarne Iciar Garcia**  
Martxoaren 11n, 8 urte. Zorionak, Eduarne! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu handi bat etxekoan partetik!



**OÑATI**  
**Liher Ferreira Garcia**  
Martxoaren 11n, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo ospatu zure eguna! Patxo erraldoi bat etxekoan partetik.



**OÑATI**  
**Inhar Guridi Muñoz**  
Martxoaren 10ean, 5 urte. Zorionak etxeko txiki handixari! Patxo potolo bat Amairren, aitaxoren eta amatxoren partetik!

## Urte askotarako!

Zoriontzeko, hiru bide dituzu:


**Internet**  
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**  
Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**  
Etor zaitez Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.



**ARRASATE**  
**Ekhi Madinabeitia Lasa**  
Martxoaren 10ean, 5 urte. Zorionak, morroxko! Bost urte jada, mutil handi! Besarkada handi bat etxekoan partetik!



**OÑATI**  
**Jakes Campo Manias**  
Martxoaren 15ean, 2 urte. Zorionak, maittia! Beste urteko bat bete duzu, txapeldun. Segi horrela etxeko guztiak alaitzen. Muxu erraldoiak familia osoaren partetik. Egin irribarre!



**OÑATI**  
**Ekiñe Retes de Vicente**  
Martxoaren 17an, 9 urte. Zorionak, bihotza! Gure bizipoza zara. Aitaxo, amatxo eta familia osoaren partetik, egun politxa euki dezazula!



**BERGARA**  
**Elene Goikoetxea Makazaga**  
Martxoaren 19an, 10 urte. Zorionak, prexioxi! Egun politx-politxa pasatu! Patxo handi bat, familia osoaren partetik.



**BERGARA**  
**Elene Perez Zabaleta**  
Martxoaren 20an, 11 urte. Zorionak urte askotarako, Elene! Egun politx-politxa pasatu. Besarkada eta patxo handi bat, familia osoaren partetik!

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 18

## OÑATI Odol ateratzea

Aurrez hartu beharko da ordua, 943-00 78 84 telefonora deituta. *Enpresagintzan, 16:30ean.*

## ARAMAIO Korrikako materiala salgai

Arropak eta bestelako osagarriak. *Kultura etxean, 17:00etatik 19:30era.*

## OÑATI Ate irekiak eta magia ikuskizuna ludotekan

17:30etik 19:30era, ludoteka ezagutzeko aukera; eta 18:15ean, magia saioa Asier Kidam magoarekin. *Ludotekan.*

## ELGETA 'Ipuinen ordua'

17:30-17:50, HH-3ko eta HH-4ko umeendako; 18:10-18:30, HH-5eko LH-1eko eta LH-2ko umeendako; eta 18:50-19:10, LH-3ko, LH-4ko eta LH-5eko umeendako. *Liburutegian.*

## ARAMAIO Ind-Jones dantzaldia, haurrendako

AlgAramaio jaialdiaren baitan egingo dute ekitaldia. *Kiroldegian, 17:30ean.*

## ARRASATE Ipuin kontaketa, 3-4 urte artekoendako

Itziar Saenz de Ojerren eskutik. Aurrez eman behar da izena. *Kulturaten, 18:00etan.*

## BERGARA Euskal dantzen ekitaldia

Moises Azpiazu dantza taldearekin, Korrika Kulturaren baitan. *San Martin plazan, 18:30ean.*

## ESKORIATZA 'Uhinak' dokumentala eta Korrikako egitarauaren aurkezpena

Txakur Gorria sormen kolektiboak egindako lana da 22. Korrikari buruzko dokumentala. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

## ARAMAIO Bertso saioa

Korrika Kulturaren baitan. Ane Zuazubiskar, Peru Abarretegi, Aitor Ugarte eta Zigor Enbeita bertsoan. *Sastiñan, 19:00etan.*

## BERGARA 'Oroitzen hondarrak nota txikietan' errezitaldi musikatua

Izaskun del Cerrorekin, Nerea Zuloagarekin eta Mikel Etxaburrekin. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoa, 20:00etan.*

## OÑATI Streetwise, Atturri eta Kontralde taldeak

Sarrerak, zazpi euro. *Ikatz tabernan, 21:00etan.*

## BERGARA Labana eta Feline taldeak

Egubakoitzak Berreskuratzen ekimena. Sarrerak, bost euro. *Kartzela zaharrean, 22:00etan.*

## ZAPATUA 19

## ARRASATE Baserritarren azoka: karapaixoa

Karapaixoa izango da protagonista. Hainbat zozketatuko dituzte eta erosteko aukera izango da. *Seber Altube plazan, 09:00etan.*

## ARRASATE Ludoteka ibiltaria San Andresen

3-12 urte artekoendako, bi hezitzailearen laguntzarekin. *Gazte txokoa, 11:30ean.*

## OÑATI Xabier Rezabalen erakusketa

Argazki bilduma ikusgai hilaren 31ra arte. *Eltzian, 17:00etan.*

## ARAMAIO 'Me too' antzezlan, nagusiendako

AlgAramaio jaialdiaren baitan. Ainhoa Aierbe eta Tessa Andonegi aktoreekin. Sarrerekin –bost euro– jasotako dirua Aita Mari proiektura bideratuko da. *Kultura etxean, 19:00etan.*

## BERGARA Fly Shit eta Gaizkiñe taldeak

Sarrerak, bost euro. *Kartzela zaharrean, 19:30ean.*

## BERGARA 'Islabat' musika emanaldia

Andoni Alonso, Jesus Jimenez, Aitzol Mujika eta Asier Olabarrieta musikariek. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoa, 20:00etan.*

## DOMEKA 20

## ELGETA Mendi irteera eta bazkaria

2022ko lehena egingo du Kantsatzeke taldeak. Ostean, Zeraingo Oiharte sagardotegian bazkalduko dute. *Mendizaleen plazan, 08:00etan.*

## OÑATI 'Altzorraren bila', familiendako

Pisten jolasa, Arantzazuko ibilbide irisgarrian. Izenak aurrez eman behar dira: 943-78 28 94 telefonoan edo *arantzazu@gipuzkoanatura.eus*. *Arantzazuko Parketxea, 11:00etan.*

## OÑATI Duo Jade

Gitarra eta ahotsez osatutako bikote kubatarak hainbat genero lantzen ditu. Jateko pintxoak eta edari kubatarak egongo dira. *Gaztetxean, 12:00etan.*

## OÑATI 'Peru eta otsoa' emanaldia, umeendako

Oñatiko Musika Bandaren eta Jose de Azpiazu Musika Eskolaren saioa, Miel Guridi narratzaile izango duena. Umeei zuzendutako emanaldia. Saioaren bigarren zatian, musika banda nagusia eta gaztea batera ariko dira. *Zubikoa pilotalekuan, 13:00etan.*

## ESKORIATZA Hip-hop dantza tailerra

Bigarren eta azken saioa. *Joseba Iñurretegi frontoian, 17:00etan.*

## ARAMAIO 'Txus &amp; Txu' antzezlan, umeendako

AlgAramaio jaialdiaren baitan. Sarrerak, bi euro. *Kultura etxean, 17:00etan.*

## ARRASATE 'Familian jolasean'

0-8 urte arteko haurrendako eta euren familiendako txokoa, aisialdiaz eta jolasaz gozatzeko. *Okendoko ludotekan, 17:30etan.*

## ANTZUOLA 'Aioko' antzezlan

Familian ikusteko itzal eta txotxongilo ikuskizuna. Sarrerak, bost euro. *Torresoroan, 18:30ean.*



ZURRUNKA

## ANTZUOLA 'Aioko' antzezlan

Zurrunka teatroren ikuskizun didaktikoa, non itzalek argia erakutsiko duten. Itzal eta txotxongilo emanaldia, 4 urtetik aurrerako umeendako. Sarrerak, *Bibe.me* atarian, bost eurotan. *Etzi, domeka, Torresoroan, 18:30ean.*

## ESKORIATZA 'Aita Mari' dokumentala

Iñigo Mijangosek eta Iñigo Gutierrezek *Stella Maris Berria* atunketaria erreskate-ontzi bihurtu dute, Mediterraneo itsasoan itotzen ari diren errefuxiatuak salbatzeko. *Aita Mari* izena jarri diote. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

## OÑATI 'Sexberdinak' antzezlan (sarrerak agortuta)

Tantaka taldearen lana, Kepa Errasti eta Telmo Irureta aktoreekin, *Geuretik sortuak* proiektuaren baitan. *Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan, 19:00etan.*

## ARAMAIO Laburbira 2022

Euskarazko film laburren XIX. zirkuituko bederatzik lanak ikusteko aukera. *Kultura etxean, 19:00etan.*

## ARRASATE 'La tarara' antzezlan

Hika Teatroren lana, Tania Fornieles, Kepa Errasti, Jurdana Otxoa, Eneritz Artetxe, Jose Cruz Gurrutxaga, Adrian Garcia de los Ojos eta Iñar Sastre aktoreekin. Sarrerak, hamar euro. *Amaia antzokian, 19:30ean.*

## ASTELEHENA 21

## ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

## ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

## OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Foruen plazan, 12:00etan.*

## BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *San Martin plazan, 12:00etan.*

## ELGETA Podologia erretiratuendako

Aurrez hartu behar da txanda, 667 80 70 06 telefonoan. *Kultura etxean, 15:00etan.*

## OÑATI Udaberriko landareei buruzko hitzaldia

Tina Kortabarriak eta Iban Barrigonek egingo dute berba, Pake Lekuk gonbidatuta. *Pake Lekun, 17:30an.*

## BERGARA 'Bergarako emakume artistak' erakusketa

M8aren baitan, hilaren 27ra arte ikusgai. *Aroztegin, 18:00etan.*

## BERGARA 'Egunkaria, gizarte zibilaren arrakasta' liburuaren aurkezpena

Joanmari Larrartek aurkeztuko du ekitaldia, eta *Egunkaria* batzordeetako kideak izango ditu solaskide. *Olaso dorrean, 19:00etan.*

## MARTITZENA 22

### ESKORIATZA Lore sortak egiteko tailerra, umeendako

Gaur eta bihar, HH-ko ikasleendako; eta hilaren 25ean, LH-koendako. *Ludotekan, 16:45ean.*

### OÑATI 'Aserbitatea' tailerra

Pepa Bojoren eskutik. *Euskaldun Berria gelan, 18:00etan.*

### BERGARA 'Non dago gure basoa?' hitzaldia

Oñatiko Natur Eskolako hezitzaile batek eta Iñaki Aizpuruk egingo dute berba, Kukubaso elkarteak gonbidatuta. *Seminarixoa, 18:30ean.*

### ANTZUOLA 'Sendabellarrek dakitena' liburuaren aurkezpena

Garbiñe Larrea naturopata da egilea, eta bera egongo da ekitaldian. *Torresoroan, 18:30ean.*

### OÑATI Literatura solasaldia

Itziar Ugarte Irizar oñatiarraren *Gu gabe ere* liburuaren gaineko saioa, Miriam Lukik gidatuta. *Zinema-aretoa, 18:30ean.*

### ELGETA Bertol Arrietaren liburuaren aurkezpena

Geuretik Sortuak programaren baitan idatzitako nobela aurkeztuko du. Ekitaldi irekia. *Liburutegian, 18:30ean.*

### ARRASATE Laburbira 2022

Ekitaldian egongo da Iban del Campo, aurtengo Laburbiran sartu den *Serendipia* bere azken lana aurkezteko eta solasaldia egiteko. *Amaitzokian, 19:30ean.*

## EGUAZTENA 23

### ELGETA Garbigune ibiltaria

Egun osoan. *Salbador kalean, 10:00etan.*

### ARAMAIO 'Ifigenea Kakridonik' ikuskizuna

Ahokotasunaren Nazioarteko jaialdiaren baitan, gazteleraz. *Kultura etxean, 18:00etan.*

### BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera. *Oxirondon, 18:00etan.*

### ARETXABALETA Akuarela eta olio margolanak ikusgai

Arrasate Margo Taldeko kide Matilde Sainzen, Amaia Aranzabalaren eta Arantza Baskaranen lanak ikusgai, hilaren 31ra arte. *Arkupen, 18:00etan.*

### ESKORIATZA Korrika batzordearen bilera

Ireakia. *Kultura etxean, 18:30ean.*

### OÑATI 'Aita Mari' dokumentala

Iñigo Mijangosek eta Iñigo Gutierrezek *Stella Maris Berria* atunketaria erreskate-ontzi bihurtu dute, Mediterraneo itsasoan itozten ari diren errefuxiatuak salbatzeko. *Aita Mari* izena jarri diote. Sarrerak, euro bat. *Zinema aretoa, 19:00etan.*

### ARRASATE 'Askatu edo moztu. Euskal hezkuntzagintzaren erroka zahar eta berriak' solasaldia

Nora Salbotx Alegriak egingo du berba, Karkabatik Herria zikloaren baitan. *Irati tabernan, 19:00etan.*

### ARRASATE 'Neandertalen lurraldea' hitzaldia

Ikerbasqueko Maria Jose Iriartek egingo du berba. *Kulturaten, 19:00etan.*

### ARETXABALETA Zinegoak

Bilboko LGTBI zinema eta arte eszenikoaren jaialdiko sei film labur. Sarrerak, hiru euro. *Zaraia aretoa, 19:00etan.*

### BERGARA Film laburren emanaldia eta Korrikaren bideoklipa

Korrika Kulturalaren baitan. 22. Korrikarako bideoa Txakur Gorria sormen kolektiboak egin du. *Seminarixoa, 20:00etan.*

### BERGARA Laburbira 2022

Euskarazko film laburren XIX. zirkuituko lanak ikusgai. *Seminarixoa, 20:00etan.*

## EGUENA 24

### ARRASATE Sasoibide

Oñati aldera joango dira. Autobusa 09:30ean hartuko dute. *Autobus geltokian.*

### ESKORIATZA Sanpedroen gaineko batzarra

Jaietako batzar irekia. *Kultura etxean, 18:00etan.*

### BERGARA 'Nerabeak eta gatzen kudeaketa' hitzaldia

Nerea Mendizabalek egingo du berba, euskaraz. 6 urtetik gorako umeen gurasoendako. *Seminarixoa, 18:00etan.*

### ESKORIATZA Literatura solasaldia

Virginia Despenses idazlearen *King Kong teoria* liburuaren gaineko saioa, Mikel Antzak gidatuta. *Kultura etxean, 18:00etan.*

### ANTZUOLA 'Arrola 50 urte mendiz mendi' liburuaren aurkezpena

Aurkezpena argazkiekin eta testigantzekin osatutako ikus-entzunezko baten bidez egingo da. *Torresoroan, 18:30ean.*

### ARETXABALETA 'Extremaduratik bertsolaritzara' hitzaldia

Jon Maiarekin, gazteleraz. *Zaraia aretoa, 18:30ean.*

### LEINTZ GATZAGA Hika ikastaroa

Rosa Urreta eta Joxerra Agirreurreta irakasleen eskutik. *Kultura etxean, 18:30ean.*

### ARRASATE 'Lezetxiki, neandertalen lurraldea' erakusketara bisita gidatua

Gaur, gazteleraz. Izenak, *Arrasate.eus* atarian. *Kulturaten, 18:30ean.*

### OÑATI 'Un héroe' filma

Zineklubean eta jatorrizko bertsoan. Sarrerak, bost euro. *Zinema aretoa, 20:00etan.*

### ARRASATE Kooltur Ostegunak: Gigante taldea

Sarrerak, zazpi euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

## ZINEMA

### ARRASATE

#### AMAIA ANTZOKIA

**El triunfo**  
Zapatua eta domeka: 19:30.

**Valentina**  
Zapatua: 17:00.

### BERGARA

#### SEMINARIXOA

**Un héroe**  
Domeka eta astelehena: 19:30.

**Ahi viene el cascarrabias**  
Domeka: 17:00.

### OÑATI

#### KULTURA ETXEA

**El triunfo**  
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.  
Domeka: 19:30, 22:00.  
Astelehena: 19:30.

**Dos colegas y la gran bestia**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

### ARETXABALETA

#### ARKUPE

**Licorice Pizza**  
Egubakoitza: 22:00.

Zapatua eta domeka: 19:30.  
Astelehena: 16:00.

**Encanto**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

### EIBAR

#### COLISEO

**Un héroe**  
Zapatua: 17:00, 19:45.  
Domeka: 17:00.  
Astelehena: 20:30.

**El sastrre**  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 20:00.

**Malnazidos**  
Zapatua: 19:45, 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:30.

### GASTEIZ

#### GORBEIA

**Canta 2**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:10.  
Domeka: 12:00, 17:10.

**Uncharted**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 22:15.  
Domeka: 12:00, 17:15.

Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Muerte en el Niño**  
Egubakoitzetik domeka: 19:45.  
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Ainbo**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:05.  
Domeka: 12:00, 17:05.

**The Batman**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 20:25.  
Domeka: 11:15, 17:00.

**Malnazidos**  
Egubakoitza eta zapatua: 22:20.  
Domeka: 12:00, 19:35.

**Jackass forever**  
Egubakoitza eta zapatua: 21:30.  
Domeka: 12:00, 19:40.

**Código emperador**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:40, 22:00.  
Domeka: 17:30.

Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Los tipos malos**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 17:30, 19:10, 20:05.

**La protegida**  
Egubakoitza eta zapatua: 19:25, 21:40.  
Domeka: 19:25.

**El hombre de sotano**  
Egubakoitza eta zapatua: 18:55, 21:15.

**Cyrano**  
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.  
Domeka: 12:00, 19:45.

**Lunáticos**  
Domeka: 12:00.

## KRITIKA

### Introduction

**Zuz.:** Hong Sang-soo. **Herr.:** Hego Korea (2021). **Aktoreak:** Shin Seok-ho, Park Mi-so, Kim Min-hee. **Iraupena:** 66 minutu. ★★★★★

## Itxi gabeko filma

### ANTONIO ZABALA

*Introduction*-en, pertsonaia batzuk beste batzuegana hurbiltzen dira horiekien elkarrizketa bat izateko. Horien arteko elkarrizketa garrantzitsua izan daitekeela ematen badu ere, esanguratsuen antolatutako gabeko topaketa bat izango da. Filma hiru ataletan banatzen da: lehenengoan, gazte bat medikua den aitarengana gerturatzen da, baina guk ikusten duguna da mutikoaren eta mediku-laguntzailearen arteko elkarrizketa eta besarkada. Bigarren zatian, neska bat bere amarekin Berlinera doa amaren lagun batengana, alabak ikasten duen bitartean honekin bizi dadin. Ezustean, neskaren senargaia agertzen da berearekin berba egiteko.

Senargaia lehenengo istorioaren mutil gaztea da. Bikoteak izango duen elkarrizketa eta besarkada izango da zati honen erdigune. Eta hirugarren istorioan, mutil gazteak aktore izateari utzi nahi dio, eta bere amak, aholku bila, aktore famatu batengana eramango du. Mutilarekin bere lagun bat joango da.

Pertsonaien arteko aurkezpenaz gain, *Introduction* izenburuak esan nahi du zuzendariak istorioei buruzko sarrera bat baino ez digula egiten. Elipsiak erabiltzen ditu, ez ditu istorioak gutzit garatzen, ez dakigu, zehatz-mehatz, istorioen ordena kronologikoa. Hon Sang-sook ez ditu istorioak ixten, ikusleak filma osa dezan.



AZKEN BERBA

ANE ZUAZUBISKAR

1,859

Pandemia aurretikoan, Baigorri egin genituen asteburu asko. Gradu amaierako lanean, Etxauzia gaztelua erosteko herritarren ahaleginak jaso nahi genituen, baina horren aitzakian, dozena bat herritar elkarrizketatu genituen. Harritu egin gintuen zenbait gazteren hautuak. Zuzenbide ikasketak egin eta herrian gelditzeagatik etxalde bat hartu zuenarenak edo, kostaldarantz joateko joerari ihesi, herrian gelditzeko ikasketekin zerikusirik ez zuen lanpostua zeukan harenak.

Urruti ikusten nuen kontua, baina gerturatu egin zait azkenaldian. Duela hilabete esan zidan lagun batek, lan egiten duen hirian pisu bila hasi dela: "Gasolinaren prezioa, eta autoan ordu gehiegi". Gerora idatzi dit, topatu duela pisua, eta joateko bisitan. Errepideko gasolindegia guztietako zenbaki gorriari begira hasi aurretik izan zen hori.

Bagenekien zer zectorren erregai kontuan, badakigu zer datorren, baina autobusak emakume langilez eta ikaslezt beteta daude oraindik. Hala gabilta orain ere. Orduetegi eta ibilbideak hobetzeko dagokiona estutu beharrean, gasolindegirik merkeenaren bila. Urruti dago Baigorri.

GOIENA OKM GIDA

# "Bezero onak ditut, horri esker nago hemen"

MARIA JOSE CARMONA JOSLE MERTZERIA

la 26 urteko bidearen ostean, bezero fidelak ditu, bai barruko arropa eta pijamak erostera joaten direnen artean, baita konponketak egitera joaten direnen artean

Jone Olabarria ARRASATE

Negozia herrian bertan izatearen erosotasuna asko baloratzen du Carmonak. Konponketak egitekin bularretako eta galtzontziloak saltzera pasa zen, bezeroen eskariei erantzunda. Hain zuzen ere, azken horien garrantzia azpimarratu nahi izan du: "Bezero onak ditut, eta horri esker jarraitzen dut hemen oraindik".

**Zenbat urte daramatzazu negozioarekin?**

Arropa konponketak egiten hasi nintzen, azokako postu batean. 1996. urtea zen, eta, apurka, mertzeria ekartzen ere hasi nintzen, emakumeena zein gizonena, baita baseritarren jantziak ere.

**Eta, orduetik, Otolara Lizentziaduna kalean zaude...**

Handik lau bat urtera etorri nintzen gaur egungo lokal honetara, eta dagoeneko hogeitertietatik gora daramatzat hemen.

**Zergatik aukeratu zenuen mertzeria denda jartzea?**

Egia esanda, gauza batek bestea ekarri zuen. Gustura nenbilen konponketekin, banuen lana. Baina jendeak mertzeria ere eskatzen zidan, eta horrela etorri zen. Gaur egun ere jarraitzen



Maria Jose Carmona, Arrasateko Josle dendan, eguaztenean. J.O.

## 940 euroko saria ezin banatuta

"Duela gutxi Merkemerkaia ospatu genuen Arrasaten, eta bertan parte hartu zuten bezeroen artean 940 euroko balioa zuten bi bonu zozketatu zituen Ibai-arteak. Bonuetako bat nire bezero bati egokitu zitzaion, zozketa bidez. Ibai-arteak arduraduna zoraturatuta zebilen, ezin berarekin harremanetan jarri. Azken egunak ziren, eta, bestela, beste norbaiti eman behar genion. Azkenean, nik lortu nuen berarekin egotea! Izugarri poztu zen!".

dut konponketekin eta bezero onak ditut alde horretatik ere. **Zure lanak duen onena zer da? Eta okerrena?**

Gustatzen zaidana egiten dut, bezero onak ditut, eta horri esker jarraitzen dut hainbeste urteren ostean hemen. Okerrena, gainditu behar izan ditugun krisi guztiak: ekonomikoak, COVID-19a...

**Orduetegi aldetik sakrifikatua da?**

Niretzat ez, bereziki. Zapatu arratsaldeetan, adibidez, ez dut denda zabaltzen. Askotan planteatu dut aukera hori, baina ez dakit merezi duen, eta ez naiz inoiz animatu.

**Zein da zure bezeroen profila?**

Denetik, nahiz eta adin ertaineko jendea etortzen zaidan gehien. Emakume gehiago, normalean, baina egia da geroz eta gizon gehiago ere etortzen direla, konponketa egiteko lanak ekartzera eta barruko arropa erostera.

**Zer da gehien baloratzen duzuna Arrasaten, herriko girotik?**

Bertako dendari moduan, niretzat oso garrantzitsua da herritarrekin harremana eta lanerako erosotasuna. Oinez etorri naiteke lanera egunero, etxera joaten naiz eguerdian... Jendea ezagutzen da aurretik, eta harreman estua sortzen da.

**Sare sozialak geroz eta garrantzitsuagoak dira negozio guztietan. Zuenen ere horrela da?**

Sareetan gauden eta mugitzen garen arren, gurean negozioaren zati handiena, dena ez esatearren, denda fisikotik dator, bezeroa gurera etorrita.

Goiena OKm  
Gidaren  
eskaintza  
osoa



goiena  
Okm  
gida

GOIENA  
TELEBISTA  
SASOI  
BERRIA

OIHANA ARANA ETA  
HAIZEA ARANA

SORTZAILAK

MARTXOAREN 23AN, EGUAZTENEAN,  
21:30EAN ETA 23:30EAN  
GAZTELUPE IKASTOLAKO IKASLEAK PLATOAN  
ELKARRIZKETATZAILE 'GALDEGAZTE' SAIOAN

goiena  
Zu hemen zaude.

